


guardiaarabakoerrioxako
berdintasunerakoplana



planigualdad
laguardiariojaalavesa

IZENBURUA: Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana
2019-2022

FINANTZATZAILEAK: Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla, Emakunde, Arabako Foru Aldundia.

LAGUNTZA TEKNIKOA: AZ PARTICIPACIÓN - www.azparticipacion.com

DATA: 2018ko AZAROA

HITZAURREA	04
HELBURUAK	07
LEGE-ESPARRUA	09
METODOLOGIA	14
II. PLANAREN EBALUAZIOA	16
EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA	22
Kuadrillako ezaugarri orokorrak	23
Datu kuantitatiboak	24
Datu kualitatiboak	33
Politikariak Gizarte Zerbitzuak Arlo teknikoak Hezkuntza-komunitatea Turismo-bulegoak Idazkari kontu-hartzaileak	
Topaketa parte-hartzaileak herritarrekin	60
Ebaluazioaren eta diagnostikoaren ondorioak	64
ARABAKO ERRIOXAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA 2019-2022	70
GOBERNU ONA	72
I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	80
II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	84
III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	88
EBALUAZIORAKO SISTEMA	94
ERANSKINA. ONLINE INKESTAREN EMAITZAK	95

HITZAURREA

Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillak, eskualdeko berdintasun-zerbitzuaren bidez, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko konpromisoa hartu du Arabako Errioxako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren diseinuaren prozesuaren bitartez. Erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko behar duten erremintarik baliagarriena da Berdintasunerako Plan bat.

Egungo lege-esparruak horrela ezartzen du, izan ere, aplikatzen ari den Lege eta arau kopurua geroz eta handiagoa da. Horien artean, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legea, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Estatuko Legea, eta NBEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, besteak beste. Are gehiago, 4/2005 Legearen 7. artikulua jasotzen duenez, lege horren aplikazioa eraginkorra izateko, tokiko erakundeei dagokie, indibidualki, kuadrilla edo mankomunitatearen bidez hainbat funtzio betetzea.

Hori horrela, III. Berdintasunerako eskualdeko Planak lege hori betetzeko ekintzak jasotzen ditu. Guardia – Arabar Errioxako Kuadrillak aurreko bi planak aurrera eramaten saiatu da, hain zuzen, legeria bete ahal izateko. Baina errealitate instituzionalak zein ekintzak aurrera eramateko zailtasun ekonomikoak batetik, eta gaiarekiko eszeptizismoak zein orain arteko berdintasun-zerbitzuaren ezegonkortasunak bestetik (urte horietan zehar soilik une zehatzetan existitu da zerbitzu hau), onartutako Planak aurrera eramateko zailtasunak sortu ditu.

2016 urte bukaeratik aurrera Arabako Foru Aldundiak Kuadrillekin batera egindako apustu eta konpromisoari esker (eskualde guztietan gertatu den bezala) denboran iraungo duen berdintasun-zerbitzua izateko erronkari eutsi egin zion Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak. Ordutik, lanaldi osoan diharduen eskualdeko berdintasun-teknikaria eskualde eta udalerrri mailan hainbat ekintza martxan jartzen hasi zen.

Hortaz, 2018an zehar 2017 arte iraun duen eskualdeko berdintasunerako II. Plana ebaluatu egin da, batez ere jakiteko orain arte antolatutako ekintzek planean jasotzen ziren helburuak bete dituzten edo ez. Gainera, alde batetik, Berdintasunerako Planak eta Indarkeria Matxistari aurre egiteko protokoloak lurralde osoan bultzatzeko Arabako Foru Aldundiak egindako esfortzua aintzat hartuz; eta bestetik, beste hainbat Kuadrillen esperientziak ezagututa eta beraietan planean izandako eragin positiboak kontuan hartuz, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla momentu ezin hobean dago Berdintasunerako III. Plana martxan jartzeko, udalerrri mailan berdintasunerako politika publikoak bultzatzeko tresna erabilgarria izango delarik.

Berdintasunerako III. Plan horrek aurrerapen handia suposatuko du gizarte berdinzaleago baten aldeko politika publikoak garatzeko, lanaren esparrua edozein dela ere. Alabaina, Kuadrillan Berdintasunerako III. Plan errealista eta eraginkorra diseinatu ahal izateko, funtsezkoa eta nahitaezkoa izan da eskualdeko II. Planaren ebaluazioa egiteaz gain, Kuadrillan parte hartzen duten udalerrietako emakumeen eta gizonen egoera aztertzea, Kuadrillako Berdintasun-arloaren egoera

oso ahula izan delako orain arte, eta ondorioz, eskualdeko benetako egoerari buruzko informazio gabezia garrantzitsua izan delako.

Hori dela eta, Berdintasunerako III. Plana egin aurretik, 2018an zehar ebaluazioa eta diagnostikoa prozesu bakar batean bateratu dira. Beraz, ebaluazio-diagnostikoa III. Plana garatzeko balio izan duen aurreko fasea izan da; ekintza egokienak lehenetsi ahal izan dira eta errealitatearekin bat datorren Plan bat egiten lagundu du diagnostikoak. Oro har, prozesua parte-hartzailea izan da eta **Emakundeko Emakumeen eta Berdintasunerako VII. Planak** ezarritako esku-hartze ardatzak kontuan hartu dira. Honako hauek dira:

- **Gobernu Ona.** *Nazioartean aho batez onartzen da ezin dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egin baldin eta legeriak eta politika publikoek ez badituzte berekin ekartzen konpromisoak betetzea bermatuko duten gobernu-zuzentarauak, aurrekontuko diru izendapenak, erakunde arteko akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta kontrol sistemak.*

Gobernu Onerako VII. Planak honako programa hauek hartzen ditu barne:

- *I. Programa. Konpromiso politikoa.*
 - *II. Programa. Berdintasunerako trebakuntza.*
 - *III. Programa. Genero-ikuspegia lan prozeduretan.*
 - *IV. Programa. Koordinazioa eta elkarlana.*
 - *V. Programa. Parte hartzea eta eragina.*
- **I. Ardatza. Emakumeen Ahalduntzea.** *2015ean Nazio Batuetako estatu kideek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez eta 2030erako Mundu Agenda berriaren bidez, lortu nahi da XXI. mendearen bilakaera aldatzea, bizitzaren eremu guztietan dauden desberdintasunak, pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatuz. Hala ere, NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako.*

VII. Planak honako Programa hauek ditu ardatz horren barruan:

- *1. Programa. Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiborako laguntza.*
 - *2. Programa. Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza.*
- **II. Ardatza. Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko.** *Nazio Batuen Erakundeak adierazten duenez, ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa da hiru lehentasunezko eremutan ekitea: emakumeentzako lan duinean, genero-ikuspegia duten gizarte-politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan.*

VII. Planak honako Programa hauek ditu ardatz horren barruan:

- 3. Programa. Gizartea eta ekonomia eraldatzeko, berdintasuna beharrezko balioa dela aitortzea.
 - 4. Programa. Emakumeen autonomia ekonomikoa.
 - 5. Programa. Zaintzen ekonomia feminista.
- **III. Ardatza. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.** Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik baliatzen duten indarkeria da, eta hala baliatzen da genero-diskriminazioen ondorioz eta gizarte-eredu ez-pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun-egoeran baitaude haiekiko.

VII. Planak honako Programa hauek ditu ardatz horren barruan:

- 6. Programa. Sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- 7. Programa. Kaltea hautematea, arreta ematea eta konpontzea.
- 8. Programa. Erakunde arteko koordinazioa.

Emakunderen Berdintasunerako VII. Plana eta bere ardatzez gain, aintzat hartu da, halaber, **Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana**. Eraldaketaren aldeko esku-hartze eremuak finkatzen ditu eta ardatz nagusiak bat datoz Emakunde jasotakoekin, baina honela deitzen zaie foru planean:

— **Gobernu Ona.**

- Konpromiso politikoa
- Generoko gobernamentua eta mainstreaminga
- Demokrazia parte-hartzailea

— **Emakumeen ahalduntzea.** Hiru ildo estrategiko:

- Emakumeen ahalduntze pertsonala
- Emakumeen ahalduntze kolektiboari laguntzea
- Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoari laguntzea

— **Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk.** Hiru ildo estrategiko:

- Indarkerien zuzeneko adierazpenak edo pertsonartekoak
- Egiturazko indarkeria
- Indarkeria kultural eta sinbolikoa

— **Zaintzen kultura eta antolamendu berri bat.** Bi ildo estrategiko:

- Zaintzen gizarte-balioa
- Zaintzetan erantzunkidea den gizarte-antolaketa.

HELBURUAK

Bi une eta prozesu desberdinen helburuak bereizi dira: alde batetik, ebaluazio-diagnostiko fasea eta, bestetik, III. Planaren idaztea.

Ebaluazio-diagnostiko fasearen helburuak:

1. Ebaluazioa egitea eta benetako diagnostiko osatua, eguneratua eta adosturikoa lortzea. Eragileen parte hartzea sustatu da II. Planaren ekintzen betetzeari eta emakumeen eta gizonen gaur egungo egoerari buruz eztabaidatzeko. Ondorioz:
 - Aurrekariak aintzat hartuz, gaur egungo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren errealitatearen mapa egin da Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan eta bertako udalerrietan.
 - Datu horiek aztertu dira eta emaitzak modu argi eta zuzenean transmititu zaie herritarrei.
 - Ebaluazioan eta diagnostikoan parte hartu duten profesional eta gizarte-eragile guztien kontzientzia maila aztertu da.
 - Erabakiak jakinaren gainean hartu ahal izateko informazioa jaso da eta Kuadrillaren behar bereziei egokituriko neurriak hartu dira.
 - Eskualdeko Berdintasunerako II. Planean jasotako ekintzen betetze maila aztertu da.
2. Arabako Errioxako eremu ezberdinetako bizimoduan ematen diren desberdintasunen inguruan emakumeek eta gizonen eztabaidatzeko lan-taldeak sortzea.
3. Kuadrillan eta bertako udalerrietan egiturak sortzea, berdintasun-politikak ezartzearen alde lan egiteko.

III. Plana prestatzeko fasearen helburuak:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plan bat diseinatzea, eskualde zein udal mailan ekintzak ezarriko dituen.
2. Teknikarien eta politikarien sentsibilizatzea sustatzea, genero-ikuspegia euren esparruetan txertatzeko beharra erakutsiz.
3. Biztanleria orokorrari balioa aldatzeko beharrezko ezagutaraztea, emakumeek egindako lana gehiago baloratuz, hala nola, bizitzaren zaintzea eta mantentzea, eta era berean haien beharrak ikusgai eginez.
4. Etxeko eginkizunetan, familiaren zaintzan eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan gizonen erantzukizuna areagotzea zaintzaren etikaren inguruko sentsibilizazioa sustatuz.

5. Kanal parte-hartzaile bat sortzeko asmoz, elkarrekin eta udalerrietako emakumeekin batera sare sozialak sortzea, sare horiek pixkanaka-pixkanaka tokiko politiken jarraipena egiteko erreferente bilakatuz, eta era berean, indarkeria matxistaren aurka kontzientziatzeko elkarlana sendotuz.
6. Berdintasunerako III. Plana burutzeko egiturak sortzea

LEGE-ESPARRUA

Lege-esparrua berdintasunari dagokionez zabala da, baina prozesu honetan kontuan hartu dira behean zerrendatutako eskualde, estatu eta nazioarte mailako arauak nagusiki:

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

→ 3. artikulua printzipio orokor hauek jasotzen ditu:

- ✓ Tratu berdina.
- ✓ Aukera berdintasuna.
- ✓ Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.
- ✓ Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- ✓ Ekintza positiboa.
- ✓ Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
- ✓ Ordezkaritza orekatua.
- ✓ Lankidetzaren eta koordinazioaren.

→ 7. artikulua tokiko administrazioaren funtzioak jasotzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan:

- ✓ Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- ✓ Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- ✓ Toki-eremuan programak egitea, Jaurkitzearen plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- ✓ Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- ✓ Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- ✓ Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- ✓ Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

- ✓ Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea.
- ✓ Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte- eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea
- ✓ Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea.
- ✓ Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- ✓ Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorra lortzeko.

→ 14. artikulua Botere Publikoei buruzko irizpide orokorrak ezartzen ditu:

- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eskubide konstituzionalaren eraginkortasunaren aldeko apustua egitea.
- ✓ Tratu berdinen eta aukera berdintasunaren printzipioa integratzea politika ekonomiko, laboral, sozial, kultural eta artistiko guztietan.
- ✓ Administrazio publikoen arteko lankidetzak eta kooperazioa sustatzea tratu berdinen eta aukera berdintasunaren printzipioak aplikatzean.
- ✓ Hauteskundeetan eta erabakiak hartzeko esparruetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzea.
- ✓ Genero-indarkeria, familia-indarkeria eta mota guztietako jazarpen sexuala eta sexuaren araberako jazarpena desagerrarazteko beharrezko neurriak hartzea.
- ✓ Emakumeen kolektibo batzuk pairatzen dituzten zailtasun bereziak kontuan hartzea, hala nola, emakume migratzaileak, neskak, ezintasunak dituzten emakumeak, emakume zaharrak, alargunak eta indarkeriaren biktime diren emakumeak.
- ✓ Amatasuna babestea.
- ✓ Emakumeen eta gizonen lana, bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko neurriak finkatzea.

- ✓ Herri-administrazioen eta gizarte-eragileen, emakume-elkarteen eta beste erakunde pribatuen arteko lankidetzak sustatzea.
- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eraginkortasuna sustatzea gizabanakoen arteko harremanen baitan.
- ✓ Hizkuntza ez sexista administrazio-esparruan ezartzea eta harreman sozial, kultural eta artistiko guztietan sustatzea.

Europar Batasuneko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako konpromiso estrategikoa. 2016-2019.

→ Europako Batzordeak lehentasunezko arlo hauek ezarri ditu bere lan-egitarauan:

- ✓ Lan-merkatuan emakumeen partaidetza areagotzea eta emakumeen eta gizonen independentzia ekonomiko berdina sustatzea.
- ✓ Ordainsari, sarrera eta pentsioetan sexuen artean ematen diren desberdintasunak murriztea, emakumeen arteko pobrezia aurre egiteko.
- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea erabakiak hartzeko esparruetan.
- ✓ Indarkeria sexistaren aurka borrokatzea eta biktimak babestea eta laguntzea.
- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta mundu osoko emakumeen eskubideak sustatzea.

→ Lehentasunezko arlo bakoitzean, ekintza nagusiak zehazten dituzte.

Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda, garapen jasangarrirako. NBE 2015.

→ Agendan jasotako garapen jasangarriko 17 helburuen artean, 5. helburua azpimarratu behar da «*genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahaldunduz*» deiturikoa. Horren barne, helburu zehatzak zerrendatzen dira:

- ✓ Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea
- ✓ Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne

- ✓ Praktika kaltegarri guztiak ezabatzea, besteak beste, haurren ezkontza, goiztiarra eta behartua, eta emakumeen genitalen mutilazioa
- ✓ Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeserako politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera
- ✓ Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko erabaki-gune guztietan
- ✓ Sexu eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa-eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera
- ✓ Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritik
- ✓ Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarik, emakumeen ahalduntzea sustatzeko
- ✓ Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskatu guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan

Europako Kontseiluaren Konbentzioa, Emakumeen aurkako indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko. Istanbulgo Hitzarmena. 2011.

- Hitzarmen horri dagokionez, Europako Kontseiluko kideek alderdi hauek biltzen dituzte, besteak beste:
- ✓ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren bolumena kontuan hartzen dute, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko arau garrantzitsuak ezartzen dituelako.
 - ✓ Emakumeen eta etxeko indarkeriaren aurkako indarkeria mota guztiak kondenatzen dituzte.
 - ✓ Aitortzen dute emakumearen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna dela emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioarako funtsezko elementua.

- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria emakumezkoen eta gizonen arteko desoreka historikoaren adierazpena dela aitortzen dute, eta emakumeak gizona zkoen menpe eta diskriminatua egotea bultzatu duela egoera horrek, baita emakumeak bere emantzipazio osoa galtzera ere.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeriaren egitura estrukturala generoan oinarritzen dela, eta emakumeen aurkako indarkeria emakumeak gizona zkoen mendeko egoeran mantentzen dituen gizarteko mekanismo erabakigarrietako bat dela aintzatesten dute.
- ✓ Emakume eta neskek askotan indarkeria modu larriak pairatzen dituztela aitortzen dute, hala nola, etxeko indarkeria, sexu jazarpena, bortxaketa, behartutako ezkontza, «ohorearen» izenean burututako delituak eta mutilazio genitala. Era berean, emakumeen eta nesken **giza eskubideen** urraketa larria direla indarkeria horiek eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko oztopo nagusia dela aintzatesten dute.
- ✓ Gatazka armatuaren egoeretan biztanleria zibilari eta bereziki emakumeei eragiten dieten giza eskubideen etengabeko urraketak aintzatesten dituzte, bortxaketak eta sexu-indarkeria orokorrak edo sistematikoak ematen baitira. Aitortzen dute, halaber, gatazken aurretik eta ondoren genero-indarkeriaren gorakada potentziala ematen dela.
- ✓ Emakumeek eta neskek gizona zkoek baino sexu indarkeriaren arrisku handiagoak dituztela agerian uzten dute.
- ✓ Etxeko indarkeria emakumeek modu desproporzionalean pairatzen dutela eta gizona zkoek ere etxeko indarkeriaren biktimak izan daitezkeela aitortzen dute.
- ✓ Umeak etxeko indarkeriaren biktimak direla aintzatesten dute, familiaren barruan indarkeriaren lekuko direnak barne.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeriarik eta etxeko indarkeriarik gabeko Europa bat sortzeko asmoa erakusten dute.

METODOLOGIA

Erabilitako metodologia partaidetzako prozesu batean oinarritu da emaitza ezin hobea lortzeko asmoz, izan ere, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasunerako III. Plana ez litzateke kalitatezkoa izango eragile sozialen parte hartzerik gabe. Horregatik, eskualdeko bizilagun guztiek diagnostikoaren garapenean esku hartzeko aukera izan dute. Horretarako, hasiera-hasieratik, iritzia jasotzeko galdeketa online bat zabaldu zen whatsapp eta posta elektronikoaren bidez, baita paperean inprimatuta ere, berdintasunaren inguruko pertzepzioa ezagutzeko asmoz (*emaitzak eranskinean*). Azkenean, 147 pertsonen erantzun zioten inkesta horri; datu estatistikoak ateratzeko lagin nahikoa ez bada ere, aski izan da gutxieneko eztabaida sortzeko pertsona horien ingurunean.

Bestalde, inplikaturiko pertsonen eta diagnostikoan aktiboki parte hartu dutenek aukera izan dute beren ekarpenak baloratu, bildu eta erantzun direla egiaztatzeko. Modu honetan, metodologia horrek parte-hartzaileen ikaskuntza eta kontzientziazio prozesuari forma eta edukia eman dio, bizimoduetan, herrietan, harremanetan eta abarretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko hausnarketa sustatuz; eta, aldi berean, prozesu horrek tresnak eman dizkie emakumeei norbanako ahalduntze prozesu propioa zein ahalduntze kolektiboa indartzeko.

Metodologia horren bidez, eragile politiko, tekniko eta sozialen inpresioak eta beharrak biltzeko aukera egon da, eta arlo guztietan emakumeen eta gizonen benetako egoera zehazten duen diagnostikoa egin da. Helburu errealista eta exekutagarriak dituen III. Plan bat egitea erraztu du horrek.

Emaitza horiek herritarrei zuzendutako bi topaketetan aurkeztu ziren, Eltziegón eta Oyón-Oionen, hurrenez hurren. Espazio horietan bizilagunen arteko eztabaida sustatu zen, eta bide batez, prozesu osoa ezagutzera eman zitzairen. Ondorioz, parte hartu zuten pertsonen pertzepzioa ezagutu ahal izan zen eta esku-hartze ardatzetan funtsezkoak diren ekintzak zehaztu, adostu eta lehenetsi ziren.


PROZESUAREN HASIERA

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako lehendakariarekin eta berdintasun-teknikariarekin batera lehenengo bilera egin ondoren, aurrerantzean azaltzen den prozesuari ekin zitzaion. Bilera horren helburua benetako inplikazioa eta bultzada politikoa lortzea zen, prozesu osoan erabakigarria izan baita alderdi hau. Bigarren helburua talde sustatzailean parte hartu behar zuten pertsonen izenak adostea izan zen; azkenean hauek izan ziren: - **Kuadrillako lehendakaria** / - **Berdintasun Teknikaria** / - **Kultura eta kirol teknikaria** / - **Komunikazio teknikaria** / - **Genero-indarkeriaren alorreko gizarte-langilea** / - **4 emakume gizarte-egituraren ordezkari gisa.**

Talde sustatzaile horren funtzioak ondorengoak izan dira:

- Informazioaren bila aritzea eta datuak eta ideiak ekartzea ebaluazioa, diagnostikoa eta III. Plana egiteko.
- Prozesua koordinatu eta dinamizatzea.
- Erabakiak hartu eta adostea.
- Emaitzen sozializazioan eta parte hartzerako deialdien hedapenean laguntzea.
- Prozesuaren fase guztiak jarraitzea

guardiaarabakoerrioxako
berdintasunerakoplana



planigualdad
laguardiarioriojaalavesa

II. PLANAREN EBALUAZIOA

GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAKO BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN EBALUAZIOA

Guardia-Arabako Errioxako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana, 4 urteko iraunaldia izan duena, 2014tik 2017ra arte aplikatzeko onetsi zen. Eskualde mailan dagoen berdintasun eta bazterkeria egoerari buruzko diagnostikoa egiteko abian jarri zen prozesu parte-hartzailearen baitan, II. Plan horretan jasotako ekintza horiek ebaluatu egin ziren berdintasun-teknikariarekin alderatuz zuzenean.

Arabako kuadrilla guztietan egitura tekniko egonkorra sustatzeko asmoz Foru Aldundiak onartutako hitzarmen baten emaitza da Arabako Errioxan dagoen berdintasun zerbitzua. Horrela, 2016ko amaieratik aurrera, Kuadrillan denboran zehar egonkorra izango den berdintasun-teknikari lanpostu bat sortu da, eta horri esker, ekintzak, jarduerak eta berdintasun-politikak garatu ahal izan dira.

Errealitate horri esker, Berdintasunerako II. Plana berdintasun zerbitzurako tresna gisa erabili da, **azkeneko urtean** behintzat, eta ondorioz, ekintza horien **ebaluazioa epe horretara mugatu** da. Berdintasun-teknikariak, zerbitzutik diseinatutako ekintza zehatzez gain, *Laia Eskola- Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolatik* bultzatutako ekintzak sustatzeko aukera izan du. Guzti horrek zerbitzua ikusgai egin du eskualde mailan.

2017an berdintasun zerbitzuak sustaturiko jarduerak kontuan hartuta, Berdintasunerako II. Planean jasotako ekintzak eta horien gauzatze maila honako hauek izan dira:

Arloak	Aurreikusitakoak	Buruturikoak	Partzialki buruturikoak	Buruturik gabekoak
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	12	5	5	2
BALIOEN ALDATZEA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	13	7	4	2
GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA	4	1	1	2
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERAUZTEA	6	3	0	3
GUZTIRA	35	15	10	10

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA ARLOA
G.1. Helburua. Berdintasuna bultzatzen duten egiturak sustatzea
G.1.1. Urteroko aurrekontuetan berdintasun zerbitzuari partida ekonomikoa esleitzea. Partzialki buruturikoa . Kuadrillan bai, udalerrietan ez.
G.1.2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiketan esperientzia duen trebatutako teknikari bat kontratatzea Berdintasun Zerbitzurako. Buruturikoa – 2016 urte amaieraz geroztik lanaldi osoko lanpostu egonkorra dago.
G.1.3. Berdinbideanekin elkarlanean aritzea proposatzen diren ekintzetan. Buruturikoa – Berdinbidean eta AFAk dinamizaturiko Arabako berdintasun-teknikarien sarea dago.
G.1.4. EAEko eta AFAko Berdintasunerako Erakundeei Berdintasunerako II. Planaren elaborazioa eta onespena jakinaraztea. Buruturikoa – Bai Emakundeak eta baita Diputazioak ere informazio hori dute
G.1.5. Emakumeen parte-hartzea sustatzea Kuadrillako batzorde eta kargu politikoetan. Buruturikoa – Jarduera: «Emakumeen ahalduntze soziopolitikoak: Emakumeak eta 2017ko kontzejuetarako hauteskundeak. Batzar irekia».
G.2. Helburua. Genero-ikuspegia Kuadrillaren eguneroko lanean sustatzea
G.2.1. Udal-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko gidak zabaltzea, Kuadrillako langileen eta ordezkari politikoen artean. Buruturik gabekoa.
G.2.2. Sexuaren arabera sailkatutako datuak biltzea Kuadrillako zerbitzu eta arlo guztietan. Partzialki buruturikoa – Zenbait arlotan bakarrik egiten da. (OGZ, kultura eta kirola, berdintasuna, sustapen ekonomikoa)
G.2.3. Genero-ikuspegia irizpide gisa kontuan hartzea arloetako jarduerak planifikatzeko orduan. Buruturik gabekoa.
G.2.4. Udalaz gairako administrazioko langileei eta kargu politikoei zuzendutako berdintasunaren inguruko gaiei buruzko prestakuntza ematea, 2005eko otsailaren 18ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 17. artikuluan ezarritakoa betez. Partzialki buruturikoa – Teknikari batzuek oinarrizko prestakuntza jaso dute.
G.2.5. Sexuaren araberako partaidetza orekatua bermatzea epaimahai, batzorde, eta abarretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, 20.4, 5, 6, 7 eta 8 artikuluetan ezarritakoarekin betez. Partzialki buruturikoa – Merkataritza eta euskara arloek alderdi hori kontuan hartzen dute.
G.2.6. Bai barruko bai kanpoko dokumentazioaren eta kartelen jarraipena egitea, hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzeko. Partzialki buruturikoa – batez ere kanpokoan egiten da, baina ez beti; barrukoetan gutxitan eta soilik zenbait udalerritan.
G.2.7. Kuadrillako web orrialdean sartzeko Berdintasun Zerbitzuaren aipamena eta bertako edukia hornitzea eta informazioa eguneratzea. Buruturikoa – «Berdintasun Zerbitzua» atala dago.
BALIOEN ALDATZEA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZE ARDATZA
A.1. Helburua. Balio aldaketa sustatzea genero-rolak eta estereotipoak ezabatuz
A.1.1. Emakumeak bistaratzeari bideratutako ekintzak sartzeko festen eta ospakizunen programazioan. Partzialki buruturikoa – Oyón-Oiongo Gazteakekin koordinatuta. Halaber, martxan dago Bastidako udalerriko festen inguruko hausnarketa. Bertan parte-hartzen dute jai batzordeak, Emakumeen Elkarteak, Gazteriaren Elkarteak eta herritarrek ere maila pertsonalean, baita Galtzagako Batzar Administrazioak ere.

<p>A.1.2. Genero-ikuspegia kirol edota aisialdi jardueretan txertatzea (emakumezko kirolariei deialdia egitea, emakumeen parte hartzea bermatzea jardueretan, etab.). Burururikoa. Berdinmartxa; eskualdeko topaketa generoaren eta kirolaren ingurukoa izan zen.</p>
<p>A.1.3. Kultur programazioak genero-ikuspegia duela bermatzea. (emakumeek jardueretan parte hartzeko deialdia eginez, berdintasunaren aldeko baloreak sustatzen dituzten jarduerak antolatuz, etab.) Partzialki burururikoa – batez ere Laia Eskolako jardueretan eta Berdintasun zerbitzuak bultzaturiko ekintzetan.</p>
<p>A.1.4. Berdintasunaren aldeko ekintzak antolatzea data esanguratsuetan: martxoak 8, maiatzak 28, urriak 15 (adibidez, horrelako gaiak: eskualdeko garapenean emakumeen papera, zaintzearen eta nork zaintzen duenaren garrantzia, etab.). Burururikoa. Urteroko kanpainak.</p>
<p>A.1.5. Hezkidetzak modu koordinatuan lantzea proposatzea eskolei. Burururikoa – Hezkuntzako komunitatearen eta berdintasun zerbitzuaren arteko koordinazioa egokia da.</p>
<p>A.1.6. Genero-ikuspegitik sexualitate tailerrak eta gazteen artean tratatu onen inguruko tailerrak sustatzen jarraitzea. Burururikoa. Ikastetxe guztietan egiten dira</p>
<p>A.1.7. 2 eta 12 urte bitarteko umeen berdintasunari buruzko azterlan bat egitea. Burururikoa. 2015ean.</p>
<p>A.1.8. Kuadrillako komunikazio baliabideak erabiltzea (eskualdeko aldizkaria, tokiko irratia) berdintasunaren inguruko sentsibilizazio, emakumeen ahalduntze, eta balioak aldatzearen aldeko jarduerak aurrera eramateko (emakumeekin tertuliak, artikulatuak, elkarrizketak, etab.). Partzialki burururikoa – Berberana aldizkariak berdintasunerako atal bat dauka, baina, oro har, genero-ikuspegia ez dago edukietan txertatuta.</p>
<p>A.2. Helburua. Emakumeen mugimendu asoziatiboa sustatzea eta elkarteen egituraren beraien parte hartzea laguntzea.</p>
<p>A.2.1. Emakumeen ahalduntze soziopolitiko hobetzeko jarduerak antolatzea. Burururikoa – Berdintasun zerbitzuak emakumezkoen mugimendua laguntzen du.</p>
<p>A.2.2. Emakumeen arteko aliantzak sustatzea (sareak), emakume etorkinengan arreta berezia jarritz. Partzialki burururikoa. Bultzatzen ari dira.</p>
<p>A.2.3. Emakumeen beharrezkoak eta haien oztopoak ezagutzeko elkarteen egituretan parte hartzeko unean. Burururik gabekoa.</p>
<p>A.3. Helburua. Enplegua lortzeko emakumeen motibazioa garatzea eta eskualdeko udalerrietako emakume ekintzaileak bistaraztea.</p>
<p>A.3.1. Emakume ekintzaileak bistaratu dituzten ekintzak garatzea, emakumeek eskualdearen ekonomia garatzeko egindako ekarpenak nabarmenduz Burururik gabekoa.</p>
<p>A.3.2. Enpresa-sorkuntza bultzatzeko tailerrak eskaintzea, emakumeak lan merkatuan sar daitezela laguntzeko asmoz. 2014-2017. Burururikoa –Kuadrillako enplegu arloak Lanbidek genero-ikuspegiarekin ezarritako jarraibideak jarraitzen ditu.</p>
<p>GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA ARLOA</p>
<p>GAE.1. Helburua. Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika sustatzea</p>
<p>GAE.1.1. Gazteei eta umei zuzendutako aisialdi-programak sustatzea, beren familien kontziliazioa errazteko oporretan. Burururikoa – Euskara arloak udalekuak antolatzen ditu</p>
<p>GAE.1.2. Beharrezkoa izanez gero, kontziliazio-baliabideak eskaintzea jardueretan. Partzialki burururikoa – Zenbait kasutan, haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen da jardueretan (berdintasun zerbitzutik beti).</p>
<p>GAE.1.3. Prebentzio komunitarioko programetan elkarlanean aritzea, zaintza lanak baloratzearen aldeko ekintzak burutzeko. Burururik gabekoa.</p>

GAE.1.4. Eskualdeko eta tokiko komunikabideak erabiltzea kontziliazioaren praktika onak zabaltzeko (Kontziliazio planak dituzten enpresak, kontziliazioaren inguruko AFAko ekintzak, etab.). Buruturik gabekoa.
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ERAUZTEA
EI.1. Helburua. Indarkeriarik gabeko portaera-ereduen garapena indartzea
EI 1.1. Erakundearen konpromisoa eta aldarrikapenak erakustea Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean, azaroaren 25ean. Buruturikoa. Urteroko kanpainak
EI 1.2. Azaroaren 25 Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean jarduerak antolatzea. Buruturikoa. Urteroko kanpainak
EI 1.3. Beharrezkoa denean, emakumeen kontrako eraso sexisten aurkako salaketa publikoak egitea. Buruturik gabekoa.
EI 1.4. Gizonen parte-hartzea sustatzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan sentsibilizazio kanpainen bidez. Buruturik gabekoa.
EI 1.5. Berdinbidean eta beste erakunde publiko batzuen baliabideak aprobetxatzea indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko. Buruturik gabekoa.
EI 1.6. Indarkeriaren prebentzio tailerrak egitea gazteei zuzenduta. Buruturikoa – Autodefentsa feministako tailerrak egin dira hainbat udaletan; San Bizente Ikastolako ikasleek parte hartu zuten Beldur Barik-en.


AFaren diru-laguntzarekin kofinantzatzen den eskualdeko berdintasun-teknikariaren kontratazioarekin lotutako gastuak ordaintzeaz gain, 1.000 euroko partida dago eskualdeko berdintasunerako jardueretara bideratua. Horrek esan nahi du, praktikoki, diru-laguntzekiko mendekotasuna oso handia dela, are gehiago Udalen kasuan, jarduera-programa zehatz batentzako eskatutako diru-laguntza jasotzen dutenean soilik bideratzen baitute beren funts propioa, eta horrela behartuta daudelako, alegia.

Berdintasun-teknikariak 2017ko urte osoan zehar berdintasuna sustatzeko abiatutako jarduerak bildu ditu, eta honako hauek izan dira:

Udalerrria	Antolatzailea	Jardueraren izenburua
Guardia	UAGA	Arabako Emakume Nekazari eta Abeltzainak landa-munduko protagonistak. UAGAKo 5. Jardunaldiak.
Guardia	LAI Aeskola	LAI A eskolaren aurkezpena
Guardia	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Jardunaldia: emakumeen ahalduntzea eta autonomia – Arabako Errioxako Laia Eskolaren aurkezpena; Hitzaldia; Pintxo-pote
Oyón-Oion	Oyón-Oiongo auzokideen Mahai parte-hartzailea	Work Kafea: Emakumeen Eguna
Oyón-Oion	Oyón-Oiongo Gazteak; Oyón-Oiongo Udala; Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Bideoforuma + Klown Klusiones
Oyón-Oion	Bitartean Jolasean	Oyón-Oion, bizitzeko tokia, elkarrekin bizitzeko tokia. III. Topaketa eguna

	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	
Oyón-Oion	Oyon-Oiongo Gazteak Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Berdintasunezko jaiak? Tailer praktikoa
Oyón-Oion	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Oyón-Oiongo Gazteak	Autodefentsa feministako tailerra
Lapuebla de Labarca	«Las Barandillas» Emakume Elkartea; Lapuebla de Labarcako Udala; Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Bitartean Jolasean	Arabako Errioxako Emakumeen I. Topaketa
Bilar	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Izena eta Izana Ezbaian. Gida praktikoaren aurkezpena
Eskuernaga	Etxaldeko Emakumeak	Elikadura Subiranotasunaren aldeko Emakumeen Topaketa
Eskuernaga	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Eskuernagako Udala	Zer da feminismoa?
Bastida	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Bastidako Udala	Ludoteka Berdintasunaren Astea
Bastida	Zinhezba Peña Toloño Emakume Elkartea	Zineforuma Bastida – Paulina (La Patota)
Bastida	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Bastidako Udala	Autodefentsa feministako tailerra
Bastida	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	LAI Aeskolaren aurkezpena
Iekora	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Iekorako Udala	Inaugurazioa: Itzaletik argira: argazki erakusketa ibiltaria
Lantziego	Eulate Emakumeen Elkarte Kulturala; Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua; Lantziegoko Udala	Irakurketa Klub Feminista «Ordu Morea – Arabako Errioxa»
Moreda	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Krisialdien sendatzeko ahalmena. Doluak eta galerak
Leza	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Indarkeria matxista: mitoak eta zurrumurruak
Paganos	Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Emakumeen ahalduentze soziopolitikoak: Emakumeak eta 2017ko Kontzejuetarako hauteskundeak. Batzar Irekia.

guardiaarabakoerrioxako
berdintasunerakoplana



planigualdad
laguardiariorjoalavesa

EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAKO BERDINTASUNARI ETA DESBERDINKERIARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

GUARDIA – ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Guardia - Arabako Errioxako eskualdea, bere webgunean jasotzen den moduan, *Arabako Lurralde Historikoko hegoaldean kokatzen da: Kantabria mendilerroa eta Ebro ibaiaren artean. 23 herrik osatzen dute ardoaren kulturari tradizionalki horren lotuta dagoen eskualdea eta oraindik mantentzen du mahasti artean eraikitako Erdi Aroko herribilduen xarma*. Eskualdeko ezaugarri nagusietako bat da *13.500 mahasti hektarea dagoela eskualde osoan eta 400 upeltegi inguru. Upeltegi horietan urtero egiten dira 100 milioi ardo botila inguru, guztiak Errioxa Jatorrizko Deitura Kalifikazioko Kontseilu Arautzaileak kontrolatuta (iturria: Kuadrillako web orrialdea)*.

Kontuan hartu beharreko beste datu bat: biztanleriaren sakabanaketa. Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillak 15 udalerrri, 19 herri eta 4 auzo ditu. Oyón-Oion biztanle gehien dituen Udala da, eta Guardia, Bastida eta Eltziego dira hurrengoak. Gainerako udalek 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte (horietako seik 300 baino gutxiago): Lapuebla de Labarca; Lantziego; Bilar; Mañueta; Eskuernaga; Samaniego; Moreda; Navaridas; Leza; Kripan; eta lekora.

Biztanleriaren alderdi horiek aintzat hartu dira Emakundek bere Berdintasunerako VII. Planean proposatutako esku-hartze ardatzak lantzerakoan, bai politikariei dagokienez —oso sakabanatuta daude eta euren jardute-esparrua oso desberdina da herriaren arabera—, baita teknikariei dagokienez ere —beraien lanak ahalegin berezia eskatzen du lurraldearen konplexutasunagatik eta herri batetik bestera mugitu behar dute askotan—.

Bestalde, ezinbestekoa da herri txiki batean bizitzeak dakartzan oztopoak kontuan izatea. Udalerrri txikietan emakumezkoek beste hesi bat gehiago aurkitzen dute, izan ere, genero-indarkeriaren biktima gisa emakumeek euren burua aitortzeko zailtasunak areagotu egiten dira, eta ondorioz, autonomia pertsonala garatzeko mugak izaten dituzte. Ebaluazioaren eta diagnostikoaren bidez, eskualdean gai horren inguruko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa sustatzeko moduak zehaztu dira.

DATU KUANTITATIBOAK

Guardia- Arabako Errioxako Kuadrillako eta bere Udal bakoitzeko osaera politikoa

Erakundea	Lehendakaria / Alkatea- E / G	Udalbatza/Batzarra: E / G
Kuadrilla	Gizona – EAJ	27 = 9E / 18G (% 33,3 E)
Oyón-Oion	Gizona – EAJ	11 = 4E / 7G (% 36,3 E)
Guardia	Gizona – PP	9 = 2E / 7G (% 22,2 E)
Bastida	Emakumea – EAJ	9= 2E / 7G (% 25 E)
Eltziego	Gizona – Zieko Bai	9 = 1E / 8G (% 11,1 E)
Lapuebla	Emakumea – EAJ	7 = 2E / 5G (% 28,6 E)
Lantziego	Gizona – EAJ	7 = 2E / 5G (% 28,6 E)
Bilar	Gizona – EAJ	7 = 2E / 5G (% 28,6 E)
Mañueta	Gizona – PP	7 = 1E / 6G (% 14,3 E)
Eskuernaga	Gizona – EAJ	7 = 3E / 4G (% 42,9 E)
Moreda	Emakumea – PSE	5 = 3E / 2G (% 60 E)
Iekora	Emakumea – AIZ	7 = 3E / 4G (% 42,9 E)
Samaniego	Gizona – EAJ	7 = 1E / 6G (% 14,3 E)
Navaridas	Gizona – PP	5 = 0E / 5G (% 0 E)
Leza	Emakumea – EAJ	5 = 3E/2G (% 60 E)
Kripan	Gizona – EAJ	5 = 2M / 3H (40% M)
Assa auzoa	Ez dago daturik	
El Campillar auzoa	Ordezkarria (dagoenean) gizona	
Laserna auzoa	Ordezkarria (dagoenean) gizona	
Viñaspre auzoa	Ordezkarria (dagoenean) gizona	
Barriobusto kontzejua	3G, presidentea gizona	
Labraza kontzejua	3G, presidentea gizona	
Paganos kontzejua	3G, presidentea gizona	
Buradon Gatzaga kontzejua	1G/2E, presidentea gizona	

Kuadrillako Lehendakaria gizona da, eta 15 alkateen artean 5 dira emakumeak eta 10 gizonak. Udalbatzen osaera sexuari dagokionez, soilik bi udalerrik dituzte emakume gehiago, Moreda eta Leza udalerrri txikiek, alegia. Eskuernaga, Iekora eta Kripan udalerrietan udalbatza orekatua dago sexuaren arabera. Gainerakoetan gizonetzkoak dira nagusi, Navaridasen kasua bereziki azpimarratu behar delarik, non bost zinegotzietatik ez dagoen ezta emakume bat ere ez.

Biztanleria udalrriaren eta sexuaren arabera

Udalerrria	Guztira	% Emakume	Datu esanguratsuak
Kuadrilla	11.505	% 48,3	
*Oyón-Oion	3.434	% 49,6	Oyón-Oionen 397 lagunek beste nazionalitate bat dute. Horrez gain, nazionalitatea lortu duten 134 migratzaile daude.
Guardia	1.549	% 47,1	
Bastida	1.484	% 48,3	
*Eltziego	1.015	% 49,95	
*Lapuebla de Labarca	861	% 49,01	
*Lantziego	684	% 48,1	
*Bilar	349	% 51,3	20-29 urte bitartekoan emakumeak % 40 dira
Mañueta	318	% 44,3	
Eskuernaga	303	% 49,8	
*Moreda	237	% 50,2	80-89 urte bitartekoan emakumeak % 81 dira
*Iekora	274	% 48,5	30 eta 39 urte bitartekoan emakumeak % 31 dira
Samaniego	245	% 47,3	
*Navaridas	227	% 44,0	
*Leza	197	% 50,7	
*Kripan	178	% 46,6	20 eta 29 urte bitartekoan emakumeak % 32 dira

Iturria: EUSTAT

**Udalak emandako datuak*

Oro har, biztanleria orekatua dago udalrri guztietan sexuari dagokionez. Desbiderapen batzuk daude adinaren arabera, baina udalrri horiek 350 biztanle baino gutxiago dute, eta hortaz ondorioak ateratzea zaila da.

Atzerriko biztanleria, udalrriaren eta sexuaren arabera

Udalerrria	GIZONAK	EMAKUMEAK	% EMAKUMEAK	GUZTIRA
*Oyón-Oion	178	219	55,1	397
Guardia	68	67	49,6	135
Bastida	82	77	48,4	159
*Eltziego	44	34	43,5	82
*Lapuebla de Labarca	39	41	51,25	80
*Lantziego	46	59	56,2	105
*Bilar	16	26	61,9	42
Mañueta	24	17	41,5	41
Eskuernaga	16	22	57,9	38
*Moreda	9	11	55,0	20

*Iekora	22	17	43,6	39
Samaniego	15	10	40,0	25
*Navaridas	27	15	35,7	42
*Leza	12	9	42,8	21
*Kripan	2	2	50,0	4
GUZTIRA	647	587	47,6	1.234

Iturria: IKUSPEGI

**Udalak emandako datuak*

Oro har, atzerriko biztanleria sexuaren arabera orekatua dago Arabako Errioxan. Hala ere, datu batzuk nabarmendu behar dira: Bilarren atzerriko emakumeak migratzaileen % 62 dira; aitzitik, Samaniego eta Navaridasen kasuan, atzerriko emakumeak gutxienak dira migratzaileen artean.

Atzerriko jatorria duen biztanleria udalerrien eta jatorrizko herrialde nagusiaren arabera

Udalerrria	1.	2.	3.
*Oyón-Oion	Maroko	Errumania	Pakistan
Guardia	Maroko	Errumania	Portugal
Bastida	Maroko	Portugal	Peru
*Eltziego	Maroko	Portugal / Errumania	Mali
*Lapuebla	Maroko	Portugal	Errumania
*Lantziego	Portugal	Maroko	Errumania
Bilar	Portugal	Maroko	Errumania
Mañueta	Portugal	Errumania	Maroko
Eskuernaga	Portugal	Maroko	Errumania
*Moreda	Maroko	Argentina	AEB / Errumania
*Iekora	Maroko	Portugal	--
Samaniego	Portugal	Kolonbia	Errumania
*Navaridas	Portugal	Brasil	Maroko
*Leza	Maroko	Portugal	Paraguai
*Kripan	Errumania	Portugal	Brasil

Iturria: IKUSPEGI

**Udalak emandako datua*

Arabako Errioxako Kuadrillan atzerritar gehienak marokoarrak, portugesak eta errumaniarrak dira. Bestalde, Oyón-Oiongo Bizikidetza Planak (2016-2019) dioenez, «nazionalitate batzuetan sexuen arteko banaketa asimetrikoa da. Esate baterako, portugesak eta errumaniar biztanleen artean, feminizazioa ematen dela ikusten dugu; kontrakoa gertatzen da marokoarren artean, gizonezkoen portzentajea handiagoa baita».

Aniztasun horren ondorioz, Kuadrillan bi meskita daude, Oyón - Oionen eta Guardian, hain zuzen.

Teknikariak Arabako Errioxako Kuadrillan sexuaren arabera

Arloa	E / G
Berdintasuna	1 emakume
Genero-indarkeria	1 emakume
Gizarte Zerbitzuak	4 emakume
Prebentzio komunitarioa	1 emakume
Gizarte-inklusioa – IRSE	1 emakume
Euskara	1 emakume
Sustapen ekonomikoa	1 emakume
ADR – Hazi	2 emakume (1 sustapen ekonomikoa da)
Kultura eta kirola	1 gizon
Komunikazioa	1 gizon + 2 emakume
Kirola (Bastida)	1 gizon
Merkataritza	1 gizon
Ingurumena	1 gizon
Arkitektoak	3 gizon
Kuadrillako gerentea + idazkari kontu-hartzailea + kontsumitzailearen bulegoa-OMIC	1 gizon
Udaletako idazkari kontu-hartzaileak	5 gizon + 4 emakume

18 emakumek eta 12 gizonek teknikari gisa lan egiten dute Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillan, hots, % 60 emakumeak dira.

Udal bakoitzeko langileak sexuaren arabera (emakume / gizon)

	Idazk	Admin	Bibliot	Atezain	Peoi	Artxibo	Turismo	Garbiketa	Alguaz
Oion	1	4	1	1	2	1	1	1	1
Laguard	1	4	1		3		3	4	
Labast	2	2	1		2		1	1	
Eltziego	1	2	1		2		1	1	
Lapueb.	1	2	1		1			2	1
Lantziego	1	2	1					1	1
Elvil	1	2	1					1	1
Mañueta	1	1						1	1
Villab	1	1						1	1
Moreda	1	1						1	1
Iekora	1	1						1	1
Saman	1	1						1	1

Navar	1	1						1	1
Leza	1	1						1	1
Kripan	1	2	1		1			1	1

***Udalek emandako datuak**

* Bastidak udal kirol teknikari bat dauka, eta Guardian musika-jardueren koordinatzaile bat dago (biak gizonak).

Udal bakoitzak kontratatutako langileei dagokienez, datuen arabera, garbitzaileen % 100 emakumeak dira. Era berean, administrari gehienak emakumeak dira, gizon bakarra dago eta. Txanponaren beste aldean peoi eta aguazil lanpostuak aurkitzen ditugu, % 100 gizonek okupatzen dituztelarik.

Arabako Errioxako elkarteak

Izena	Arloa	Presidentea E/G
ABRA	Bodegak	Gizona
Akelarrea gurea	Kulturala	Emakumea
Amigos de la Póveda – Lapuebla de Labarca	Ingurugiroaren zaintza (inaktiboa)	Gizona
AMPA Assa ikastola	Hezkuntza	Emakumea
AMPA Bastida Eskola	Hezkuntza	Emakumea
AMPA Bastida Ikastola	Hezkuntza	Emakumea
AMPA El Fabulista	Hezkuntza	Emakumea
AMPA La Giralda	Hezkuntza	Emakumea
AMPA Lantziego Ikastola	Hezkuntza	Emakumea
AMPA San Bizente	Hezkuntza	Emakumea
AMPA Víctor Tapia	Hezkuntza	Emakumea
AMPA Virgen de la Plaza	Hezkuntza	Gizona
Asociación de Cazadores - Lantziego	Ehiza	Gizona
Asociación de Cazadores San Bartolomé - Lapuebla	Ehiza	Gizona
Asociación de comerciantes de Guardia	Merkataritza	Emakumea
Asociación de Jubilados/as de Eltziego	Kulturala	Emakumea
Asociación de Jubilados/as Bilar	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as Kripan	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as de Bastida	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as de Guardia	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as -Lantziego	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as Moreda	Kulturala	Gizona
Asociación de Jubilados/as Oyón-Oion	Kulturala	Emakumea

Asociación de Jubilados/as San Bartolomé Lapuebla	Kulturala	Emakumea
Asociación de Jubilados/as de Iekora	Kulturala	Gizona
Asociación Juvenil de Moreda	Jaiak eta tabernaren kudeaketa	Emakumea
Asociación Marroquí - Lantziego	Kulturala	Gizona
Asociación Sorgintxulo - Bilar	Gazteak	Emakumea
Asociación «Quema de los Judas» - Moreda	Jaiak eta kulturala	Emakumea
Banda de Música de Eltziego	Musika	Gizona
Banda de Música de Lantziego	Kultura	Gizona
Barbacana	Aisialdia	Emakumea
Bitartean Jolasean	Interkulturala	Emakumea
Cofradía San Isidro - Bilar	Erligioso	Emakumea
Cruz Roja	Soziala	Emakumea
Gautxori - Lapuebla	Kulturala	Emakumea
Grupo de Dantzas - Lantziego	Kulturala	Emakumea
Ipar Haizea - Kripan	Gazteak	Emakumea
Kasikojolabubilla - Lantziego	Gazteak	Emakumea
Landalan	Gazteak	Emakumea
Lucerna	Kirola	Gizona
Mahastiak	Kirola	Gizona
Mahatsondo - Lantziego	Kirola	Gizona
Murriarte- Samaniego	Kulturala	Emakumea
Oiongo gazteak	Gazteak	Emakumea
Hemendik Harantz	Errefuxiatuak	
Oyonesa	Kirola	Gizona
Palomares Mendi Taldea - Lantziego	Kirola	Gizona
Peña San Bartolomé - Lapuebla	Kulturala	Emakumea
Ttiki-Ttaka	Euskalgintza	Gizona
Txandrio Bertsozale Elkartea	Bertsolaritza	Gizona
Xirmendu	Kulturala	Emakumea

Kuadrillako eta udalerrietako elkarte egitura oso zabala da (izan liteke zerrendan hainbat erakunde ez agertzea); alabaina, oro har elkarte gehienak ez dira oso aktiboak, eta ez dago koordinazio egiturarik beraien artean. Kultur elkarte batzuek berdintasunerako jarduerak antolatzen dituzte.

Emakumeen Elkartek

UDALERRIA	IZENA	Xehetasunak eta ezaugarriak
Oyón-Oion	San Prudencio	Elkarte aktiboa: astean behin biltzen dira beraiek antolaturiko bilkura edo jardueretan, esate baterako, gurutze-

		puntua, kakorrazt-lana, margolanak... Era berean, M8 eta A25 kanpainetan jarduerak antolatzeke mobilizatzen dira eta udalerrian beste elkarte batzuekin antolatutako ekimen batzuetan parte hartzen dute ere.
Guardia	Las Murallas	Ez dira aktiboak
Bastida	Peña Toloño	2017. urtean diru-laguntza eskatu zuten eta hainbat jarduera garatu ahal izan ziren, baina elkartearen aldetik emandako bultzada eta parte-hartzea eskasa izan zen.
Lapuebla de Labarca	Las Barandillas	Elkarte aktiboa: astean behin biltzen dira beraiek antolaturiko bilkura edo jardueretan, esate baterako, gurutze-puntua, kakorrazt-lana, margolanak... Era berean, M8 eta A25 kanpainetan jarduerak antolatzeke mobilizatzen dira eta udalerrian beste elkarte batzuekin antolatutako ekimen batzuetan parte hartzen dute ere.
Lantziego	Eulate	2017. urtean diru-laguntza eskatu zuten eta hainbat jarduera garatu ahal izan ziren, baina elkartearen aldetik emandako bultzada eta parte-hartzea eskasa izan zen.
Bilar	Los Husos	Elkarte ez-aktiboa, nahiz eta herriko ludoteka finantzatzeko diru-laguntza kudeatzen duten.
Mañueta	Emakumeen Elkarte	Ez dira aktiboak

7 emakume elkarte daude, eta horietako 4k jarduera espezifikoak garatzen dituzte; Lapuebla de Labarcako Las Barandillas Elkarte da aktiboena.

Arabako Errioxako ikastetxeak

Izena	Zikloak	Zuzendaria E/G	Hezkidetzar arloan BAI/EZ, E/G
Lapuebla de Labarcako Assa Ikastola (itunpekoa, D)	HH + LH + DBH + BATX	Emakumea	BAI- Emak
Bastida Eskola (publikoa, Btik Dra eraldatzen)	HH + LH	Gizona	BAI - Emak

Bastida Ikastola (itunpekoa, D)	HH + LH + DBHko 1. eta 2. (Asa Ikastolako gela)	Gizona	BAI - Gizona
Oiongo Ramiro de Maeztu Eskola (publikoa, Btik Dra eraldatzen)	HH + LH + DBHko 1. eta 2. (Samaniegoko gela)	Emakumea	BAI - Emak
Guardiako Víctor Tapia Eskola (publikoa, A eta B)	HH + LH	Gizona	EZ
Eltziego Eskola (publikoa, B)	HH + LH	Emakumea	BAI - Emak
Guardiako Samaniego Institutua (publikoa A eta B)	DBH + BATX	Emakumea	EZ
Lantziego Ikastola (publikoa, D)	HH + LH	Emakumea	EZ
Oiongo San Bizente Ikastola (itunpekoa, D)	HH + LH + DBH	Gizona	BAI - Emak
Oiongo Gaztelekua		2 emakume	
Mintzalagun		1 gizon	

Ikastetxe batzuek hezkidetzaren arloa dute. Oyón-Oiongo San Bizente Ikastolak berdintasunaren alorrean lanik handiena egin duen ikastetxea da eta emaitza onak lortu dituzte, eta gainerako ikastola eta ikastetxeentzako erreferente gisa hartzen da.

Horrez gain, haur-eskolak daude Oyón-Oionen, Guardian, Bastidan, Eltziegon eta Samaniegon.

Enplegua

Udalerrria	Lan eskatzaile diren emakumeen %-a	Adin ohikoena*	Emakume % egindako kontratuetan	Adin ohikoena*
Oyón-Oion	% 55	30- 44	% 20	30 - 44
Guardia	% 58	> 45	% 41	30 - 44
Bastida	% 52	> 45	% 39	30- 44
Eltziego	% 55	30 - 44	% 36	30 - 44
Lapuebla...	% 55	> 45	% 14	30 - 44
Lantziego	% 63	30 - 44	% 6	30 - 44
Bilar	% 69	> 30	% 11	30 - 44
Mañueta	% 83	> 45	% 13	30 - 44
Villabuena	% 56	> 45	% 19	30 - 44
Moreda	% 33	> 45	% 7	30 - 44
Iekora	% 50	30 - 44	% 42	30 - 44
Samaniego	% 0 (2 gizon soilik)	-	% 32	> 45

Navaridas	% 67	30 - 44	% 4	30 - 44
Leza	% 50	> 30	% 5	30 - 44
Kripan	% 80	> 45	% 24	> 45

Iturria: Lanbide. 2017ko datuak.

*** Lanbidek ez du adinaren datua sexuaren arabera bereizten**

Lanbidek 2017an jasotako enpleguaren datuak oso gogorak eta esanguratsuak dira emakumeen egoerari dagokionez. Moredan izan ezik, gainerako udalerrietan enplegua bilatzen dauden pertsona gehienak emakumeak dira. Eta udalerrri guztietan 2017an egindako kontratu gehienak gizonentzako izan dira. Laburbilduz, Arabako Errioxan bizi diren emakumeek gizonak baino zailtasun gehiago dituzte lana bilatzerakoan eta, beraz, beren autonomia ekonomikoa ahulagoa da.

Osasuna

Oyón - Oionen eta Bastidan osasun-zentroak daude eta gainerako udalerrietan kontsultategi bat dago, baina ez dute EAZ-Emakumeen Arretarako Zentrorik. Herri txikietan arreta medikoa ibiltaria da, hau da, Kontsultategiko ordutegia egoera horren arabera antolatzen da.

Bake Epaitegia

15 Udalek bake epaile bat dute, eta ia erdia emakumeak dira, zehazki, 7 emakume.

Kirol instalazioak

Kanpoko igerileku publikoak daude Kuadrillako herri guztietan, kontzejuetan, Samaniego eta Moredan izan ezik. Bestalde, eta Buradon Gatzagako kontzejuaren salbuespenarekin, herri guztiek frontoia dute eta, kasu batzuetan, instalazioak horniturik daude, hau da, beste kirol batzuk praktikatu daitezke bertan. Mañuetak eta Eltziegok gimnasioa daukate eta Bastidak eta Oyón - Oionek kiroldegia dute.

Euskara

Nabarmendu behar da euskaltegiak sexuaren arabera bereizten dituela datuak. Hortaz, datuak biltzea erraza izan da: 11 gizonak eta 53 emakumek (% 83) Mintzalagun programan parte hartu zuten 2017an; eta 2017/2018 ikasturtean 123 emakume (% 67) zeuden ikasten, 61 gizonekin batera.

DATU KUALITATIBOAK

Datu kuantitatiboak alderatzeko eta azterketa sakonagoa egin ahal izateko, hainbat eztabaida talde eta elkarrizketa sakon gauzatu ziren Arabako Errioxako eragile garrantzitsuenekin.

Eztabaida-taldeak / Elkarrizketa sakonak

Ondoren, elkarrizketa sakonetan zein eztabaida taldeetan landutako edukiak eta ateratako balorazioak jasotzen dira:

Eztabaida taldeak politikariek

Hiru eztabaida talde egin ziren Kuadrillako egoitzan udalerrietako politikariek, eta 15 udaletatik, 13 udaletako eta 2 kontzejutako ordezkariak parte hartu zuten. Guztira 6 emakume eta 8 gizon. Berdintasun-politiken inguruko politikarien hasierako konpromisoa ezagutzeko, dinamika bat erabili zen: politikari bakoitzak tamaina berean eta modu berdinean tolestutako eta ebakitako paper batean luma urdinarekin hiru aukera hauetako bat idatzi behar zuen: *Plana ezinbestekoa da / Plana egin behar da tokatzen delako / Ez du zentzurik plan bat egitea*. Lortutako erantzunak literalki honako hauek izan ziren (denak gaztelaniaz, dinamika hizkuntza honetan egin zelako):

- *Igualdad, sí, siempre. Necesario sí, para corregir «hábitos» o «costumbres». Buena voluntad /* Berdintasuna bai, beti. Beharrezkoa, bai, «ohiturak» zuzentzeko. Borondate ona.
- *Hay que hacer un Plan por ser algo necesario y fundamental. /* Plana egin behar da, funtsezkoa eta beharrezkoa delako.
- *Sí, porque aún y por desgracia se dan casos de machismo y desigualdad de género. /* Bai, zoritxarrez oraindik gertatzen direlako matxismoa eta genero-desberdintasuna.
- *Sí, es necesario un Plan de Igualdad. /* Bai, nahitaezkoa da berdintasun-plana izatea.
- *Sí, es necesario. /* Bai, beharrezkoa da.
- *Sí, estoy a favor de crear este estudio o Plan. /* Bai, plana edo azterketa egitearen alde nago.
- *Sí, es necesario. /* Bai, beharrezkoa da.
- *Sí. Muy necesario. Muy preocupante la desigualdad. /* Bai, oso beharrezkoa. Desberdintasuna oso kezagarria da.
- *Comprometido 100%. /* % 100ean konprometituta.
- *Válido y totalmente necesario. /* Baliagarria eta ezinbestekoa.
- *Las instituciones debemos dar ejemplo en igualdad. /* Erakundeok berdintasunaren eredu izan behar dugu.
- *Muy importante hacer. /* Oso garrantzitsua da egitea.
- *Imprescindible hacerlo. /* Ezinbestekoa da egitea.
- *Creo que está bien que se realicen este tipo de iniciativas. /* Halako ekimenak ondo daudelakoan nago.
- *Creo que es algo que hay que hacer no sólo por el cargo que tengo sino porque hay que dar a conocer muchas cosas que no conocemos y actuar en el ámbito que nos toca. /* Egin beharrezkoa da, ez

karguagatik soilik, baizik eta ezagutzen ez ditugun gauzak ezagutu eta dagokigun esparruan jardun behar dugulako.

Gobernantzari dagokionez:

Politikariekin egindako eztabaida-talde guztiak berdintasunerako diagnostikoa eta Plana egiteko abian jarritako prozesu parte-hartzailearen arduradunetako batek egindako aurkezpenarekin hasi dira. Ondoren, AZ Partaidetzak (prozesuaren enpresa arduraduna) prozesu parte-hartzailearen faseak azaldu eta erabili beharreko tekniketako bat idazkari kontu-hartzaile guztiei elkarrizketa bat egitea izango dela adierazten denean, argi geratzen da idazkari guztiek ez direla proaktiboak modu berean, eta parte hartzeko prest ez direla egongo batzuk; oro har, talde batek baino gehiagok transmititzen du berdintasunaren gaia landu nahi ez duten pertsonak *'identifikatuta'* dituztela. Hala eta guztiz ere, eztabaida-taldeetan, konpromiso politikoa nabarmentzen da parte hartze handia dagoelako politikarien aldetik. (udal guztiek hartu dute parte prozesu honetan).

Taldeak dinamizatzen hasterakoan, AZk gobernantzaren inguruko eztabaida irekitzen du, eta udalbatzen osaerak aztertzen dira. Ordezkaritza politikoari buruz hitz egitean, badirudi zenbait udaletan presentzia nahiko orekatua dela emakumeen eta gizonen artean, baina kasu gehienetan gizonezkoak dira nagusi. Izan ere, demokrazian lehen aldiz sartu dira emakumeak udal batzuetan. Kasu horietako baten ordezkariak dio: *«Orain emakumeak daudela, beraiek gizonok ikusten ez ditugun gauzak nabarmentzen dituztela konturatzen gara; aberasgarria da»*.

Eztabaida taldeetan parte hartzen duten emakume politikariek diote, orokorrean parekotasunaren legea bete behar ez duten udaletan, hau da, udalerrri txikienetan, emakumeak gutxiengoa direla, eta gizonezkoen irudia emakumeenaren gainean dagoela nabarmentzen dute. Zerrenda paritarioak egin behar dituzten udalerriei dagokienez, parte hartu nahi duten emakumeak aurkitzea zein zaila den adierazten dute.

Emakume politikarien arabera, alderdiek emakumeak bilatzen dituzte zerrendak betetzeko, eta ez zerrendako buru gisa jartzeko, —inork nahi ez duelakoan—, eta hori akats larria dela komentatzen dute. Hala ere, emakumeak bilatzeko ahalegina baloratzen da, batez ere parekotasuna nahitaezkoa ez den herrietan. Gizonezko politikari batzuek uste dute emakumeek zailagoa izaten dutela, izan ere, haur txikiak badituzte konplikatua izan ohi da, gizonezkoekin gertatzen ez den zerbait, alegia; hau da, haurrak izateak ez diete hainbeste eragiten gizonari, izan ere, errealitatean emakumeen lana izaten jarraitzen baitu zaintzak. Lana eragozpen bat izan daiteke, baina *«alda dezakezu, egokitu; aitzitik, zaintzeari ezin diozu utzi»*.

Emakume parte-hartzaile askok legegintzaldi honen aparteko egoera aipatzen dute: *«gaur egun egoera pribilegiatuan gaude, nahiz eta hori aitortzeak lotsa ematen didan; eskualdean bost emakume gara alkate, baina kasualitatea izan da, orain arte ez da inoiz gertatu»*. Udalerrri txiki batzuetako emakumezko politikari batzuek uste dute udalerrietan presio soziala dagoela ordezkari guztiak gizonezkoak izan daitezen. *«Begiratzen baduzu emakumerik ez duten zerrenda asko daude, posible da batzuetan emakumeek nahi ez izatea, baina ez da asko egiten haiek animatzeko. Emakumeak gehiago sustatu behar direla uste dut. Zerrenda osatzeko emakumeak bilatzeaz ez dira*

ardurutzen, ezta zerrenda buru jartzeko ere, esan ohi dute: «bat jarri dezagun. Emakume bat jarri behar dugu, ez dezatela esan ez dagoela ezta bat ere ez». Inpresio hori daukat, eta begira Arabako Errioxan gaur egun emakume asko daudela. Baina ez da normala».

Era berean, mota honetako iritziak transmititzen dira: *«gure argazki politikoa patetikoa da, guztiak gizonak, emakume bakarra izan ezik»*. Horregatik, kasu guztietan kremlera zerrendak derrigorrezkoak izan beharko luketen ideia jasotzen da.

Kontzejuei dagokienez, herri horietan hauteskundeak irekiak dira, hau da, guztiek hautatuak izateko eskubidea dute, ez dago hautagaitzarik. Leku batzuetan hauteskundeen aurretik Kontzejuko partaide nor izan nahiko lukeen jakiteko biltzen diren arren, hori ez da ohikoena. Batzuetan, boto gehien lortu duen pertsonak ez badu kargua nahi, hurrengoari delegatu ohi dio. Alabaina, emakumeek Arabako Errioxako kontzejuetan gutxienak izaten jarraitzen dute, ez baita ohikoa hautatuak izatea.

Ez da ohikoa izaten, halaber, emakumeek bileretan parte hartzea; tradizioak eragina du, zerbait aurreratu dela dirudien arren. Antzeko zerbait gertatzen da 250 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, non zerrenda irekietan bozkatzeko den, alderdi ezberdinetako 4 pertsonari bozkatzeko aukera dagoelarik.

Izan ere, badirudi Udalaren afera gizonezkoei lotzen zaiola oraindik, *«beti horrela izan den kultura jakin bat dago»*, dio politikari batek. Hautatutako emakume gutxik askotan entzuten dute: *«Nola animatu zara?»*. Eta zera erantzuten dute: *«gizonezkoek denbora gehiago izaten dute, gu oso lanpetuta gaude, baina ez badugu aurrera egiten ... urte osoan zehar lan egin behar dugu baina... zure denbora propioa hartu behar duzu eta jende asko ez dago prest hori egiteko. Denbora atera behar duzu, antolatzea besterik ez da»*.

Izan ere, ez dago berdintasun-arlorik ezta udal bakar batean ere. Kultura, obrak, errepideak, ogasuna, diruzaintza eta kontuak, nekazaritza, kirolak, euskara eta, zenbait tokitan, gizarte-ongizatea badago. Badirudi *«garrantzitsuak»* horiek direla, baina berdintasuna ez. *«...berdintasun-zinegotzigo bat egon beharko luke, alderdi hori estalita egotearen ardura hartuko duen pertsona bat egoteko»*: Ondorioz, berdintasunerako egiturak sortzearen garrantzia aipatzen da. Berdintasunerako zinegotzigoaren sorrerarekin bat etorritik, berdintasun-politiken jarraipena egiteko batzorde politikoa sortzeko beharra baloratzen da, Planaren eta tokian tokiko eta udal mailan burututako ekintzen segimendua egiteko, hain zuzen ere.

Osoko bilkuren eta bileren funtzionamenduari dagokionez, udalerrri txikienek ez dute batzorderik egiten, zuzenean osoko bilkuran eztabaidatzen dituzte gaiak. Eta horrek politikaren barruan ematen den kontziliazioari buruz hitz egiteko aukera ematen du. Udal batzuetan, osoko bilkurak pertsona guztien beharrak kontuan hartuta antolatzen dituzte, adostasunak hartuz. Zenbait kasutan ere idazkariaren kontziliazioa errespetatuz antolatzen dira.

Hala eta guztiz ere, askotan, *«landa-eremuko ordutegiaren arabera deitzen dira bilerak, zaintza lana ez da kontuan hartzen, beraz, goizez edo arratsaldez egingo dira. Euria ari badu, orduan ez du axola,*

edozein ordutan bildu gaitzke, landa-eremuan ezin delako lanik egin. Joan zaitez euria ari duen egunen batean aholkularitza zerbitzura, lepo egongo da».

Gobernantzarekin jarraituz, Udal langileen inguruko eztabaida sortzen da taldeetan. Emakumeek garbiketa, liburutegi eta administrazioko lanpostuak dituzte; aguazila, idazkaritza eta hirigintza-arloko lanpostuak, berriz, normalean gizonok okupatzen dituzte. Horrekin batera, eztabaida-taldeetan behin eta berriro kulturala zer den eta zer ez den eztabaidatzen da.

Horrela, kontratazioari buruz hitz egiten denean nabarmentzen da emakumeek lanpostu jakin batzuk ez dituztela aukeratzen, ez direla ezta aurkezten ere ez prozesuetara. Izan ere, udalerrri batzuk Lanbideren laguntzaz baliatzen dira, 55 urte baino gehiagoko emakumearen profila markatzen dutenak, eta diru-laguntza lortzea zaila dela diote eztabaida-taldeetan, kultura eta genero-estereotipoen eraginagatik, alegia. Udalerrri batzuek ahalegina egiten dute baina diru laguntzarik gabe gelditzen dira lan-poltsara emakumerik aurkezten ez delako.

Batzuen ustetan, landa-eremuan generoaren arabera bereizitako rolak biziki errotuta daude hiriekin alderatuz. Baita esaten dute hirietan rolak gehiago lausotu egiten direla, baina desberdinkeria berdina dela. Orokorrean, lanbideak oso maskulinizatuak edo feminizatutak ikusten dituzte eta rolak haustea zaila da. Oraindik ere emakumeek etxean lan egin behar izaten dute, eta ideia hori errotuta dago gizartean. Batez ere, eztabaida-taldean dauden emakumeek uste dute mentalitateak eta ereduak ez direla denboran zehar hainbeste aldatu.

Genero-estereotipoekin eta klixerekin jarraituz, adibide bat ateratzen da eztabaida talde batean: *«Udaletxeko biltegian bi bainugela daude eta biak gizonezkoak dira. Emakume bat hor hasten bada lanean, ez da eroso sentituko lan ingurune horretan. Haurrei erreferenteak ematen ez badizkiegu, brigadetan beti gizonak izango direla ikasiko dute».* Ondorioz, emakumeak ez dira aurkezten lan poltsa horietara, beraz, Lanbideren laguntzari esker, emakumezko erreferenteak sartzan saiatzen laguntzen zaie udalei.

Era berean, hainbat politikarik, batez ere gizonen, administrazioan desberdinkeria gaindituta dagoen ideia transmititzen dute. *«Lehiaketa librea da eta meritu sistemak desberdintasunak saihesten ditu; gehien dakienak lanpostua lortuko du».* Hori dela eta, zenbait politikarik alderdi horietan eragina izateko gaitasun mugatua dutela uste dute: *«Administrazio Publikoan ez dago diskriminaziorik oposaketaren bidez lortzen bada lana».*

Horrek iradokitzen du prestakuntzarik eza dagoela, diskriminazio positiboa edo, hobeto esanda, ekintza positiboen estrategia Legeak babesturiko formula bat bada ere. Izan ere, Lanbideren neurriak «ekintza positiboak» dira, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, politikari gehienek uste dute arazoa ez dela gainditu, eta, horren isla dela, hain zuzen, diagnostiko hau egiten ibiltzea. *«Haurren zama, medikuarenera joatea, eskolaz kanpoko ekintzetara umeak eramatea,... emakumearen lana da oraindik kasu gehienetan».*

Ardatzei dagokienez:

Kirola:

Futboleant, eskubaloian eta pilotan emakumeak daudela eta talde edo klubent esku dagoen aspektu bat dela adierazten dute. Baina aitortzen da mutilek ia-ia futboleant soilik jokatzen dutela eta neskek edozein kirol praktikatzea zailagoa dela. Udalerrri batzuetan beraien parte hartzea bultzatu egin da, saskibaloia, atletismoa, igeriketa sustatuz. Izan ere, neskek kirola oso gazte direnean uzten dute. Genero-estereotipoen eta erreferentziarik ezaren ondorio zuzena da hori. Horregatik ematen da honako binomioa hau: mutilak futbola / neskek dantza.

Festak:

Udalerrri gehienetan udalek elkarrekin batera antolatzen dituzte herriko jaiak. Udal batzuetan azpimarratzen dute emakumeak duela gutxi hasi zirela parte hartzen antolakuntzan, eta oraindik gutxiengoaren diren arren, pixkanaka-pixkanaka animatzen hasi direla. Nabarmentzen dute azken urteetan emakumeak eta gizonezkoak ekintza baten inguruan mugitzen direla gehien bat dastaketak daudenean.

Aitzitik, bigarren eztabaida-taldean uste dute jai batzordeetan emakumezkoen parte-hartzea gehiengoaren dela eta antolakuntzaren arduradunak beraien direla funtsean. Udal batzuek musika eta jai programaren edukia kontuan izaten dute, baina gehienek ez dute xehetasun batzuen inguruan hausnarketarik egin, esaterako, dantzaldietan eta ikuskizunetan emakumeak gauzatzen erabiltzea; fanfarren letrak, DJak, etab.

Orkestrak, bigantxak, haurrentzako jarduerak, etab. aukeratzeari buruz eztabaida sortzen da taldeetan eta emakumea objektu gisa erabiltzearen inguruko hausnarketa egiten da. Nahiz eta kasu batzuetan pentsatzen duten mutilek nesken antzera erakusten dutela beraien gorputza, pertzepzio nagusia da dantzariak normalean neskek izaten direla, eta eskaintza musikalean ia beti gizonezko taldeak agertzen direla emakume gutxi izaten baitira musika talde horien artean.

Jai giroan euskara ikusgarri egiteko gauzatutako ahaleginaz jabetzen dira, baina ez dute genero-ikuspegiarekin eskaintza sustatu orain arte. Izan ere, hasiera batean emakumezkoak objektu eta irudi gisa erabiltzearen arazoa gaituta dagoela esaten badute ere, apur bat pentsatu ondoren, adierazpen hori zalantzan jartzen dute: «*Nik uste dut ez gaituta konturatzen oso naturalizatua dagoelako*»

Gizarte-inklusioa:

Udal guztiek adingabekoen eta genero-indarkeriaren arloa finantzatzen dute. Oso garrantzitsua dela uste dute. Bestalde, ikusten diren adikzioei buruz hitz egiten dute, alkoholismoa eta drogak, funtsean. Oro har, sententzioa da gizonezkoak direla alkohol gehiago kontsumitzen dutenak edo, gutxienez, kantitate handietan kontsumitzen dutenak; eta nahiz eta lehen emakumeek ez zuten

«poteatzen», eta tabernetan gizonezkoak gehienak badira ere, emakumeak espazio hori ere okupatuz joan dira pixkanaka. Eskualdeko errealitatea ezagutu beharra dago, drogak oso presente daudela uste dute askok eta ludopatia bezalako mendekotasunak nabarmenak omen dira.

Enplegua:

Enpleguaren gaiaren inguruan eztabaidatzen den taldeetan, parte-hartzaileek ohartarazten dute eskualdean nagusi den nekazaritza munduan ia ez dagoela emakumerik, *«gainera, ez dugu gustuko»*. Orain ez dute ia emakumerik ikusten eremu horretan, ez behintzat duela urte batzuk bezala, orduan gizonei «lagundu» egiten baitzieten. Izan ere, emakumeek gaur egun upategien munduko enpresetan lan egitera jo dute, eta kasu gehienetan, bertako bulegoetan aritzen dira. Beti daude salbuespenak, hala nola Eskuernaga, non 4 emakumeek zuzentzen duten ustiapenaren jabe diren, baina gainerako parte-hartzaileek azpimarratzen dute hori ez dela ohikoa.

Arabako Errioxako ekonomia-egitura oso mugatua da. Nekazaritza munduarekin loturiko upeltegiz gain, ez dago industria askorik. Nolanahi ere, nabarmendu behar ditugu hotelak eta nekazaritza-turismoa, merkataritza eta osasun sektorea, hau da, Leza ospitalea, geriatrikoak eta etxez etxeko laguntza. Emakumeen presentzia oso altua da sektore horietan, izan ere zaintza-lanekin zerikusia dute, tradizioz emakumeek burututako lanekin, hain zuzen ere.

Edonola ere, ia aho batez ondorioztatzen da adina kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat dela, zeren, 45 urte baino gehiagoko adin tartean, etxeoandreen portzentajea oso altua da. Hori ez da hain nabarmen belaunaldi gazteagoetan; neskek ordaindu gabeko lana egiten jarraitzen badute ere, landa-eremuarekin zerikusirik ez duten sektoreetan lan egiten dute ere bai.

Oro har, landa-eremu horretan lanean diharduten gehienak lurra jabetzan dituzten mutilak dira. Ordea, beste batzuen lurretan lan egitea ez zaie interesatzen bertako gizon gazteei, lan hori baldintza prekarioetan egiten delako. Izan ere, nekazaritza lana azpikontrataturako lan bat da; lehen ez bezala, nekazaritza lan egiten duten jatorrizko gizon gutxi daude gaur egun, eta oraindik soilik lan horretara dedikatzen diren nekazariak dauden arren, horietako gehienak aldi berean beste lanpostu bat dute ekonomikoki bizi irauteko.

Gai horri aurre egitean, sasoikako langileei buruz hitz egitea ezinbestekoa eta nahitaezkoa da. Sasoirako kontraturako langile gehienak gizonezkoak dira. Udalerrri batzuetan senegaldarrak nabarmentzen dira, eskualdean gehienak Magrebtarrak badira ere. Hain urrutitik datozenez, normalean ez dira senideekin etortzen orain arte gertatzen zen bezala. Duela urte batzuk arte, sasoikako langileak Espainiatik eta Portugaldik zetozen, eta familia beraiekin etorri ohi zen. Langile-taldeak eraldatuz joan dira urteetan zehar. *«Hasieran ijitoak etortzen ziren, gero portugaldarrak, eta orain afrikarrak»*.

Beraien esanetan, sasoikako langile atzerritarrak kontratatzen dituzte, herrietako eta inguruetakoa jendea epe motzetarako lan egiteko prest ez dagoelako. *«Denbora mugatu baterako behar dituzu langileak eta ezin duzu ezta aukeratu ere; gainera mafiekin etortzen dira eta beren herrialdeetan nahi*

ez dutena bidaltzen dute. Beraz, eskerrak emakumerik ez dagoenik, ez baitziren ondo tratatuak izango».

Sasoikako langileen kopuruak udalerrri batzuetako biztanleriaren datuak indargabetu egin ditu, beraz, zenbait udalerrrik behin-behineko erroldan inskribatuta zeuden eta denbora luzez itzuli ez diren pertsonak baztertu egiten dituzten noizbehinka. Egokiena erroldatutako eta benetan bizi diren pertsonen datuak ezagutzea izango litzatekeela helarazten dute, bi zerrendek ez datozelako bat. Mañueta udalerrria adibide gisa jartzen dute: 300 pertsona dituzte erregistratuta, baina 200 bakarrik bizi dira. *«Horrez gain, asteburuetan etortzen diren pertsonak daude eta herriari bizia ematen diote».*

Garraioa eta mugikortasuna:

Arabako Errioxan auto pribatua izatea ezinbestekoa da. *«Autobusak daude, baina goizeko zazpietan, hamaiketan... eta gainera, Arabako Errioxa osoa zeharkatu beharra dago Guardiara iristeko. Ordutegiek ez datoz bat pertsonen beharrizanekin. Guardian autobus gehiago dago, baina gainerako herrietan ez dute ia».*

Eskualdeko enpresek ez dute autobus zerbitzu propiorik langileen mugikortasuna errazteko asmoz. *«Beno, badago bat, baina Casablancako poligonoan dagoen enpresa bat da, Logroñon dago eta bere langileak hangoak dira ere».*

Ikastetxeetan AFAk eskainitako autobus zerbitzua dago eta itunpeko ikastolek kontratatu egiten dute zerbitzua. *«Gertatzen dena da ibilbideak oso luzeak direla, bost autobus linea daude. Baina hemendik aurrera, bi urteko umeek ezin izango dute autobusez joan, beraz, kontziliazioa zailagoa izango da».*

«Deskonexio ilogiko bat dago; bi lagun herri berera badoaz baina helburu desberdinekin ezin dute autobus berean joan, bata ikastetxera badoa eta bestea futbolera ezin dute autobusa partekatu. Baliabideak ez dira aprobetxatzen.

Haurrak eskolaz kanpoko ekintzetara eramateko mugitu behar badira, are beharrezkoagoa da auto pribatua. *«Amak dira normalean gidari, baina jakina, salbuespenak daude».* Irudi nagusia da normalean amak direla gidariak.

Irisgarritasuna:

Herrietako irisgarritasunari dagokionez, nabarmentzekoa da eraikin publikoak nahiko helezinak direla. Zenbait udalerritan igogailu bat jarri dute duela gutxi, nahiz eta batzuetan konektatzen ez direla onartzen duten, eta beste udal batzuetan gurgil-aulki edo haur-kotxearekin sarbidea ezinezkoa da. Arrazoibide nagusia gastuak aurrezteak da. Errealitate hori eztabaida-talde batzuetan azaltzen denean, politikariek beraiek aitortzen dute herritarren eskubidea dela eta irtenbide bat

bilatu behar dela. Beste udalak, aldiz, egokituak daude, baita zerbitzu publikoak ere, besteak beste, Kultur Etxeak. Oro har, biztanle gutxiagoko herrietan espaloirik ez dagoela azpimarratzen da.

Indarkeria:

Orokorrean, desberdintasunei buruz kontzientziazteko borondate politikoa funtsezkotzat hartzen dute, indarkeria matxista ikusezina eta bigarren kategorian jartzen den gaia delako, batik bat.

Desberdinkeria arintzearen alde lan egiteko behararekin lotuta, indarkeria matxistaren muturreko adierazpen gisa agertzen da desberdinkeria hori bera. Landa-eremuetan indarkeria matxista oso ezkutatuta dagoela uste dute, oraindik ere lotsa da nagusi eta jokabide batzuk ez dira bortxatzat hartzen. Beharrezkoa da informazio gehiago ematea eta gaiaren inguruan kontzientziaztea indarkeria desagerrarazteko.

Eztabaida taldea Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin

Kuadrillako gizarte-langile guztiek parte hartu dute talde honetan:

- Kuadrillako indarkeria matxista eta familiako gizarte-langilea.
- Moreda, lekora, Oyón-Oion eta Lantziegoko gizarte-langilea.
- Lapuebla de Labarca, Kripan, Bilar eta Oyón-Oiongo gizarte-langilea.
- Inklusio sozialeko gizarte-langilea (IRSE)
- Bastida, Mañueta eta Eltziegoko gizarte-langilea.
- Navaridas, Leza, Samaniego eta Guardiako gizarte-langilea
- Kuadrillako Prebentzio Komunitarioko teknikaria

Taldeak berdintasunaren eta desberdinkeriaren egoeraren ebaluazio orokorra egiten hasten da, eskualde mailan izandako esperientzia profesionala kontuan hartuta, kasu batzuetan urte askotakoa delarik.

Guztiek uste dute berdintasunaren alorrean egin beharreko lana handia dela, ez bakarrik tokiko biztanleriarekin, baizik eta etorkinekin ere; herritarrak gehien bat udalerrri handietan biltzen badira ere, udalerrri txikietan ere lan asko dago egiteke. Gizarte-langileek aitortzen dute gaur egun modu ez programatu batean dihardutela lanean eta bakoitzak duen berdintasunaren ideia propioarekin funtzionatzen dutela esaten dute.

Horregatik, detektatzen den lehen beharra da plangintza eta prestakuntza espezifiko behar dutela. Uste dute aurrerapen handia egon dela, baina oraindik ere bide luzea dagoela aurretik. Prebentzioko teknikariak Gurasoen Elkarteeekin egindako lana, eta oro har, inklusio sozialaren arlotik burututako lana oso ondo baloratzen dute. Era berean, berdintasun-teknikariaren papera eta irudia balioesten dute.

Migratzaileei dagokienez, emakumeek etxetik atera eta antolatzen dituzten ikastaroetara joan daitezten ahalegina egiten dute. Aurre egin behar dieten zailtasun batzuk azaltzen dituzte gizarte-langileek. Esate baterako, gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak daude gaztelania ikasteko, baina kasuren batean gizonezko batek emakumezkoen taldera joan behar badu, emakumeek parte-hartzaile izateari uzten diote, hau da, gizon bat klasera iristen den unetik, emakumeek hitz egiteari uzten diote, ez dute ezta beloa kentzen ere ez, emakumeak soilik daudenean kentzen duten arren. «*Hori dela eta, biztanleria berriarekin esfortzu handiagoa egin behar dugu*». EPA edo Nagusientzako Hezkuntzaren kasuan antzekoa da, gizon bat sartzan bada, emakumeak ez dira gehiago joaten.

Egoera antzekoa da jatorrizko gizon erretiratuekin. Orain emakumeak daude batzordeetan eta horrek lan egiteko modua aldatu egin du. Hori berdintasunaren aldeko aurrerapen handia izan den arren, beirazko sabaia dago, eta oraindik emakumeek ez dituzte erantzukizuneko postuak nahi. Ijitoekin ere lan egin beharra dago; aurrerapen handiak nabaritu dira, hala ere. «*Adibidez, ijito gazteek urratsak eman dituzte, orain bereizten diren bikoteak daude..., duela gutxi arte pentsaezinak ziren egoerak ikus daitezke*».

Era berean, institutuetan ematen diren ahozko mezuen inguruan kezka erakusten dute gizarte-langileek, baita sumisiozko edo maitasun erromantikoaren ondorioz ematen diren zenbait jokaera neskek normalizatzeko kezkarri iruditzen zaie ere. «*Eta 14, 15 eta 16 urte bitarteko gazteak dira*». Hori dela eta, nahiz eta aurrera egin den, desberdinkeria handia dago oraindik ere.

Pertsona mendekoen zaintzari dagokionez argi eta garbi ikusten dute: zaintzaile guztiak emakumeak dira. Eta gauza bera ikusten dute adingabeen zaintzarekin, «*aitek lan egiten dute, baina haurrak zaintzen eta etxeko lanak egiten dituztenak amak dira. Prototipo hori Arabako Errioxan oso markatuta dago. Gurasoen eskolara gizon bat baldin badator, ikonikoa da. Gasteizetik alde handia nabarmentzen da*».

Izan ere, eskualde mailan hautematen da desberdinkeria-egoera larriago dela bestelako eskualde batzuekin alderatuz. «*Eta berdintasunaren aldeko emakume ekintzaile asko dituzten herriak daude hemen. Mugitzen diren eta borrokatzen duten emakumeen taldeak dira, baina egia da rol bikoitza dutela gero, oraindik ere zaintzaileak baitira beren familietan*». Alabaina, berdintasunari dagokionez hori lehen urratsa dela aintzatesten dute eta Leza, Paganos, Bilar, Eskuernaga edo Samaniegoko emakumezkoen aktibismoa eta dinamizazio lana baloratzen dute. Herri txikietan, komunitate-jardueretan parte hartzen duten talde aktiboak ikusgaiagoak dira.

Herri handiagok beste profil bat dute, esate baterako, Guardiak, Bastidak edo Oyón-Oionek. Nukleo horietan «*denetarik dago*», baina baita erresistentzia handiak ere. Emakumeen parte-hartzea txikiagoa da berdintasunarekin, sexualitatearekin edo indarkeriarekin lotutako gaietan. Horregatik uste dute parte-hartzea ez dela formula bakarra, eta beste maila batetan lan egin behar dela helarazten dute «*etxean -non adingabeak dauden- benetan zer gertatzen den jakiteko, adibidez*».

Idea horrekin batera, ustez ikastetxeak dira esparru hobereana lan egiteko. Gero zerbait gertatzen denean, guztiak diote... «*baina, zoragarria zen eta...*». Hori dela eta, eremu guztietan balioen

transmisioa funtsezkoa da eta, beraz, prestakuntza eta, maila sozialean sentsibilizazioa, oso garrantzitsua da.

Arabako Errioxan naturaltzat jotzen diren balioak daude, eta ez dira eztabaidagarriak, eta politikoki hautematen da aspektu hori: *«Teoria bat azaltzen duten politikariak daude, baina gero egunean ez dute esaten dutena betetzen. Politikoki oso zuzenak dira eta laguntza eskaintzen dute eta nahi duzun guztia, baina egunerokoan hitzek ez dute bat egiten ekintzekin».*

Hori dela eta, ezinbestekoa da gizonekin ere lan egitea. Emakume askok ikasten ari dira, *«erantzunkidetasuna zer den eta dena dakite, baina gizonek, ordea, ez dakite. Gurasoen eskolan beren senarrak "eraman" ditzaten animatzen dituzte emakumeak. Eta emakumeari mesedea egiten ari balitzaizkio bezala joaten dira. Horregatik, ikastetxeetan errazagoa da lan egitea publikoa gatibu delako. Baina haurrek gurasoak dituzte...».*

Zeharkakotasuna oinarritzkoa da gizarte justuagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko, eta horregatik, eragile sozial, tekniko eta politiko guztiek prestakuntza jasotzea beharrezkoa da. Gizarte-langileak oso kontziente dira, *«urte asko daramagu lanean, baina berriro 'eraiki' behar gara gu geu ere, gizon horiek, eta emakume batzuk ere, mentalitatea aldatu dezaten lortzeko».* Arabako Errioxa landa-eremuan dago. Oion-Oyón eta Lapuebla de Labarca izan ezik, industria edo zerbitzu gehiago dagoelako bertan, gainerako herriak nekazal munduan daude eta gizonezko eta emakumezkoen papera asko markatzen du horrek. *«Gizona, nola joango da gurasoen eskolara arratsaldeko laueta, landa-eremuan lanean badago? Eta gainera, emazteak hori defendatuko du, senarrak astean zehar 7 egunak lan egiten duelako urte osoan zehar...».* Labur esanda, rolak oso markatuak eta errotuak daude.

Ebaluazio orokor horren ondoren, gizarte-langileei euren funtzioei buruz eta eguneroko lanean genero-ikuspegia nola txertatzen duten galdetu egiten zaie, eta datuak sexuaren arabera ez dutela biltzen jakinarazten dute, IFBS-GOFEk markatzen duenaz aparte.

«Gizonak baino emakume gehiago artatzen ditudan pertzepzioa dut. Sentsazio orokorra da. Emaztea, alaba, arreba». Baina gaiaren arabera da. Autoktonoen arabera ere bai. *«Etorkinei begira, esango nuke gizon gehiago etortzen direla, hizkuntzari dagokionez, emakumeek baino gaztelania gehiago dakitelako, urte gehiago daramatzate Espainian, urteak daramatzate lanean ... eta bere kulturari aferak kudeatzen dituen gizona da».*

Desberdinkeria sozialari dagokionez, etorkin gehiago daude eta aipatutako arrazoiengatik gizon gehiago dator. Baina, oro har, erabiltzaile gehienak emakumeak dira. Gaiaren arabera aztertzen bada, gizonezkoek inklusio sozialekin lotutako laguntza ekonomikoak eskatzen dituzte, eta emakumeak, ordea, familiarekin lotutako laguntzen erabiltzaileak dira.

Gizarte-langileek berdintasunaren alde modu askotara egin dezakete lan emakumeen etorkinen kasuan: *«emakumea kanpoan geratzen denean, esan beharra dago "Ez, bera ere sartu behar du". Horrela emakumeek ere eskubidea dutela eta arreta bera jasoko dutela erakusten dugu. Abiapuntua pixka bat markatzen dugu modu horretan, ez dugu baimenduko emakumea kanpoan gera dadin, bere hizkuntzara itzultzeko eskatzen diogu gizonari, nahiz eta ez dakigun ondo itzuliko dion. Bere*

burua adierazi nahi duenean emakumeak, senarrak batzuetan ez dio uzten. Keinu bat egiten du esanez... hitz egingo dut nik. Horregatik, batzuetan, banan-banan artatu behar dira, hori gerta ez dadin».

Une honetan gizarte-langileek eztabaida uzten dute itzulpen zerbitzuaren garrantzia berretsi nahian. Dagoeneko duten baliabide bat da hau, baina oso modu mugatuan erabili dezakete *«hiru ordu ditugu guztiontzako urte osorako, eta horregatik, arazo larria da hori emakume etorkinentzako. Hemen, migrazioaren ehuneko oso handia da. Itzultzaile bat dago telefonoz, baina jakina, ez dago erabilgarritasun mugagabea. Baliabidea gastatzen baduzu eta kasu larriagotarako behar baduzu...»*

Komunikazioarekin jarraituz, hizkuntza inklusioari dagokionez, sexuaren araberako datuen bilketarekin gertatzen den antzekoa erantzuten dute. Inprimakiak IFBS/GOFEk zehazten ditu, beraz hizkuntza ez sexista erabiltzen da, baina prestakuntza handia behar duela helarazten du gizarte-langile batek, izan ere, modu transbertsalean lan egiten duen profesionalak eragin handia izan dezakeelako. *«Guk balioak transmititzen ditugu gure lanean»*. Zeharkakotasun hori medikuekin, irakasleekin, gurasoekin ere gertatzen da.

Kuadrillako gizarte-langileak oso sentsibilizaturiko emakumeak dira eta berdintasunaren inguruko gabeziak dituztela onartzen dute. Behin baino gehiagotan azpimarratzen dute transmititu nahi duten baloreengandik urruti dagoen bestelako hezkuntza mota bat jaso dutela, beraz, zailtasunak dituzte sentsibilizatuak egon arren.

Hezkuntzari buruz hitz egitean, nerabeen inguruan kezkak agertzen dira berriro, tratu txarrak hautematen dituzte gazteen artean, neskatoek ez dute jokabide matxistarik identifikatzen..., *«hori da matxismoa bizi izan dutelako, ikusi dutelako... beraz zerbait falta da. Eta guk pentsamendua dugu, zerbait egin nahi dugu, baina ez dakigu nola»*. Hezkuntza berdintasunean funtsezkoa da. Etxean ez badute ere mezu bera entzuten, gazteek kontrastatu ahal izateko aukera izan behar dute, *«baina dena zuzenduta dago, komunikabideak, publizitatea, denak eragina du»*.

Gaiaz aldatuz, mugikortasuna eta garraioari buruzko iritzia helarazten dute. Errepide orokorra igarotzen ez den herriak daudela aipatzen dute, eta emakumeengan eragin handia duela ezaugarri horrek. *«Garraio publikorik ez izateak mugak ezartzen ditu... eta hori egoera bost urtez geroztik hobetu egin dela ... Orain arte existitzen ez ziren zeharkako autobus-lineak daude»*.

Baina azpimarratu behar da gizarte-langileak herrietatik mugitzen direla. *«DBE/RGI kudeatzen genituen guk eta herri guztietara joaten ginen, baina 2011az geroztik erabiltzaileek Lanbidera joan behar dute zuzenean, eta hori atzerapauso bat izan da, DBE/RGI eskatzeko garraioa ez baitutelako. Izan ere, adinekoengana heltzen ginen lehen, baina orain laguntza ekonomikoa behar badute, mugitu behar dira...»*. *«Zer gertatzen da? Ekonomikoki ez dela bideragarria, autobusak hiru pertsonekin igarotzen direlako»*.

Gaixotasun mentala, mugikortasun zailtasunak, aniztasun funtzionala duten pertsonen inguruan eztabaidatzen dute ere bai. Zailtasun berberak dituzte, baina *«beraien bizitzaren beste atal batzuk estalita dituzte, ezintasun pentsioa dute edo beste laguntza baliabide batzuk dituzte eskura, orduan*

beste arazo mota bat da». Eguneko zaintzari dagokionez, IFBS/GOFek garraioa estaltzen du, beraz, ez dago arazorik zentzu honetan.

Azkenean, indarkeria matxistaren gaia jorratzen da. Datuek ez dute aldaketa nabarmenik izan azken urteotan, eta arloko gizarte-langileak gogorarazten du *«oro har biztanleria osoari eragiten diola, eta arreta psikologikoarekin aurrerapenak egon direla, izan ere, Oyón-Oionen eta Guardian baliabide hori eskaintzen da gaur egun, baina oraindik betikoa gelditzen da estali gabe, larrialdietarako etxeak segurtasun arrazoiengatik egun dauden tokian egoten jarraitu behar dute eta».*

Gizarte-langileek elkarrizketetan indarkeria pairatzen duten emakumeak detektatu dituzte, baina asko ez daude pauso horretarako prestatuta. *«Zentzu honetan, ikastetxeetan asko dakite, haurrek asko transmititzen dute joko sinbolikoarekin, aurrerapen bat egin dugula uste dut, ume batek klasean esaten badu aitak amari jotzen diola, irakasleak adi egon behar du eta komunikatu behar du».*

Hala ere, irakasleen ezegonkortasuna oso alderdi negatiboa da. Eremu honetan arazo larria da, Arabako Errioxa oso urrun dago eta irakasleek ohikoa baino gehiago aldatzen dute lanpostua. Gauza bera gertatzen da Osakidetzan, non langileak etengabe aldatzen diren.

Eztabaida taldeak Sail teknikoetako profesionalekin

Funtsezkoa da genero-ikuspegia zeharkakotasunez Kuadrillako arlo guztietan eta baita udaletan ere txertatzen saiatzea, horretarako, teknikariek izandako eztabaida taldeak lan egiteko aukera eman zuten eskualde mailan berdintasun-zerbitzuaren eta gainerako arlo teknikoaren arteko aliantzak sortzen hasteko. Kultura, komunikazioa eta gerentziako teknikariek bakarrik jaso dute noizbait berdintasunaren inguruko oinarritzko prestakuntza saioen bat, oso teorikoak eta batere praktikoak izan zirenak, beraien esanetan.

Kuadrillako langileen eta funtzionarioen lan baldintzak:

Laneko baldintzei dagokienez, *«sexua ez da inoiz kontuan hartu, inolaz ere».* Murrizketei eta eszedentziei dagokienez hitzarmena aplikatzen da, baina ez dute inor gogoratzen, *amatasun-baimenaz aparte, eszedentzia baimenik edo zaintza eta lana kontziliatzeko bestelako neurririk hartu duenik.*

Ingurumena:

Ingurumen teknikariak uste du bere arloan genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsua dela, baina aitortzen du ez dakiela generoa zeharkakotasunez nola aplikatu. Komunikazioetan hizkuntza eta irudi inklusiboak hartzen ditu kontuan, nahiz eta *«pertsonak hitza ezabatu eta generikoa aurkitu*

nahiko nuke». Ingurumen arloa da konpostatzea, birziklatzea, auzolanen antolakuntzaren arduraduna.

Komunikazioa:

Komunikazio arloko arduradunaren esanetan, irratian eta Berberana aldizkarian komunikatzeko erabili beharreko hizkuntza inklusiboari buruzko gida bat behar dute. Aspaldi @ erabiltzen hasi ziren, baina badaki ez dela komenigarria, eta gaztelaniazko «los y las» edo «vecinos y vecinas» bezalako formulak aldizkaria irakurtzen dutenentzako nekagarriak dira. Komunikabideen edukari dagokionez, albisteen eta ohiko atalen protagonistak ematen dituztenak direla aipatzen du; hortaz, alkatetzari bideratutako atalean, alkatearekin jartzen dira harremanetan, eta atal soziokulturalean, elkarrekin antolatzailearen bozeramailearekin, alegia. Baina, azkenean, argitzen du ziur asko edukien alderdi hori sakonago aztertu beharko luketela, zeren lehentasunak zehazteko gaitasuna baitute komunikazio sailetik.

Komunikazio teknikariek (hots, aldizkariaren zein «Arabako Errioxako Irratia» programako arduradunek) baieztatzen dute genero-ikuspegia beren eguneroko lanean txertatzeko tresnarik ez dutela eta euren senaz baliatuz jarduten dutela. Hizkuntza zaintzen saiatzen dira, bi sexuak ordezkatuta egon daitezzen. Idazteko unean hizkuntza inklusiboa kontuan hartzen badute ere, irratian zailtasun gehiago dutela uste dute. Komunikazio arloan gaiarekiko sentsibilitatea dago, horregatik uste dute denborarekin generoa txertatzea lortuko dutela. Aldizkariaren eta irratia-aren edukia aztertzerakoan, bi formatuetan gizonen espazio gehiena hartzen dutela ohartzen dira.

Arabako Errioxako upeltegien eta landa esparrua:

Emakumeak historikoki beti izan dira upeltegietan eta landa-eremuan, baina inoiz ez dute gizonezkoen aintzatespen bera izan. Ustiapen gehienetan gertatzen den bezala, gizonezkoak dira titularrak nagusiki, eta ondorioz, emakumezkoen lana ikusezin egon da eta ez da gizarte segurantzian islatua izan. Horrek esan nahi du emakume askok ezin izan dutela pentsioa jaso, izan ere, bizitza osoa landa-eremuan eta upeltegietan lan egin dutela ezin izan baitute erakutsi.

Denborak aurrera egin ahala emakumeek landa-eremuan lan egiteari utzi egin diote eta gaur egun gizonezkoak dira gehien bat uztaz eta mahats-bilketaz arduratzen direnak. Landa-eremuan aseguratuta gabe lan egiteko aukera ematen ez duten arau berriekin erlazionatuta dago hau. Historikoki, mahats-bilketa senide guztien artean egin ohi zen eta uzta garaian eskualdean bizi ziren sasoikako-langileak kontratatzen ziren. Hauen kasuan, seme-alabarik egotekotan, normalean gizonezkoak ziren mahatsak biltzen zituztenak emakumeek haurrak zaintzen zituzten bitartean; gaur egun gizonezkoek bakarrik etortzen dira, familia osoak ez dira mugitzen lehen bezala.

Upeltegietan, emakumeek egile eta merkatari gisa hasi dira lanean azken hamarkadetan, nahiz eta historikoki ardoaren munduan ez den hori izan emakumeen rola. Gaur egun, eta adibide gisa, peritutzan, zuzendaritza edo marketina bezalako ikasketak dituzte askok, eta bestelako lanpostu

batzuk okupatu ahal izan dituzte. Oraindik ere ingurune maskulinizatu batean mugitzen badira ere, esan daiteke gero eta pisu handiagoa dutela.

Administrazioa:

Kuadrillako administrariak ez dute arreta publikoarekiko lan handirik, Udalekin harreman zuzena dute eta horretan datza beraien lana batik bat. Udalerrri gehienetan emakumeekin izaten dute harremana. Kuadrilla osatzen duten udaletako administrarien ia ehuneko ehun emakumeak dira, eta oro har, oso sektore feminizatua dela uste dute eztabaida talde honetan, baina era berean, Arabako Errioxan historikoki egon den eskaintza akademikoarekin du zerikusi handia. Emakumeak: administrazio ikasketak egiten zituzten gehien bat; gizonak: enologia ikasketak.

Gaur egun, Lanbide Heziketan erizain laguntzaile izateko ikasketak eskaintzen dira, eskualdean enplegu-nitxo bat aurkitzen baitu sektore feminizatu horrek, Leza ospitalea eta egoitza ugari dagoelako, batez ere. Baina esan bezala, eztabaida taldeetan argi geratu zen duela urte batzuk arte, Enologia eta Administrazioa eskaintzen zirenean, rolak oso bereizita zeudela. Emakumeek enologia ikasten hasi ziren, baina gizonak ez zuten administrazioarekin edo zaintzarekin lotutako ikasketak aukeratu. Alderdi hori oso garrantzitsutzat hartzen da, haurtzarotik eskualdeko gazteen etorkizun profesionala erabakita baitzegoen, ohiko rolak indartzen jarraituz, eta horren ondorioak oraindik ikusgai daude.

Ekonomia eta Enplegua:

Eskualdeko enpleguaren sustapenari dagokionez, Lanbiderekin egiten da lan zuzenean, eta horregatik irizpideak eta ekintza positiboak sartzen dira emakumeak lan-merkatuan aukera eta baldintza berdinetan sartzeko. Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa kontuan hartzen da, Lanbideko aplikazioek hala eskatzen baitute. Zentzu horretan, lana erraza da, generoaren ikuspegia kontuan hartzeko tresnak eskura dituztelako.

Beste alde batetik, egia da gizonetako baino emakume gehiago dagoela langabe, baina era berean emakume gehiago dago enplegu eskatzaile gisa. Nabarmena da «*gizonen*» lantzat jotzen ditugun zenbait lanpostuetan ez direla emakumeak sartzen, oraindik ere ez dutelako ikusten lan horiek ere burutu ditzaketela. Antolatzen diren prestakuntza-ekintzetan ere parte hartzen duten gehienak emakumeak dira, baina emakumeei eta gizonetako historikoki esleitutako rolak argi ikusten dira, formazioetan lan egiten dutenaren arabera, emakumezko edo gizonetako gehiago etorriko baitira. Emakumeak zerbitzuen sektorean dihardute gehiago eta gizonetakoak, aldiz, enpresa munduan.

Aurrekontuei eta alderdi ekonomikoei dagokienez, Kuadrillak ez du baliabide propiorik eta diru-laguntza publikoen bidez egiten du lan, diru-laguntza gehien jasotzen dituzten sailak euskara eta berdintasun-zerbitzuak direlarik. Baina oro har, egiten diren ekintzak ez dute finantzaketa propiorik. Ekintzei emandako garrantziaren arabera, lehendakaria da aurrekontu propioarekin egingo den ala ez erabakitzen duena. Kostu ekonomiko handiagoa duten arloak daude, baina Udalak dira gastuez

arduraten direnak Kuadrillan (zaborrak, errepideen garbiketa...) urtero egiten dituzten ekarpenekin.

Kultura/kirola:

Sail horrek antolatutako kultur eta kirol jardueretan parte-hartzaile eta erabiltzaile gehienak emakumeak dira. Eztabaida sortzen da taldean kirol lehiakor eta ez lehiakorren inguruan. Lehenengo kasuan, desberdintasun jakin bat dago kirol lehiakorrenak praktikatzeko dituztenak mutilak direlako. Neskek ez dute hainbeste aukera apuntatzeko biziki maskulinizaturiko klub eta talde horien aurrean, izan ere, Lucerna edo Oyonesa bezalako klubetan, esate baterako, ez dago adin jakin batetik aurrera kirol eskaintzarik neskentzat, haur-kategorian ez ezik, lehiaketak ez direlako mistoak.

Neskek praktikatzeko dituzten kirol lehiakorrak ez direla ikusten edo era berean ez direla goraiatzeko komentatzen da, eta ondorioz, badirudi ez dutela kirol praktikatzeko, nahiz eta boleibol, gimnasia erritmikoa, atletismozko taldeak dauden, non gehienak neskek diren. Oro har, ados daude neskek ez direla kirol lehiakorrek motibatuta sentitzen, «*entrenatu nahi dute, baina ez, ordea, lehiatu*».

Hori dela eta, emakume gehiagok parte hartzen dute ibilaldietan, esate baterako, mendi-irteeretan, % 60 emakumeak direlarik, edo dantza ikastaroetan, ehunekoa are handiago delarik. Azkenaldian, Kangoo dago modan, bota malgukidun batzuekin praktikatzeko den kirol-diziplina aerobiko berria. Ia % 100 emakumeak dira. Ondorioz, lehiakorrak ez diren aukerarik egon badago, «*ziurrenik neskek halako kirolak egitera animatuko lirateke*».

Ez da soilik praktikatzeko diren kirol motak aintzat hartu behar, baita praktikatzeko den modua eta bideraturiko denbora ere. Batzuen arabera, nabarmen da belaunaldi gazteagoek modu berdintsuagoan banatzen dituztela seme-alabak zaintzeko zereginak, baina iritzi hori ez dute guztiek partekatzen, zenbait kasutan hainbat jardueratan eta ordu zehatz batzuetan izena emateko zailtasuna baitute emakume batzuek arrazoi horrengatik, eta ez bakarrik zaintzagatik, baita ere etxeko lanengatik, hala nola, afaria prestatzea edo etxea antolatzea.

Beste alde batetik, emakumeak herrietan barrena taldeka ibili ohi dira paseatzen oro har, baina zaintza ardura handirik ez duten emakumeak dira gehien bat. Aipamen horrekin batera baloratzen da emakumeek zailtasunak aurkitzen dituztela kaleko zenbait kirol jarduera bakarrik praktikatzeko ordu zehatz batzuetan, batez ere gaua denean.

Beti ere salbuespenak daude, baina, oro har, gizonek ez bezala, emakumeek bakarrik kirol praktikatzeko ez dutela praktikatzeko diote gehienek (korrika, oinez, bizikletaz). «*Arriskurik ez dago, baina oraindik ere gure sen naturalak zerbait gerta litekeela esaten digu, hemen inoiz ezer gertatu ez den arren*», dio parte-hartzaile batek. Aitzitik, kirola taldean egiten bada konpainiagatik dela dio beste batek, eta ez ordea, beldurragatik.

Kontsumitzailearen arreta bulegoa:

Kuadrillako gerentea berak emandako aholkularitza juridikoa udalerriei bideratutakoa zerbitzua da, baina langile horrek, gainera, OMIC-kontsumitzailearen arreta bulegoa duela gutxi hartu zuela bere gain ere bai. Beraren esanetan 14 kasu bakarrik ditu eta ez ditu bulego horretara joaten diren erabiltzaileen datuak sexuaren arabera bereizi. Hala ere, sexuaren arabera bereiziriko datuak biltzeak duen garrantziari dagokionez, interesgarria dela uste du berak, eta bildu beharko lituzkeela dio. Egungo inprimakiek ez dute jasotzen dagokion kutxa.

Merkataritza:

Merkataritza arloko teknikariak adierazten du bere lan eremuan gizonetzko baino emakume gehiago dagoela, baina ostalaritzan, nahiz eta emakumezko gehiago badira ere, *«arduraduna nor den galdetzen duzunean, beti gizon bat da»*. Bikoteak normalean erabakitzen du postu hori gizonarena dela, nahiz eta emakumea izan benetan ikusgai dagoena publikoarekiko.

Kultura teknikariak aitortzen du elkarrean ere ikusten dela hori, jubilatuetako klubetako lehendakaria beti gizon bat da, *«nahiz eta ez diren bileretara agertzen, batzordeko emakumeak etortzen baitira eta beraiek dira erabakitzen eta agintzen dutenak, hain zuzen ere. Baina arduradun gisa gizona agertzen da gehienetan»*.

Kuadrilla mailako ostalaritza sektorerara itzuliz, taldeetan nabarmentzen da, gizonak alkohol gehiago edaten dutela eta drogak neurri handi batean hartzen dutela emakumeekin alderatuz. Bereizketa bat egiten da: kafe dastalekuetan edota txokolategietan kontsumitzaile nagusiak emakumeak dira.

Bestalde, merkataritza arloko teknikariak lehiaketan epaimahaia osatzeko erabiltzen dituen irizpideak balioesten ditu, hiru pertsonetatik beti behintzat emakume bat egotea exijitzen dutelako. Jardueretan parte hartzeari dagokionez, ardo-dastatzea nabarmentzen du, emakumeak baitira gehiengoak, *«baina nire ustez kultura-jardueretan emakumeen parte-hartzea askoz handiagoa da normalean»*. Informazio hori taldeek berresten dute, beraz, kultura jardueretan gizonen parte hartzea sustatu beharra dagoela ondorioztatzen dute.

Euskara:

Euskara teknikariak arlo honetan sustatutako berdintasunaren aldeko praktikak partekatzen ditu. Korrikan emakume bat eta gizon bat aukeratu zuten bozeramaile gisa, baloratu baitzuten bi sexuak bistaraztea oso garrantzitsua zela. Gurasoei zuzendutako tailerrak antolatzen dituztenean, ordutegia kontuan hartzen dute eta ez dute baztertzen hitzaldietan edo tailerretan ume-zaintza zerbitzua eskaintzeko aukera ematea.

Udalekuen antolamenduari dagokionez, errepikatu ohi diren rolak ezabatzen saiatzen dira eta jarduera guztiak mutilen eta nesken sexua aintzat hartu gabe burutzen dira. Eta begiraleei dagokienez, tituluaz gain berdintasuneko gai hauek landu izana eskatzen zaie. Era berean,

begiraleen artean neskak zein mutilak egon daitezen saiatzen dira. Aitzitik, neskato eta mutikoak modu berdinzalean tratatzeko asmoz, ez dute berdintasun-gaietan prestakuntzarik jasotzen udalekuak hasi baino lehen.

Eztabaidarako taldean galdegiten da ea posible litzatekeen aurrekontuetan partida bat onartzea ume-zaintza zerbitzu hipotetiko baten gastuak estaltzeko, eta modu honetan edozein sailetik antolatutako jarduerekin batera aukera hori eskaini ahal izateko. Oro har, eta, batez ere, zeharkako sailen kasuan, ideia egokia iruditzen zaie; hain zuzen ere, berdintasun-teknikariak dioenez, 30 eta 40 urte bitartekoan emakumezkoek ia ez dute parte hartzen inolako ekintzetan, *«eta ziur nago umeen zaintzarekin zerikusi zuzena duela. Laia Eskolako jardueretan inork ez du ume-zaintza zerbitzurik eskatu, baina mentalitatearen arazoa da, pixkanaka-pixkanaka aldatu egingo dela uste dut»*.

Exodoa Kuadrillan:

Ikasketak edo lana dela eta, hirira joaten diren pertsona gehienak emakumeak dira; horietako batzuk bueltatu egiten dira, baina, oro har, ez dute eskualde mailan garatzen beren lanbide-karrera. Aukera akademiko edo profesionalak ez ezik, landa-eremuko pentsamoldearekin eta ohiko rolekkin erlazionatuta dago emakumeen exodoa.

Prozesuan zehar eztabaidatu egin da -eta elkarrizketa batzuetan azpimarratu egin da- emakumeek herrietan aurkitzen dituzten mugak sinbolikoak direla eta, gizartean ezarritako arauekin hautsiz bestelako bizimodu bat garatzea zailtzen duten mugak daudela. Izan ere, udalek emandako erroldatutako datuek egiazta dezakete errealitate hori, 30-39 urteko adinekoen artean eskualdeko zenbait eremutan biztanleen ehunekoak nabarmen gutxitzen direlako emakumeen kasuan (Iekora, Lapuebla de la Labarca, esaterako) baina biztanleria dentsitate txikia duten herriak dira, hortaz datu estatistiko fidagarriak ateratzeko lagina ez da nahikoa.

Datuen banaketa sexuaren arabera:

Eztabaida talde teknikoetan jaso da, oro har, sexuaren arabera bereiziriko datuak ez direla biltzen. Hala eta guztiz ere, kultura-teknikariak berdintasun-zerbitzua dagoenetik datuak bereizten dituela aitortzen du, baina gainerako arloek ez dute hala egiten. Ordea, alderdi kualitatiboagoak aipatzen dituzte talde honetan, esate baterako, eskakizun bat egiten duena edo jardueraren batean izena eman ohi duena emakumea izaten dela, nahiz eta ondoren senarraren izena ematen duen: *«Noizbait txangoren batera emakume batek izena ematerakoan zera esan du: 'apuntatu nire senarraren izena eta ondoan idatzi 'eta bere emaztea'; baina deitu duen edo berez izena eman duen emakumeak berak bere izena ez du adierazten»*.

Berdintasunerako egitura tekniko egonkorra:

Urtean bitan bildu daitekeen sail arteko Batzordea sortzeko beharra eta bideragarritasunaren inguruan eztabaidatzen du taldeak, alderdi garrantzitsuenak koordinatzeko eta modu transbertsalean lantzeko balioko duena, alegia. Batez ere, ingurumenak, euskarak eta berdintasunak oso positiboa izan daitekeela ikusten dute, zeharkako gaiak direlako, hain zuzen ere. Ez dakite gainerako arloetan zer egiten den; eta horrek, zaildu egiten du beren lana eta ingurumenaren, hizkuntzaren eta berdintasunaren alderdi ezberdinak txertatzea konplikatua da.

Eztabaida taldea Hezkuntza-komunitatearekin

Parte-hartzaileak:

- Lantziego ikastola. Bego Hormaetxea.
- Guardiako Victor Tapia Eskola. Antonio Martinez eta Oihane Elio.
- Eltziego Eskola. Zuriñe Cundín.
- Oyón-Oiongo San Bizente Ikastola. Jon Amilibia eta Oihane Castillo.
- Oyón-Oiongo Ramiro de Maeztu Eskola. Bea Arabaolaza.
- Guardiako Samaniego Institutua. Mari Jose Igartua.
- Bastida Eskola. Patricia.
- Lapuebla de Labarcako Assa Ikastola. Nekane Amondarain.
- Bastida Ikastola. Gorka Elgoibar
- Berdintasun-teknikaria. Maitane Arnaiz.

Aurkezpenaren ondoren, Oyón-Oiongo San Bizente Eskola bere esperientzia kontatzen hasten da. Diru-laguntza baten eskutik, hiru urteko Hezkidetza Plan baten harira ari dira lanean. Berritzeguneren laguntzarekin batera sentsibilizazio kanpainak burutu dituzte orain arte, eta aurrean ere irakasleekin hezkidetza batzordea sortu dute, ez bakarrik egun esanguratsuetan ekintzak antolatzeko, baizik eta gurasoekin zein ikastola komunitatearekin hileroko behin biltzen den lantalde bat sustatzeko ere. Bertan hausnarketa egiten dute eta ondorengo lana antolatu.

Bastida Ikastola hezkidetza lantzen hasi zen duela pare bat urte jesuiten ALBOAN elkartearen eskutik. Berdintasunerako proiektua iritsi zitzaion eta diagnostikoa egitera animatu ziren. Horretan ari dira, eta kurtsoa amaitzerako eskolako diagnostikoa itxita izango dute, baita hezkidetza planaren zirriborroa, behintzat. Azken bi urteotan eskola aztertzen egon dira ikuspegi guztietatik, gurasoak, ikasleak, irakasleak, espazioak, aintzat hartuz.

Guardiako Victor Tapia Eskolari dagokionez, Hezkidetza batzordea antolatu nahi dute, eta orain arte ekintza puntualak egiten dute, besterik ez.

Lapueblako Assa ikastolan taldetxo bat dago, bost irakasleekin osaturikoa. Duela bizpahiru urte proiektu bat sortu zuten eta aurrera eramaten daude. Dena den, aurretik gai hori landuta zegoen pixka bat, ikasleak sentsibilizatuta daudelako eta balore etiko gisa landu ohi delako. Irakasleek gaia ezagutzen dute eta kontziente dira. Hemendik aurrera lanean jarraitu nahi dute DBH batez ere.

Baina aurrera begira ikastola osorako duten asmoa proiektu nagusiago bat egitea da eta proiektu hori zabaltzea irakasleei, gurasoei, langilei.

Bastida Eskolaren kasuan arazo larriena elkarbizitzarekin dute, hainbat arrazoi direla eta, sexua edo arraza esaterako. Eskola publikoetan existitzen den harreman batzordea daukate guraso eta irakasleekin batera. Hala ere ikasleekin generoa lantzen dute egunerokoan. Onartzen dute ikasleekin arazoak izaten dituztela, etorkin kopurua altua da eta hauekin genero-ikuspegitik areagotu egiten dira arazoak. «Euren kulturaren emakumeok azpitik gaude. Harrituta geratzen gara, ez dakit hori aldatu ahal izango dugun, oso barneratuta daukate».

Oyón-Oiongo Ramiro de Maeztu Eskolan aurten sortu dute Hezkidetza Batzordea, baina momentuz ekintza puntualak baino ez dituzte antolatu, denbora faltagatik batik bat. Eskola mailan egiteko dagoen lana ezagutzeko asmoz diagnostikoa egitea beharrezkoa ikusten dute. Beraien eskola handia da baina kasuistika antzekoa da.

Lantziego ikastolan hezkidetza batzordea sortu zuten baina ez dute ekintza plan konkreturik. Ekintza puntualak egin dituzte, «baina mila gauza dauzkagu eta uzten dugu, agian ez diogu horrenbesteko garrantzia ematen. Nahiko makal gaude».

Eltziego Eskolan ez dute batzorderik, ekintza puntualak egiteko lan talde bat dagoen arren. M8 eta A25erako zerbait egin dute baina ez dute ezer sistematizatuta, ezta aurreko lanik eginda ere.

Guardiako Samaniego institutuan ez dago batzorderik ezta ere. Genero-indarkeriaren inguruan noizbait zerbait landu dute, baina besterik ez.

Testuinguruaren ondoren, eztabaida taldea dinamizatzearen arduradunak hainbat gai proposatzen ditu horien inguruan hitz egiteko:

Exodo femeninoa:

Bastida eskolan ez dute ikusten halakorik, aitzitik, ijito asko izatearen ondorioz, kontrakoa gertatzen dela esan beharko litzateke, alegia, neskek dira ikasketak berehala uzten dutenak. Baina bestela, orokorrean jasotzen da «exodo femeninoaren» errealitatea egiazkoa dela. Duela 20 urte agian nabarmenagoa zen, gizonen beharrezko ikasketak bukatu eta gehienak herrian gelditzen zirelako.

Emakumeak, aldiz, unibertsitatera joaten ziren. Horrek ez du esan nahi andre horiek ez zirenik bueltatu, askok lanbidea sortu baitzuten hemen, beste batzuek, ordea, ez. «Topiko hori egia da nahiz eta gaur egun hain nabarmen ez izan». Mahatsaren mundua etorkizuna bezala ikusten zen garai batean, dirua ematen zuen, beraz «lehen bai banatzen zirela gauzak sexuaren arabera, baina neskek ikasketekiko zuten interesa handiagoa zen, mutilek dirua modu errazean lortzeko ikusten zuten zona hori eta lehenago uzten zituzten ikasketak. Baina gero krisi garaiak eragina izan zuen eta orain lurrak ez du hainbeste diru ematen, hortaz, gauzak aldatu egin dira».

Familian ematen diren baloreak ere inportanteak direla azpimarratzen da, baina «egia da ez dela topiko bat, hala ere faktore gehiago hartu behar dira kontutan hori ulertzeko». Batzuek uste dute

arazo hori ez dela bakarrik zona honetakoa izan, «Euskal Herri mailan normalagoa zen mutilek ikasketak uztea fabrikara joateko, adibidez». Baita entzuten da «herentziak gero eta txikiagoak direla eta orduan orain beste zerbait bilatu behar da bizitzeko, beraz orain gazteak derrigortuta daude beste alternatibak bilatzera, gauzak aldatuz doaz».

Beste partaide batek dio duela urte gutxi arte «droga-mendekotasuna bai zela inportantea, diru asko zegoen eta gazteen artean drogaren kontsumoa altua zen». Eta egoera sozioekonomikoak eragina baduela diote beste batzuek ere. Ekonomiko arazoak badituzte, 16 urtetik gora ikastera joateko aukerak murriztu egiten dira. Baina orokorrean, DBHko bigarren zikloan zein batxilergoan ez da desberdintasun handirik sumatzen sexuari dagokionez, bai ordea erdi mailako zikloetan, non mutilak gehiengo diren.

Etorkinen gaia berriro azaleratzen da, «emakume marokoarrak ezkondu aurretik ikasi behar dute, gero ezin». «EPAN marokoar eta pakistandar asko daude, batzuek ikasten jarraitzeko asmoa dute, hor ere gauzak aldatzen hasi dira, agian kasu puntualak dira, eta etxeko pentsaeraren arabera izango da, baina gauzak pixkanaka aldatuz doaz». Emakume etorkin batzuek gurasoen ohiturak ez dituztela jasotzen da aipatu da taldean. «Ez dira aberatsak baina bekekin bide horretatik jarraitzen dute. Mutil marokoarrak eta pakistandarrik, aitzitik, ez dugu batxilergoan. laz ijito bat egon zen 2. Batxilergoan. Lorpen handia izan zen hori. Pixkanaka ikusten ari da, beraz, aldaketa».

Prestakuntza hezkidetzan edota berdintasunean:

Berritzeguneko sei saioko ikastaro batera joan da Oyón-Oiongo San Bizenteko hezkidetzako arduraduna, bertan materiala aztertu, hezkidetzaren planean sakondu, edo elkarbizitza eta berdintasuna nola uztartu ikasi dutelarik. Beste batzuk Maitanerekin egon dira harremanetan.

Eta Bastida Ikastolan Amelia Barquin entzuteko aukera izan zuten, 2 orduko tailer batean hain zuzen. «Jendea oso pozik atera zen, oraindik Plana egin gabe dugu baina horrelako ekintzak ziur sartuko ditugula, izan ere, kanpoko norbait entzutearen ondorioz buruari eragitea ondo datorkigu irakasleoi. Eztabaida sortu zen irakasleen artean eta hori benetan behar dugula, askotan gure eguneroko dinamikan sartzeko gara eta gai horrek adostasuna behar du denok ildo berdinetik joateko».

Beraz prestakuntza modu askotakoa izan daitekeela ondorioztatzen da, baita ere «gurasoekin hezkidetzaren batzordea osatzerakoan, izan ere prestakuntza antzeko bat da prozesu bera, horizontala da, eta beraiek sortzen duten guztia hausnarketarako baliagarria da, gaiaren inguruan ikasten duten heinean».

Irakasleak erreferente direla aipatzerakoan, «modu batera edo bestera barneratuta ditugun gauzak erakusten ditugu nahi gabe irakasleok ere, eta kontziente izan behar gara». «baina aita eta ama ere dira erreferente»... Hala ere, eskoletan saiatzen dira beste balore batzuk lantzen, Bastida Eskolan esaterako, Haur Hezkuntzan Goazen telesailako Denok Zu abestia eta letra landu dute, generoari buruz hitz egiteko.

Guardiako Samaniego Institutuak ordea zaila ikusten du prestakuntza espezializatua txertatzea beraien programazioan, izan ere, datozen hiru urteko prestakuntza-plangintza itxita dute. Bizikasi ekimena abiatu dute duela gutxi, jazarpen egoerei aurrea hartzeko Eusko Jaurlaritzak sortutako programa, baina «gu ez gara ailegatzen denetara, gainera berdintasuna egunero lantzen dugu, jantokian adibidez, baita gelan, pasilloetan. Guk ez dugu plan bat baina elkarbizitza Planean hori txertatuta dago».

Beste batzuk ez daude ados, Agenda 21ekin gertatu zen bezala ikusten baitute hau. «Nahiz eta sentsibilitatea egon egiturak sortzea inportantea da, hasieran kostatzen da baina gero dena bakarrik ateratzen da. Agenda 21rekin berdin gertatu zen. Erraztasuna ematen dizu».

Ezkerretako curriculum. Patioa:

Gehienek diote futbolak okupatzen duela gehien patioko esparrua. «Neska batzuk jolasten dira baina gutxi, iskinetan egoten dira beste jolasetara. Arazoak sortzen ditu gainera futbolak, ez dakite jolasten, gatazkak sortzen dira. Jolastea elkarrekin ondo konpontzea da, ez baloiari ematea eta gola sartzea». «Arazoa dago ere futbola gustatzen ez zaien mutilekin, arraro eta baztertuak sentitzen dira». Ondorioz, hainbat eskolatan beste jolas motak sustatzen dira.

Kasu batzuetan egun bakoitza jolas batera bideratzen saiatu dira, beste batzuetan jolaserako material ezberdinekin sortutako kutxa egin dute. «Eta LH 2tik LH6ra bitarte ume horiek kudeatzen dute, eta jolasen aukerak gehiago zabaldu direla esan genezake. Futbola jarraitzen da baina kutxaren balorazioa ez da txarra»

Batzuek uste dute debekatzerakoan garrantzia ematen zaiola futbolari berari. Futbola zentroan jartzen dela modu horretan, hala ere, astean futbolik gabeko egun bat edo bi sustatzen dute hainbat tokietan. «Derrigortzerakoan asmo ona dugu baina askotan aldendu egiten dira mutilak hezkidetzaren helburutik. Beste aukera batzuk planteatzen baditugu hobea». Ikastetxe bakoitzeko jolaslekua eraldatzeko posibilitatea aintzat hartu behar da ere, eskola batzuen patioa udaleko espazioa baita, parkea edo frontoia, esaterako.

Testuliburuak eta materialak:

Ramiro Maeztun hausnarketa egin dute horren inguruan eta datorren urteari begira liburuak aztertuko dituzte. «Orain askotan testuliburuetatik gauzak ekiditen ditut, sexistak direlako».

San Bizentek dio Ikastolen Elkarteko EKI ikasmateriala erabiltzen dutela, eta emakumearen papera berreskuratzen dute historian, zientzian etab. Hala ere, homofobiaren kontuak ahaztuagoak antzematen dituzte eta hori gehiago landu behar luketela diote. «Genitalen asuntza adibidez, neska eta mutila, horrek kezka sortzen dizkie». Horren harira, Bastida Eskolan Haur Hezkuntzatik lantzen dute identitatearen gaia, «alua du, baina ez dakigu neska izango den».

Lantziego Eskolan komunekin ari dira bueltaka, beste eskola batzuek kartelak kendu dituzte. Oyón-Oiongo Ramiro de Maeztu Eskolan «duela gutxi erreforma egin zen eta mutilen komunitan gorako aldean franja urdina dago, neskenean, ordea, arrosa. Eta irakasleen kasuan bakarrik dago ispilua emakumeen komunean». Guardiako Victor Tapia Eskolan duela gutxi kendu zituztela kartelak, oraindik ohiturak jarraitzen badute ere.

Kartelaz aparte, portaerak ezberdinak direla aipatzen da. «Askotan HHn ikusten dut komuneko atea parez pare irekita dagoenez, mutilak zutik zakilekin eta neskak eserita, eta mutilek lasai asko ziprztindu dezakete. Denek eserita egon beharko lukete».

Bullyinga eta generoa:

Normalean nesken artean garrantzitsua da bullyinga, badirudi nesken arteko harremanak nahiko toxikoak direla. San Bizente Eskolan horren inguruan lanketa egin nahi dute, ahalduntzea landuz nesken artean, beraien arteko harremanak osasuntsuak izan daitezen.

Partaidetza geletan:

Nesken eta mutilen arteko portaera ezberdinak direla diote gehienek. «Jarreraren aldetik diferentziak ikusten ditut. Taldeak oso anitzak direla ahaztu gabe, mutilak askoz okerrago portatzen dira, eta neskek hainbat gauzak onartzen dituzte beraien aldetik...»

Hala ere, erabakiak hartzeko orduan, eta hitz egiteko orduan desadostasuna nabaria da eztabaida taldean, batzuek «baietz, mutilek eta neskek desberdin hitz egiten dutela», baina beste batzuek «ezetz, generoak baino gehiago, norberaren izaerak zerikusi handiagoa duela. Eta gelaren kopuruak ere zerikusia du». Berdin gertatzen da irakasleen arteko harremanetan sakontzerakoan. Hezkuntza komunitatean neskak gehiengo izanik, gizonen «boterea» urria dela pentsatzen da.

Indarkeria matxista:

Irakasleen arteko jazarpen sexual eta sexistari aurre egiteko Protokolo bat dago, Eusko Jaurlaritzak bidalitakoa, alegia. Hala ere, inork ez du ezagutzen bere eskolan batzorderik dagoen horren inguruan, eta nor ote den batzordearen arduraduna indarkeria sexista kasu bat ematekotan protokoloa aktibatuko zukeena. Eltziego Eskolaren iritiz, denek ikuskaritzara joko lukete, ohikoa omen delako bertara jotzea edozein arazo sortzen denean.

Bestalde, ikasleen artean detektatuko balute kasuren bat, «Mi papa le pega a mi mama» entzun ohi da noizbait eskolaren batean. Eltziego eta Lantziego argi dute Gizarte Zerbitzuetara joko zutela. Hain zuzen ere, Eltziegoren kasu bat izan zuten, «ama batek aurpegian morea zuela ikusi genuen, eta gizarte-langilearengana jo genuen». Edozein indizioaren aurrean komunikatu behar zaio gizarte-langileari, «ez da irakasleen ardura egia den ala ez baieztatzea»

Oyón-Oiongo eskoletan beste arazo bat dago ere, eta Errioxa eta Logroñorekin dagoen hurbiltasuna da, hain zuzen, eskumen arazoak sor daitezke arreta emateko unean.

Hezkidetza batzordea eskualde mailan:

Bi aukera aurreikusten dira. Lehenengoa Hezkidetza Batzordea sortzearen neurria III. Berdintasunerako Planean sartzea ekintza gisa, urtean bi bilerekin; bigarren aukera, sortu berri den Hezkuntza Foroaren baitan txertatzea hezkidetzarako saio bat urtean behin edo bitan. Ez da erabaki zehatzik hartzen baina ez du harrera txarrik izan mota honetako ekintzaren bat sartzea Berdintasunerako III. Planean.

Elkarrizketak Turismo-bulegoko profesionalekin (Guardia eta Oyón-Oion)

Arabako Errioxako Kuadrillako hiru turismo-bulegoetako bik parte hartu dute Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana egiteko diagnostiko honetan, Kuadrillako berdintasun-zerbitzutik bidalitako galdera batzuei erantzunez; honako ondorioak atera dira:

Oro har, berdintasunari eta hura sustatzeko dauden baliabideei buruzko informazioa falta da. Hainbat urte daramate turismo berdinzaleago bat sustatzeko ekimenak bultzatzen, eta genero-ikuspegia barne hartzen duten arren, pertzepzioa orokorra da ez dagoela informazio gehiegi, komunikabideetan agertzen denaz gain. Garrantzitsua da kontuan hartzea turismoa emakumezkoen ahalduntzea bideratzeko bidetako bat izan daitekeela, eta era berean, genero-berdintasunerako erronkak nabarmenduz doazela sektore honetan ere.

Eskualdeko turismoa batez ere helduena da eta eskaintza haiei zuzenduta dago. Horregatik, Arabako Errioxa gehien bisitatzen dutenak familiak, bikoteak eta lagun taldeak dira. Interesak ardoaren munduari eta ondare-eskaintzari lotuta daude. *«Eskualdean jasotzen dugun turismoa mota askotarikoa da eskaintza zabala delako. Urteko sasoiaren arabera, ikastetxetako, ikasle zein hirugarren adineko taldeak etortzen dira, edo familiak haurrekin, elkarteak, kolektibo ezberdinak.».*

Oro har, ohartarazten du bakarrik bidaiatzeko ohitura ez dela ohikoa, baina egia da gizon eta emakumeen arteko aldea handia dagoela zentzu horretan. Ohiko praktika ez den arren, pertzepzioa da gizonen emakumezkoen baino gehiago bidaiatzen dutela bakarrik. *«Oro har, emakumeek beste norbaitekin bidaiatu ohi dute, lagunekin, familiarekin edo bikotearekin. Salbuespenak badira ere, bakarrik bidaiatzen duten emakumeak ere bisitatzen gaituzte, baina ez da ohikoa.».*

Turismo-eskaintza zabaltzeko erabiltzen diren irudi eta hizkuntzari dagokionez, nahiz eta oraindik ere badagoen lanik egiteke, elkarrizketatuek baieztatzen dute hizkuntza inklusiboa kontuan hartzen dutela eta irudiak zaintzen dituztela ahalik eta berdinzaleenak izateko. Nahiz eta emakume eta gizonen esleitutako rol tradizionalekin hausteko ekimenak ez diren kontuan hartzen, esan daiteke emakumeen gorputzak marketin estrategia gisa erabiltzearen aspektua gainditu egin dela. Hala eta guztiz ere, diagnostiko honetan parte hartu duten pertsona batek honako hauxe dio: *«Ardoa saltzeko sexu bakoitzari loturiko ardo motaren arabera kanpainak sexistak direla iruditzen*

zait. Ardo zuriak emakumeentzat eta ardo beltzak gizonentzat? Zer mezu da hori? Emakumeek ez dute gustuko ardo beltzak eta gizonak ez dute ardo zuria edaten?».

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea turismoari buruz hitz egiten dugunean feminizaturiko sektore bati buruz hitz egiten ari garela, turismoaren sustapenarekin loturiko lanpostu gehienak hauekin lotuta baitaude. Eta horietatik onurak ateratzen duten dendak edo ostalaritza-industriak ere bai.

Diagnostikoan parte hartu duen pertsonen batek honako hau jakinarazi zuen: *«Jendearen aurrean lan egiten duten pertsonen ehuneko handia emakumeak dira. Hori argi ikusten da bai ondareari bai upategiei bisita gidatuak egiten dituzten pertsoneri erreparatzen badiegu, emakumeak direla gehien bat, alegia; ostatu edo ostalaritza lanetan dihardutenak ere bai. Enpresa txikia eta familiakoa denean, portzentaje hori orekatuagoa dagoela uste dut».*

Turismoak emakumei enplegarritasuna eskaintzen badie ere, ez da kasualitatea sektore prekario bat izatea. *«Enplegarritasunari dagokionez, emakumeentzako lan gehiago sortzen dela izan liteke. Baina hori ez da faktore bat kalkulatzeko, egutegia eta ordutegia normalean ez baitira onak, asteburuetan eta jaietan lan egiten den sektorea da. Enpresariak, ordea, askotan gizonak dira».*

Bestalde, 'turismoan zertan izan daiteke onuragarri lan egitea berdintasunaren alde' galderaren aurrean, ez da turismo-eskaintza hobetzeko aukera bat bezala soilik ikusten: *«Uste dut turismoak jende askorengana iristen dela, biztanleriaren esparru zabalari iristeko modu bat da, baina sektoreko lan-baldintzak eta soldatak hobetzeko tresna ere bada berdintasunaren alde lan egitea».*

Idazkari kontu-hartzaileak

Kuadrillako idazkariak gain, teknikariek egindako eztabaida talde batean parte hartu zuela, Arabako Errioxako 15 udalerrien artean, 9 idazkari esku-hartzaile daude, eta horietatik 4 emakumeak dira. Udalak 5.000 biztanle baino gutxiagoak direnez, funtzioak pertsona bakarrean biltzen dira, idazkaritza eta esku-hartze arloetakoak, alegia; beraz, oro har, lan zama handiko lanpostuak dira.

Aurreikusitako 9 elkarrizketetatik, 7 idazkari izan dira elkarrizketatuak azkenean, hurrengo udaletan lan egiten dutenak, hain zuzen ere: Oyón-Oion, Bastida, Eltziego, Lapuebla de Labarca, Navaridas/Leza, Kripan/Bilar/Lantziego, Moreda/Iekora. Esanguratsua da eskualdeko gizonen idazkari guztiek udal bakar batean lan egiten dutela, udalerrri handienetako idazkaritza nagusiaren arduradunak baitira. Aitzitik, emakumezko idazkari guztiek hainbat udalerrri txikitan lan egiten dute txandaka.

Kontuan izan behar da berdintasunaren alde lan egiteko zein elkarrizketetan hausnarketa egiteko sentsibilitatea eta alde aurretiko jarrera oso ezberdinak izan direla. Alde batetik, badira idazkariak sentsibilitate handia dutenak eta indarrean dagoen legedian sakontzeko interesa erakutsi dutenak; hauen esanetan tokiko zein eskualde mailan ekintzen planifikazioaren beharra ikusten da, kasu

bakoitzerako aurrekontu beharrak ezagutu ahal izateko. Eta, bestalde, hainbat idazkarik eszeptizismoa handiagoa izan dute prozesuarekin eta elkarrizketarekin berarekin ere bai.

Edonola ere, prestakuntza eza nabarmentzen da genero-ikuspuntua modu transbertsalean txertatzeari dagokionez. Elkarrizketatuetako idazkari bakar batek AFAk emandako oinarrizko prestakuntza batean parte hartu zuen. Oro har, ez dute emakume eta gizonen berdintasunerako erronkarekin lotzen beraiek egiten dituzten funtzioak, zeren eta idazkaritzaren eguneroko eginkizunetan generorik ez dagoela uste dute.

Elkarrizketetatik ateratako ondorioei begira, esan daiteke Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzuaz gain, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari edo indarkeria matxistaren aurka bideraturiko tokiko zein eskualde edo lurralde mailako baliabiderik ez da ezagutzen.

Aurten, 2018an, Kuadrillan indarkeria matxista kasuei aurre egiteko I. Jarduera eta Koordinazio Protokoloa diseinatu dute eta baliabide hori ez da ezagutzen udalerrri guztietan. Eta horietako gehienek ez dakite Berdintasunerako bi Plan egon direnik aurretik. Berdintasunerako egiturarik ezaren ondorio zuzena da hau, izan ere, teknikariak ez zuen lanpostu egonkorra eta jarraitua izan 2016 urtera arte.

Oro har, amatasunagatiko baimenak edo zaintzagatiko eszedentziak ez ezik, kontziliazio neurririk ez da ezagutzen. Eszedentziei dagokienez, ez dute gogoratzen norbaitek halakorik hartu duenik noizbait, bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeko aukera ematen baitizu administrazio publikoko lan ordutegiak. Horrela, pertsona batek haurrak zein menpeko adinekoak zaintzeko edo gestioaren bat burutzeko ordu batzuk behar baditu, ez dago inolako arazorik, «*beti erantzukizunez jarduten dugu*». Ordutegi malgua izateko eskubidea hartu duen edo zaintzarako baimen zehatzak eskatzen dituen gizon baten kasua ezagutzen da, baina kasu gehienetan emakumeak ohi dira.

Udal txikiagoen kasuan, langile kopurua txikia da eta ez dira % 100eko jardunaldiak, beraz, ordutegi murrizketak ez dira eskatzen arrazoi horrengatik. Adibidez, udalerrri batzuetan emakume garbitzaileek % 20ko jardunaldirako kontratuak dituzte. Arrazoi beragatik, lanpostuan mailaz igotzea ez da errealitate bat, langile finkoak direlako. Baina aipagarria da Lantziego-Bilar-Kripaneko gaur egungo idazkari nagusiak (emakumea) postu hori lortu zuela udal horietan administrari laguntzaile gisa -eta geroago administrari gisa-, hainbat urte lan egin ondoren.

Elkarrizketetan, idazkariaren eta politikarien kontziliazioaren inguruan hitz egin da. Zenbait kasutan, landa-eremuko ordutegiaren arabera dira osoko bilkurak eta ondorioz arratsaldean izaten dira ia beti, eta beste leku batzuetan pertsona guztien kontziliazio beharren arabera adosten dira, idazkari esku-hartzailearen beharrak barne. Emakumezko idazkarien artean hitz egiten da gehien bat gai horren inguruan elkarrizketetan.

Soldatak hitzarmenean (Udalhitz kasu gehienetan) adostutakoaren arabera zehazten diren arren, lanpostuak sexuarekin lotzen direla hautematen da eta, azken finean, ordainsarrietan islatzen da aspektu hau. Hau da, lanpostu feminizatuak, normalean, soldatak txikiagoak duten lanpostuekin

lotzen dira gehienetan eta lanpostu hori okupatzen dutenak kasu honetan garbitzaileak izango lirateke.

Idazkaritza lanpostuen kasuan, historikoki hauek gizonetako okupatu dituzte eta horrek soldatetan ere eragina izan du. Eta joera aldaketa ematen ari bada ere - gero eta emakume gehiago daude lanpostu hori okupatzen- errealitatea da tratamenduari dagokionez desberdinkeria dagoela. Emakume idazkariak aitortzen dute askotan ez dutela gizon idazkariak duten aginte maila berdina, ez bakarrik politikarien edo lankideen aurrean, baita herritarren aurrean ere, elkarrizketaren batean jaso den moduan. Ildo horretatik jarraituz, gizon idazkarietako batzuek uste dute idazkari esku-hartzailearen lanpostua gizon batek edo emakume batek okupatzeak eragina duela eta horren arabera modu ezberdinean tratatzen zaiela politikarien eta herritarren aldetik. *«Azkenean, lanpostuari dagozkion eginkizunek behartzen zaituzte, momenturen batean, legalki posible ez diren hainbat interes edo asmoei aurre egitea, eta gatazka egoera horietan hain zuzen ere, herritarrek, Udal langileek eta politikariek modu ezberdinean jarduten dute gizon edo emakume bat badute aurrean».*

Aitzitik, beste gizon idazkari batzuek baieztapen horren aurrean beraien ezezko tinkoa agertu dute, berdin tratatzen zaiela erantzunez.

Hizkuntza inklusiboaren erabilerari dagokionez, ondorioak oso ezberdinak dira Udalaren arabera. Zenbaitetan, barne-eta kanpoko komunikazioetako hizkuntza inklusiboa erabiltzeko saiakera egiten da, baita aktak idazterakoan ere. Emakumeen ordezkartza esparru politikoan zuzenean eragina izan zuen alderdi honetan, idazketa modua aldatu egin behar izan baita, orain arte maskulinoa izandako lengoaiak ez du balio eta.

Hala ere, udal batzuetako idazkariak aitortzen dute hizkuntza inklusiboa ez dutela ezta bandoetan ere erabiltzen. Egoera hori kontuan hartuta zenbait udalek interes handia erakutsi dute eta alderdi hori aldatu beharra dagoela helarazi dute. Idazkari batek proposatzen du hizkuntza inklusiboarekin idatzitako formularioak bidaltzea udal guztiei, hala nola, *«lanen baimena»*, adibidez.

Eskariak aurkezteko edo bestelako inprimaki ofizialei dagokienez, ez diote sexuari aipamen espliziturik egiten, bakarrik dokumentu zaharkituetan Jaun/Andre etiketa aipatzen da batzuetan. Udalaz gaindiko erakundeek (Kuadrilla, AFA, Eusko Jaurlaritza) emandako agirietan sexu aldagaia bai agertzen dela.

Idazkari batzuek berdintasunaren inguruko arauetako buruzko informazioa dute (ez guztiek, elkarrizketa berean informazioa eskatu baitute), baina orokorrean, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lankidetzan aritzeko funtzioen inguruan ezjakintasun handia dago, horregatik beharrezkoa da zerbitzu aditu bat izatea, kasu honetan, Kuadrillako berdintasun-zerbitzua, alegia.

Elkarrizketa batzuetan azpimarratu da Arabako Errioxako landa-ingurune horrek mentalitate tradizionala dela eta zeharkako ikuspegi baten bitartez bakarrik lortu daitekeela gizarte berdinezale bat lortzearen helburua. Ezaugarri horrekin batera, udal guztietako politikarien sentsibilizazio maila altua dela nabarmentzen da, eta emakume gehiago egoteak ere alderdi hori bultzatu duela jasotzen da.

Aurrekontuei dagokienez, mantentze-lanei, hornidurei eta soldatei loturiko kostu finkoak kontuan hartuta, oro har, besteak baino pisu handiagoa duten arlo teknikoak daude. Landa-eremuan garrantzi handia ematen zaie nekazaritzari lotutako alderdiei, hots, errepideen egoerari, edo kaleen urbanizazio orokorrari eta herri-lanei batik bat; beste alderdi garrantzitsuena jaiei zuzendutakoa da.

Lapuebla de Labarcako udalak kultura-arteko jardueri zuzendutako aurrekontu partidak esleitu ditu, baina, oro har, gainerako udalek ez dute Berdintasunera zuzendutako partidarik, jarduera horiek Kuadrillatik kudeatzen dira zuzenean. Berdintasunerako jardueri zuzendutako berariazko partidetatik haratago, orokorrean udalerriek ez dute genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzen, ezta kontratuen baldintzetan berdintasunezko klausularik ere.

Idazkariak sentsibilitate handiagoa erakutsi duten kasuetan, elkarrizketak beste alderdi orokor batzuk ere aztertzeko aukera eman du, esaterako, herrien berdintasun-egoerarekin zerikusia dutenak. Horrela, emakumeen exodoari buruzko gaiak bezalakoak landu dira. Batzuetan (zuzenean galderarik egin gabe ere), horren inguruko kezka transmititu da. Herrixka batzuk zahartu egin dira gazteek, eta batez ere emakume gazteek, ikasteko alde egiten dutelako eta askotan ez direlako itzultzen. Horretaz gain, azpimarratzen da mutilak eskolatik lehenago ateratzen direla neskek baino etorkizun gehiago ikusten dutelako herri horietan, «*lurrak beraien esku geratuko dira*». Alderdi hori beste eztabaida talde batzuetan lantzen da ere.

Balioen aldaketa sustatzeko premia ere jasotzen da, emakumeek «*ama direnean emakume izateari utz ez diezaioten*» edo gizonezkoek ez dezatela pentsa «*haurrak ikastolara eramatea egokitu zaiela, hori beren lana izango ez balitz ere*».

Eta, bestalde, hainbat elkarrizketetan kulturarteko elkarbizitzarekin loturiko kezka agertzen da. Portugalgo eta Marokoko biztanleria kopurua handia da eta «*emakumeak ez dira integratzen, batzuetan senarren beldurrez*». Tokiko biztanleriaren eta biztanle etorkinen arteko deskonexio garrantzitsua dago. Oro har, «*tolerantzia faltua*» dago, non jendea migratzaileekin arazorik ez dutela erantzuten duten, baina elkarrizketa batzuetan azpimarratu egiten da diskriminazio hori xehetasunetan hautematen dela, «*gutxiago ordainduko zaie, ez dira pertsona berdinak bezala kontuan hartuko*».

Oro har, berdintasunerako borroka beharrezkotzat hartzen da eta, ondorioz, berdintasun-zerbitzua funtsezkotzat ikusten da. Gizarte patriarkal batean bizi garela uste dute batzuek, eta hori erakundeetan ere islatzen da; baina borroka egon badagoen arren, erakundeek desberdintasunak erreproduzitzen jarraitzen dute. Kontzientziazio, sentsibilizazio eta informaziorako etengabeko lana beharrezkoa da jende askok orokorrean gaiari buruz informatuta ez dagoelako eta ezjakintasun horrek aurreiritziak eragiten dituelako.

TOPAKETA PARTE-HARTZAILEAK HERRITARREKIN

Bi topaketa parte-hartzaile ospatu ziren herritarrekin Arabako Errioxako Berdintasunerako III. Plana egiteko abiatutako prozesua sozializatzeko asmoz. Lehenengoa Eltziegón izan zen eta bigarrena Oyón - Oionen. Guztira 28 pertsonak parte hartu zuten, horietatik 3 gizonak zirelarik. Topaketak berdintasunerako plan bat prestatu behar diren inguruko aurkezpen batekin hasi ziren, baina bi topaketen emaitza ezberdina izan zen. Lehenengoan, emakume parte-hartzaileek beren esperientzia pertsonalak partekatzeko eta bizitako diskriminazioen inguruan eztabaidatzeko aukera ikusi zuten topaketan. Planerako proposamenik ez zen jaso, baina emakumeen ahalduntzean, bai pertsonalean baita kolektiboan ere, lan egin behar dela agerian geratu zen.

Bigarren topaketak hiru taldetan lan egiteko aukera eman zuen, eta esku-hartze ardatzak aintzat hartuz emakumeen eta gizonen egoerari buruz hautemandako pertzepzioak partekatu ziren, eta ekintzak proposatu ziren ere bai. Taldeetan ez zen gobernu onaren inguruan sakondu, arlo horretan eztabaida-talde guztietan lan egin baitzen aurretik eta herritarrengan hurbilen dauden neurriak ardatzetan jasotzen direnak direlako.

Ordura arte egindakoa eta topaketen helburuak azaltzeko baliagarri izan zen Power point bat ikusi ondoren, arlo bakoitzean aurkitutako mugak eta desorekak edo bazterkeria egoerak identifikatzen saiatu ziren parte-hartzaileak, eta, ondoren, egoera horiek arintzeko proposamenak edo neurriak jaso ziren.

Laburbilduz, topaketetan bildutakoa honako hau izan zen:

1. ARDATZA. Emakumeen ahalduntzea

Bi eremu bereizten dira:

- ✓ Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa laguntzea
- ✓ Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoa laguntzea

MUGAK / PREMIAK. Oztopo garrantzitsuena eta errotuena da gizonen ahotsak falta direla bizitzako esparru askotan: kultura, hezkuntza, osasuna, kultura, gizartea, eta abar., non beti emakumeak aurkitzen ditugun lan egiten; aitzitik, emakumezkoen ahotsak falta dira tradizionalki gizonazkoak izan diren espazioetan, esate baterako, kirola, politika, hirigintza, ekonomia. Funtzioek genero-estereotipoak mantentzen dituzte.

Aldaketa izugarriak izan dira, eta, itxuraz, gauzak aldatu egin dira, baina oraindik ere asko dago egiteke emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortu nahi badugu. Aldi berean, herrietan individualismo handia eta erantzukizunik eza nabarmentzen da, beti parte hartzen baitute berdinek, eta normalean, emakumeak dira.

Gainera, «etxe barruan» errealitateak pribatua izaten jarraitzen du, bikoteak adosten dituzten itunak ezezagunak dira eta emakumeek autonomia ekonomikoa edo erabakitzeak askatasuna badute, «mundu pribatu» horretan da. *«Herrietan tabuak daude eta oraindik ezin da hitz egin gai batzuen inguruan».*

Bestalde, haurrak eskolaz kanpoko jarduerekin ginkargatuta daude, eta familien lanaren saturazioa eragiten du horrek, batez ere amei dagokienez, eta, azkenean, guztiok «larri». *«Gainera, asko kontsumitu behar duzu eta horretarako gogor lan egin behar duzu eta ez daukazu denborarik. Eta jadanik ez da ez josten ez adabakiak jartzen ere, eta emakumeek lehen egiten zuten ezer ez da egiten ere, beraz, gehiago erosi behar dugu (ez bakarrik gauzak, baita ere zerbitzuak, etxeko laguntza, ... edo aiton-amonak ...)»*

AUKERAK / PROPOSAMENAK. Topaketetan hautemandako mugak eta beharrak kontuan hartuta, ondorengo neurriak proposatzen dira:

- Partaidetza sustatzea arlo guztietan, ez soilik arlo politikoan. Entitate guztietako zuzendaritza arloan emakume zein gizon kopuru berdina egon dadin: Gurasoen Elkarteak, elkarte kulturalak, ...
- Emakumeak sentsibilizatzea tradizioz femeninotzat hartu diren etxeko zein kanpoko aferak delegatu behar direla (jaietan ere intendentziaz arduratzen dira).
- Prestakuntzak antolatzea: gizonezkoek arlo soziokulturalean eta zainketan parte hartzeko, eta emakumeek beren autoestimua indartzeko; baita prestakuntza zehatzak ere, adibidez, hirigintzan, mugikortasunean edo aurrekontuetan emakumeek parte hartzeko.
- Beste lidergo mota batzuk bilatzea: prestakuntza horretarako beharrezkoa da.
- Emakumeek egin duten eta egiten duten zaintza-lana bistaraztea eta lan horrek merezi duen balioa ematea. Beharrezkoa da diruaren bitartez ezin bada zenbatu, behintzat emakumeek egindako eta egiten jarraitzen duten lan guztiak ezagutzera ematea.
- Kalean emakumeen presentzia sustatzea, martxoaren 8an gertatu zen bezala. Horregatik, garrantzitsua da emakumeentzako, eta hauek topatzeko eta hausnarketak egiteko espazioak sortzea, elkarrizketetan arruntak ez diren gai guzti horiei buruz hitz egiteko, hau da, pribatuak diren gaiak, baina aldi berean beharrezkoak direnak tabuak ezabatzeak asmoz.
- Belaunaldi-arteak topaketak sustatzea emakumeok elkarrekin ikasteko.
- Belaunaldi-arteak espazio hauek emakume eta gizonei irekitzea, zaintzarekin zerikusia duten balioak eta ezagutzak galtzen hasi garelako, baita landa-eremuarekin, lurrarekin eta bizimoduarekin zerikusia duten jakintzak ere.

- Lurraren jasangarritasunari eta zaintzari garrantzi handiagoa ematea, planteak zaintzeko bizitza zaintzearen ideiarekin bat egiten baitu.
- Komunitateko zerbitzu sistemak sustatzea bizi-kalitate hobea izateko.

2. Areatza. Ekonomia eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko. Zaintzen kultura eta antolamendu berri bat.

MUGAK / PREMIAK. Nekazaritza mundua gizonezko mundua da oraindik ere eta emakumezkoek oztopoak dituzte arlo horretan sartzeko. Lan-merkatuan emakumeen sarbideari dagokionez bilakaera bat sumatu da, baina sektore oso zehatzetan gertatu da, esate baterako, turismoan edo zainketan, non emakume migratzaileak kontzentratzen diren. Topaketetan emakumeen exodoaren gaia azaleratzen da, eta parte-hartzaile batzuen esanetan, lan egonkorra duen bikote bat dutelako itzultzen dira gaztetan ikastera eskualdetik alde egin zuten emakumeak; besteak ez dira itzultzen.

Hortaz, balore aldatuta funtsezkoa da aukera berdintasuna lortzeko, eta, beraz, ikastetxeen lana garrantzitsua da, nahiz eta ikastetxe publikoetan irakasleak etengabe aldatzen diren (Oyón - Oion oso urrun dago Euskadiren mapan, eta lekualdatzeak ohikoak izaten dira) eta zaila da hezkidetzaren lanarekin denboran aurrera egitea. Era berean, Gurasoen Elkarteak ez daude momentu on batean, eta haien sustapena eta bultzada beharrezkoa dela jasotzen da topaketan, batez ere, aiten parte-hartzeri dagokionez.

Bestalde, denbora librearen erabilerari buruz hitz egiten da topaketetan. Parte-hartzaile guztiek pentsatzen dute emakumeek ez dutela denbora librerik etxeko lanen eta ordaindu gabeko zainketaren arduradunak direlako gehien bat. Guzti horri, mugikortasun geografikoaren zailtasuna gehitu behar zaio. Jolastoki publikoen beharra dagoela uste dute, eta gaur egun ez badira existitzen, emakumeek behar duten autozaintzari, eta orokorrean zainketari, balioa ez zaiolako ematen da, hau da, erakundeek ez diote lehentasuna ematen alderdi horri.

AUKERAK / PROPOSAMENAK. Topaketetan identifikatutako mugak eta beharrak kontuan hartuta, ondorengo neurriak proposatzen dira:

- Emakumeei nekazaritza munduan lan egiteko aukera ematea. Landa-eremuko lana kualifikatua izan behako luke.
- Berdintasun-zerbitzutik ikastetxe publikoei aholkatzea, hezkidetzaren txertatzeko.
- Hezkidetzaren foroak sortzea edo mantentzea.
- Mutikoak ikasten jarrai dezaten animatzea bereziki herri txikietan.
- Jolastokiaren sortzea bultzatzea udalerritan handienetan.

- Zainketan pertsonen inplikazioa bilatzea. Zainketa kolektiboa edo lankidetzaren bitartekoa sustatzea.
- Oyón-Oiongo gazteen zentroa mantentzea (Gazteleku). Bi hezitzaile daude, biak emakumeak.
- Gurasoen Elkarrekin lan egitea, ikastetxeetan zainketa baloratzea eta aiten partaidetza sustatzea.
- UAGAK eta HAZIk beren prestakuntzetako edukien barne berdintasuna txertatu dezaten proposatzea.
- Eskualdeko enpresek kontziliazio neurriak sustatu ditzaten bultzatzea.

3. ARDATZA. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

MUGAK / PREMIAK. Topaketetan gazteenganako kezka nabarmena da, estereotipoak errotuta daude, komunikabideetan eta sare sozialetan oraindik transmititzen diren balioak direla eta. Hori dela eta, balioak aldatzea funtsezkoa da, atzerapausoak ekiditeko.

Baina topaketetan indarkeria kultural eta sinbolikoan zentratzen da eztabaida. Horrela, jaietan neskek pairatzen dituzten errespetu faltaz hitz egiten dute parte-hartzaileek, esate baterako, espazioaren inbasioa, bigantxetan ukondoak, tabernetan neskek pairatzen duten jazarpena gizon mozkorren aldetik, eta abar.

Orokorrean hezteko moduari buruz eztabaidatzen da ere bai: mutilei lehiakortasuna irakasten zaie, indarkeria eta bortizkeria sustatuz.

AUKERAK / PROPOSAMENAK. Topaketetan hautemandako mugak eta beharrak kontuan hartuta, ondorengo neurriak proposatzen dira:

- Eskoletan irakasleei zuzendutako prestakuntza eskaintzea.
- Ikasleei eta familiei zuzendutako tailer edo hitzaldi pedagogikoak sustatzea indarkeria matxista prebenitzeko.
- Biztanleei zuzendutako tailer espezifikoak antolatzea.
- Jaietako programa genero-ikuspegiarekin sustatzea.
- Hitzaldi politikoetan indarkeria matxista indargabetu dezaten sustatzea, adibidez, jaietako pregoietan.
- Hizkuntza eta irudi ez sexista erabiltzea erakundeen aldetik.

EBALUAZIOAREN ETA DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK

Balorazio orokorra

Arabako Errioxako Kuadrillan berdintasun-zerbitzu egonkorra existitzen denez geroztik, zehazki 2016ko azaroaz geroztik, jarduera ugari egin dira eskualde eta udal mailan. Hala eta guztiz ere, Berdintasunerako II. Plana ez da guztiz baliagarria izan berdintasun-teknikariarentzako, batetik, bere elaborazioan ez zuelako parte hartu, eta bestetik, zerbitzura iritsi zelako Planaren iraunaldia amaitzeaz zegoenean.

Izan ere, berdintasun-teknikaria urtero prestatutako plan operatiboen arabera antolatu da. Horretarako, AFAREN aholkularitza jaso du, Laia Eskolaren eta Berdinbidean - Arabako udalerrirentzako aholku-zerbitzuaren esparruan batez ere ekimen partikularrak izan dituelarik. Berdinbideanek berdintasun-teknikarekin ere lankidetzan aritu da gobernantzarako neurriak sustatuz batik bat. Nolanahi ere, jarduera gehienak Arabako Errioxako zinegotziek, alkateek, zein elkarteek proposaturikoak izan dira.

Diagnostikorako prozesua eskualdeko berdintasun-teknikariarekin izandako elkarrizketa pertsonalarekin amaitu zen. Beraren esanetan aurtengo zailtasunik handiena lanaren aintzatespen eta ikusgaitasun falta izan da, mota honetako berdintasun-zerbitzuetan islatzen den pertzepzio komun bat delarik hau, batez ere hasieran. Aitortza falta hori aurrekontuetan eta politikarien parte hartze txikian islatzen den oztopoetako bat da, baina prestakuntzarik eta koordinazio egitura zehatzik ez egotearen zuzeneko ondorioa da. Kontuan izan behar dugu berdintasunerako bi planak izan badira ere, ia inolako eraginik izan ez dutela eta ingurunean hautematen da eskualde honetan zerotik hasi beharra dagoela.

Sentimendu hori iraunkorra izan da prozesu osoan zehar politikariekin, teknikariekin, elkarteekin... izandako eztabaida taldeetan. Beraz, ekintza zehatzak bilduko dituen III. Plana ziurrenik koordinatutako eta antolatutako lanaren abiapuntua izango dela. Izan ere, eta zalantzarik gabe arrazoi beragatik, talde batzuek edo, batez ere, pertsona batzuek, gehienak emakumeak, orain existitzen den berdintasun-zerbitzu baten zain zeudela helarazi dute, bereziki gazteen kolektiboen edo berdintasun-teknikariak ia hasieratik bultzaturiko berdintasunaren aldeko foroan modu indibidualen parte hartzen duten emakumeen esanetan.

Azken alderdi, hau da, hemendik aurrera aliantza bikainak izan daitezkeen pertsonak, elkarteak edota hezkuntza zentroak izatea, Arabako Errioxako aldetaren aldeko aukera paregabek hartzen da. Horrez gain, zenbait ikastetxeetan hezkidetzak programazioa edota sexualitate tailerrak sustatu dituzte Emaizerekin. Horren bitartez 4 saio egiten dira talde bakoitzean, ikasle, guraso eta irakasleekin.

Beste aliantza bat izan daiteke kultura-artekotasunerako lan egiten duen Bitartean Jolasean Elkartea. Berdintasun-teknikariak Oyón-Oiongo Partaidetzarako Mahaian parte hartzen du, eta aurreko elkarte horrek eskualde mailan berdintasuneko programak garatzen hasi da ere AFAREN

laguntzarekin. Hala ere, beharrezkoa da generoaren ikuspuntutik prestakuntza sakontzea, kultura-artekotasunaren alorrean sustatzen dituzten ekintzak kontuan hartuta. Izan ere, berdintasun-teknikariarekin koordinatzea beharrezkoa da, ez bakarrik genero-ikuspegia txertatzeko, baita beste jatorri batzuetako eta diskriminazio anitza jasaten duten emakumeekin aliantzak sortzeko ere.

Esan bezala, Kuadrillako jardueri zuzendutako aurrekontu partida ia sinbolikoa da, 1.000 euro inguru. Udalei dagokienez, batzuek ekarpenak egiteko prest daude, baina diru-laguntzaren araberakoa izango da ekarpen hori, aurrekontu totalaren gutxieneko % 10eko ekarpena eskatzen baitute laguntzen duten erakundeek. Hau da, diru-laguntzarik ez badago, aurrekontu ekarpenik ez dago.

Indarkeria matxistaren inguruko prestakuntzarik eza ere agerikoa da. Oraindik sinatu ez den erakundeen arteko Jarduera eta Koordinazio Protokoloa duela gutxi egin dute, baina berdintasunerako III. Planarekin alderdi batzuk indartu beharko dira, batez ere, adierazpen publikoei edo jarduera-ibilbideei dagokienez. Alderdi horiek argitu egingo dira Protokoloaren koordinazio mahaiak funtzionatzen hasterakoan.

Oro har, esan daiteke eskualde mailan berdintasun-zerbitzua dagoenez geroztik gauzak pixkanaka aldatzen ari direla, nahiz eta moldeak eta administrazioaren kultura zaharkituak dauden eta sailen arteko koordinaziorako egitura ez dagoen ingurune bat izan hau. Aukera bikainak daude aliantzak existitzen direlako, eta horiek kontuan hartu eta baloratu behar dira bidaia luze berri horri ekiteko.

Jarraian, jarduera arloak aintzat hartuz, ebaluazio eta diagnostikoan ateratako ondorio batzuk aipatzen dira:

GOBERNU ONA:

Konpromiso politiko sendoa bultzatu behar da eskualde mailan. Zalantzarik gabe aliatu politikoak daude, baina ezinbestekoa da politika publikoek konpromiso irmoa izatea. Horretarako, sentsibilizazioa eta prestakuntza oinarritzako dira. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da bakarrik 4 alkate daudela liberatuak beren kargu politikoari dagozkion eginkizunak betetzeko eta gainerakoek lan politiko eta bestelako lana bateratzen dutela. Hori dela eta, legegaldiaren hasieran berdintasunaren inguruko derrigorrezko prestakuntza-saioak ezartzea III. Planean sartu beharreko neurri bat izan daiteke, baina garrantzitsua da udalerrri handieneko lau alkateekin lan egiten jarraitzea, gainerako udalerrientzako eredu izan daitezen. Prestakuntza konpromisoan bilakatzen da, horregatik lan pedagogikoak garrantzia itzela du.

Gobernu ona sustatzeko neurriak funtsezkoak dira, izan ere, politikariek eta teknikariek aukera berdintasunean elkarbizitzaren eredu baitira. Zentzu honetan kontraesan garrantzitsu bat dago eta kasu honetan berdintasun-teknikariaren lan-baldintzekin zerikusi zuzena du.

Gainerako teknikariei dagokienez, prozesu osoan beraiek onartu duten bezala, prestakuntza beharra nabarmentzen da. Idazkari batzuek prestakuntza saio edo bileretan parte hartzeko borondatea agertu dute ere bai. Izan ere, partaidetzako prozesu horrek idazkari batzuek

berdintasun-teknikariarekin harreman hurbilagoa izatea sustatu du eta berdintasunerako klausulei buruz galdetu diote edo langileen hautaketarako epaimahaietan parte hartzeko eskatu diote, esaterako.

Era berean, diagnostiko honetarako antolatutako eztabaida taldetako batean, sail arteko koordinaziorako egiturak sortzeko beharraren inguruan eztabaidatu zen, eta ekainean lehenengo bilera ospatu zuten, berdintasun-teknikariak dinamizatuta eta ia arlo guztiak bertaratu ziren (gerentzia, ingurumena, animazio soziokulturala, komunikazioa, euskara, sustapen ekonomikoa, administrari laguntzailea). Erabaki garrantzitsuak hartu zituzten, hala nola, bilkura horien aldizkakotasuna, hots, hileroko ordu eta erdi bateko bilera izango dela adostu zuten. Bilera horietan arlo bakoitzeko gairik garrantzitsuenak zeharkakotasunez tratatuko dira. Hori dela eta, prozesu honetan sortu den beste aukera bat izan da honako hau, berdintasunerako III. Planean gardentasuna sustatzeko eta Administrazioaren funtzionamendua aldatzeko neurriak proposatu ahal izateko balioko baitu.

Sail arteko bilera hori sustatu eta antolatzeko, berdintasun- eta ingurumen-zerbitzuen arteko konplizitatea garrantzitsua izan da. Bi arloek zeharka egin behar dute lan eta koordinazioa optimoa da. Ingurumen teknikariak Agenda 21 koordinatzen du ikastetxeekin eta Udal batzuekin.

Garrantzitsua da ere koordinazio-kanalak sortzea gizarte-zerbitzuekin. Indarkeria eta familia alorreko langileak askotan egiten du lan berdintasun-arloarekin, besteak beste, Protokoloaren eta honako diagnostikoaren bidez, baina gizarte-zerbitzuetako eztabaida taldean langile batzuek trebakuntza berezia eskatu zuten berdintasunean. AFAk prestakuntza espezifiko eskaintzen du Gasteizen (beste arlo batzuetan ere), baina kuadrilla hori geografikoki urrun dago eta parte-hartzea zaila da. 15 laguneko talde bat lortzekotan, AFAk prestakuntza lekuz aldatuko luke, baina zaila da lortzea kopuru handi hori. «Prestakuntzazko pilulak» formatua koordinazio bileretan txertatzea aukera bat izan liteke.

Herritarren parte hartzeari dagokionez, Oyón-Oion izan ezik, non elkarte-egitura zabalagoa den, herri handietan oso urria da. Udalerrietan partaidetza sustatzeko tresnarik ez dago. Berdintasun-teknikariak Diputazioak eskainitako partaidetzari buruzko prestakuntza jaso zuen, baina ez zen nahikoa izan.

Duela urtebete teknikari horrek sustatu zuen berdintasunerako foroa, non hilean behin 12 emakume elkartzen diren, aukera paregabea da. Talde hori whatsapp bidez ere komunikatzen da. Data sinbolikoen inguruko ekintzak adosteko tresna erabilgarria da foroa, baina baita etorkizunari begira jarduerak planifikatzeko ere. Hala ere, bestelako elkarteen kideek parte har dezaten interesgarria litzateke Kontseiluak baliozko eta legezko organoa izateko, eta modu horretan indar handiagoa lortzeko.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA:

Lurralde mailan programaturiko jarduera guztiak batzen dituen tresna edo esparru orokorra da Laia Eskola. Programazioa Arabako kuadrilla guztietako berdintasun-zerbitzuei dagokie. Laia Eskolaren esparru horren baitan AFAk proposaturiko jarduera batzuk ere sustatzen dira, esate baterako, Irakurketa Klub Feminista, denboran zehar parte hartze egonkorra eta etengabekoa bultzatzen duena. Ekintza mota horiek berdintasun-teknikariaren esanetan estrategikoak dira, eta ez, ordea, hitzaldiak edo tailer espezifikoak.

Aipatzekoa da Oyón-Oiongo emakume gazteentzako 2018ko udararen zehar La Furiaren eskutik ospaturiko '**Rap laborategia**'. Oyón-Oiongo San Bizente ikastolak sustatutako ekimen hori La Furiako abeslariarekin batera DBHko 3. eta 4. mailako neskekin buruturiko saio batekin hasi zen ikastolan bertan. Ondorioz, hasiera batean 10 neskekin osaturiko lan talde bat sortu zen. Azkenean tailerrean aktiboki 14 eta 16 urte bitarteko 6 gaztek bakarrik parte hartu bazuten ere, talde hori bere inguruko beste neskeentzako erreferente izan daitekeela uste da.

Abeslariak berak dinamizaturiko tailer horrek bost eguneko iraupena izan zuen, hiru orduko saio egun bakoitzeko; ondoren, taldeak abesti bat garatu zuen eduki feministarekin. Asebetetze maila handia izan da, eta abesti horrekin bideo klipa egitea aintzat hartzen daude. Izan ere, litekeena da tailer hori hilabete batzuk gehiago jarraitzea.

Irakasle, guraso eta ikasleekin osaturiko San Bizente ikastolako Hezkidetza Batzordearen barruan kokatu behar da «**Rap Laborategia**». Batzorde horrek harreman estua izan du tailerrean parte hartu duten neskekin. Beraz, Oyón-Oiongo San Bizente ikastola bezalako zenbait ikastetxek hezkidetza prozesuak garatzearen alde egiten ari diren lanaren emaitza besterik ez da adibide hau.

Ikastetxe batzuk, hala nola, San Bizente ikastola, ibilbide garrantzitsua ari dira egiten hezkidetza arloan, eta nesken jabekuntzan eta mutilen desahalduntze» delakoan ari dira lanean, generoaren araberako dinamika toxikoak sortzen ari baitziren.

Hori dela eta, aurrerapausoak eman dira, baina oraindik asko geratzen da egiteke.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO:

Haurrak zaintzeko baliabideak falta dira, esate baterako, ludotekak, gaztelekuak ... Horrez gain, diagnostikoaren zehar behin baino gehiagotan azpimarratu da eskualdean, maskulinitasun hegemonikoa inguruneetako beste leku batzuetan baino nabarmenagoa dela, eta, ondorioz, lanaren banaketa sexuala sustraituta dago. Gizonek ez dute bere arduratzat hartzen haurren edo mendeko adinekoen zaintza. Horregatik, maskulinitate berrien inguruan lan egiteko behar handia hautematen da.

Era berean, oraindik ere gidatzen ez duten emakumeak daude eta senarren mende daude mugitzeko. Gainera, garraio publikoa ez da kalitate handikoa; nahiz eta herri handietatik igarotzen diren Vitoria-Gasteiz eta Logroño arteko lineak sendotu diren, ia ez dago garraio publikorik eskualdeko herri txikien artean.

Ikusteke dago Kuadrillan beste garraio kolaboratibo mota bat sustatzea posible den ala ez, ibilgailua partekatzeko edo taxien erabilera partekatu bat sustatzeko boluntarioen sare baten bitartez, esaterako.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK:

Oro har, jendearen sentazioa da herriak seguru direla. Erasoren bat gertatzea kalean ez da ezta imajinatzen ere ez. Hala ere, protokolo berrian, prebentzioaren eta sentibilizazioaren alorra ez dago txertatua, ezta ere protokolo sozialari bideraturiko atalik. Indarkeriaren aurrean jarduteko ibilaldi ikusgai eta eskematikorik ere ez dago. Protokolo hori 2015ean Arabako Errioxan buruturiko indarkeria matxistaren inguruko diagnostiko azterketa baten emaitza da. Baina egoeraren diagnostikoa teknikariekin modu parte-hartzailean elaboratzerakoan, teknikoki, politikoki zein herri mailan eskuragarri dagoen informazioa urria dela baieztatu egin da. Zenbaitek jakinarazi dute « kasu batzuei buruzko informazioa dutenean komunikabideen bidez izan dela».

Gai hori beti zaila da, datuak gutxi gorabehera ezagutzen baitira. Konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren alderdiak kontuan hartu behar dira, horrela, emakume batek ez badu nahi, adibidez, Ertzaintzak bere kasua jakinaraztea Gizarte Zerbitzuei, informazioa ez da igorriko. Baina beste eskualde batzuetan, nahiz eta datu pertsonalak ezin partekatu zenbait kasutan, datu kuantitatiboak Mahai Teknikoetan partekatzen dira, beraz Gizarte Zerbitzuek jakingo lukete zenbat kasu artatu diren poliziaren eskutik eta alderantziz.

Datuak ezin dira inoiz erabat tratatu, izan daitekeelako Ertzaintzak tratatutako kasu batzuk Gizarte Zerbitzuetan tratatuak izatea ere, edo alderantziz, eta biktimaren baimenik ez badago, datu horiek ezingo lirarteke kontrastatu, baina nahiz eta biktimaren baimenik zein koordinazio edo informazio transferentziarik egon ez izan, datu kuantitatiboek beti errazten dute eskualde eta herrietako benetako egoera hobeto ezagutzen.

Ikastetxeen kasuan, Gizarte Zerbitzuekin harremanetan haiek jarriko lirarteke arrisku egoeraren bat jakinarazteko.


Bestalde, Gurutze Gorriak zerbitzu sozialekin koordinazioa mantentzen du ATEMPRO (genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra) zerbitzuaren arreta eta kudeaketa egiteko. Horrez gain, Ertzaintzarekin hitzarmen bat sinatu dute genero-indarkeriaren prebentzioaren inguruko prestakuntza emateko teknikariei.

Baina indarkeria matxistaren aurkako arloan, garrantzitsua da indarkeria kultural eta sinbolikoari aurre egitea, eta indarkeria hori gertatzen den espazio ohikoena jaietako da. Testuinguru horretan, FARAPIk Oyón-Oion eta Bastidan tailerrak eskainiko ditu. Tailer horiekin jaietan ematen den espazioaren okupazioa aztertzen da. Guardian, esate baterako, jaietan hainbat egunetan bigantxak daude, sinbolikoki gizonak jaietako espazioa okupatzen dutelarik korrika egiterakoan. Ikusleei dagokienez (atarietan, balkoietan, leihoetan) bai emakumeak baita gizonak ere parte hartzen dute.

Bestalde, Oyón-Oionen Patroien dantzarekin lotutako gatazka bat dago, «alarde txiki» bat, bertan bi talde baitaude, bata tradizionala (gizonezkoek bakarrik dantzatzen dute) eta bestea mistoa (emakumeek eta gizonak dantzatzen dute).

Berdintasunerako III. Planak sentsibilizazio eta prebentziorako neurriak bildu ditu, txosten honetan jasotako guztia kontuan hartuta.

guardia arabako errioxako
berdintasunerako plana



planigualdad
laguardiarioriojaalavesa

**GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLAKO
BERDINTASUNERAKO III. PLANA**

GUARDIA - ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA, 2019-2022

Metodologiaren alorrean azaldu bezala, diagnostikoan parte hartu duten pertsonen txostenak eta zirriborroak irakurtzeko aukera izan zuten, bertan zuzenketak eta ekarpenak egin ahal izateko. Teknikari, politikari, idazkari eta kontu-hartzaile batzuk berdintasun-teknikariarekin edota AZ Participación enpresako taldeko kideekin harremanetan jarri ziren, aldaketak proposatu eta txertatzeko.

Egoera elkarlanean aztertu eta diagnosis egin ondoren, Kuadrillako Berdintasunerako III. Plana egiteaz arduratu den berdintasun-talde teknikoak behin betiko plana hezurramitzen lagunduko zuten ekintzen zerrenda atera zuten, eztabaida-taldeetan, elkarrizketetan eta topaketetan bildutako proposamenak oso aintzat hartuta.

Azken proposamen hori eskuartean, talde sustatzailea laugarrenez eta azkenekoz bildu eta ekintzak lehenesteko adostasuna erdietsi zuten. Ildo horretan, erabili beharreko kontzeptuak, epeak eta parte hartuko zuten sailak erabaki zituzten. Talde sustatzaileko ia kide guztiek hartu zuten parte bileran; zehazki, 6 emakumezko eta 3 gizonezko (gehi AZParticipación enpresako bi teknikari), eta Planaren atal bakoitza era aktiboan landu eta adostu zuten. Bertaratutako lagun guztiek egin zituzten proposamenak. Kuadrillako lehendakariak ez zuten bilera horretan parte hartzerik izan eta gerenteak hartu zuten beraren lekua.

Azkenean, berdintasun-teknikariarekin egindako azken bileran udal jakinak eta ekintza zehatzak elkarren artean lotu zituzten, ezinezkotzat jo baitzen ekintzetako batzuk 15 udalerrietan burutzea. Ekintza gehienek eskualde-mailako eragina izango dute; izan ere, Kuadrilla orotarikoa denez, ekintzak zehaztu eta politikarien nahiz teknikarien lana errazten da horrela.

Era eskematikoan, Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak lau urteko iraunaldia izango du eta honako jarduera-esparru hauetan antolatuko da:

- GOBERNU ONA
- I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO
- III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Urtean gutxienez **12.000 euroko** aurrekontua aurreikusten da.

GOBERNU ONA

I. PROGRAMA	KONPROMISO POLITIKOA
1. helburua	Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.
2. helburua	Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortu eta indartzea.
II. PROGRAMA	BERDINTASUNEAN GAITZEA
3. helburua	Herri-erakundeetako langile guztiak, langile politikoak barne, trebatzea.
III. PROGRAMA	LAN PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA
4. helburua	Genero-ikuspegia txertatzea estatistiketan, azterketetan eta hautatze-prozesuetan.
5. helburua	Berdintasuna txertatzea herritarrekiko komunikazio zuzenean eta zeharkakoan.
6. helburua	Berdintasunerako klausulak ezartzea kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan.
IV. PROGRAMA	KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA
7. helburua	Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.
V. PROGRAMA	DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA
8. helburua	Genero-ikuspegia txertatzea partaidetzarako eta kontsultarako esparruetan.

GOBERNU ONA

I. PROGRAMA. KONPROMISO POLITIKOA	
1. helburua. Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea	
BG.I.1.-1.- Guardia- Arabako Errioxako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana onartzea eta Kuadrillako webgunean argitaratzea.	URTEA: 2018
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: III. Plana onartzea; webgunean argitaratzea
BG.I.1.-2.- Eskualde-mailako berdintasun-alorreko urteko plan operatiboak onartzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: Berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako ekintza kopurua
BG.I.1.-3.- Urteko plan operatiboak ez ezik, Berdintasunerako III. Plana ere ebaluatzea, iraunaldia amaitzen denean.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna; Kuadrillako Batzarra
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako ekintzen kopurua
BG.I.1.-4.- Eskualdean aurrekontuaren partida bat onartzea eta udal bakoitza dagokion ekarpena egiteaz arduratzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: gerentzia, lehendakaritza; alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: aurrekontu-partida eta zenbatekoa
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak	
2. helburua.- Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortu eta indartzea	
BG.I.2.- 1.- Eskualdeko berdintasun-zerbitzuari eutsi eta indartzea, berdintasun-alorreko berariazko eta nahitaezko prestakuntza duen berdintasun-teknikariaren postua sortuz, lanaldi osoan.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: gerentzia; lehendakaritza
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: berdintasun-postuaren lan-baldintzen bilakaera
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla	

BG.I.2.- 2.- Legealdi bakoitzaren hasieran udal guztietan berdintasun-zinegotzitza sor dadin bultzatzea.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: berdintasun-zinegotzitza duten udalen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: udal guztiak
II. PROGRAMA. BERDINTASUNEAN GAITZEA	
3. helburua. Herri-erakundeetako langile guztiak, langile politikoak barne, trebatzea	
BG.II.3.- 1.- Arlo guztietako teknikariei zuzendutako prestakuntza ahalbidetzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna; sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: burututako prestakuntza-ekintzen kopurua; partaideen kopurua, sexuaren arabera bereizita
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
BG.II.3.- 2.- Legealdi bakoitzaren hasieran eta eskaera egiten denean, politikariei zuzendutako prestakuntza ahalbidetzea.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzat, berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saioen kopurua; partaideen kopurua sexuen arabera, eta udalen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.II.3.- 3.- Berariaz oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileei zuzendutako prestakuntza eskaintzea.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, gizarte-zerbitzuak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saio kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
BG.II.3.- 4.- Langile guztiei zuzendutako prestakuntza, berdin politikariei nahiz teknikariei, hizkera inklusiboaren inguruan.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saio kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.II.3.- 5.- Udal guztietako idazkaritzetara eta kontu-hartzaitzetara zuzendutako prestakuntza, berdintasun-legen ezarpenaren inguruan.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, idazkaritzak, kontu-hartzaitzeta
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saio kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera

	KUADRILLA / UDALAK: udal guztiak
BG.II.3.- 6.- Euskarazko hizkera inklusiboaren inguruko prestakuntza bultzatzea.	URTEA: 2021
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, lanean euskara erabiltzen duten teknikari guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saio kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
BG.II.3.- 7.- Teknikariek prestakuntza lanorduetan hartu ahal izatea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, gerentzia
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: lanorduetan egindako prestakuntza-ekintzen kopurua, partaideen kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
III. PROGRAMA. LAN PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	
4. helburua. Genero-ikuspegia txertatzea estatistiketan, azterketetan eta hautatze-prozesuetan	
BG.III.4.- 1.- Herritarrei zuzendutako administrazioaren inprimakietan sexuaren aldagaia txertatzea.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, administrazioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: sexuaren aldagaia txertatua duten inprimakien kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.III.4.- 2.- Sail guztietan sexuaren arabera bereizita biltzea datuak.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2020an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: datuak sexuaren arabera bereizita biltzen dituzten sailen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
G.III.4.- 3.- Kuadrillako eta udaletako sarbiderako eta sustapenerako hautapen-prozesu guztietan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2020an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: gerentzia, idazkaritzak, kontu-hartzaitzak

	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: berdintasunari buruzko edukiak txertatuta dituzten hautapen-prozesuen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
5. helburua. Berdintasuna txertatzea herritarrekiko komunikazio zuzenean eta zeharkakoan	
BG.III.5.- 1.- Hizkera teknikoari buruzko gidaliburua helaraztea sail teknikoei.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: gidaliburuaren kopurua, gidaliburua jaso duten sailen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.III.5.- 2.- Webgunean hizkera eta irudi inklusiboak erabiltzea.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2019an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: hizkera inklusiboa erabiltzen ez duten sarreraren kopurua
BG.III.5.- 3.- Herritarrei zuzendutako bando eta jakinarazpenetan hizkera inklusiboa erabiltzea.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2019an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: idazkaritza, kontu-hartzaitzak, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: hizkera inklusiboa ez duten bandoen kopurua
BG.III.5.- 4.- Udal guztiei hizkera inklusiboan idatzitako agiri/inprimaki estandarrak helaraztea (adibidez, obra-baimenak, errolda, eskaerak...).	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2019an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, administrazioa, idazkaritza, kontu-hartzaitzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: sortutako agiri/inprimaki kopurua, agiriok jaso dituzten udalen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak

6. helburua. Berdintasunerako klausulak ezartzea kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan	
BG.III.6.- 1.- Kuadrillak eta udalek sinatzen dituzten kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2021ean .
	INPLIKATUTAKO SAILA: gerentzia, idazkaritzak, kontu-hartzaileak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: berdintasun-klausulak dituzten kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenen kopurua
BG.III.6.- 2.- Genero-ikuspegia txertatzea udal jaietako programazioetan (hizkera eta irudi inklusiboak, orkestrak aukeratzea, emakumeak gauzatzat hartzea galaraztea).	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2021ean .
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: genero-ikuspegia txertatu duten jai-programen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2021ean .
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: genero-ikuspegia txertatu duten jai-programen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: udal guztiak	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2019an .
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, lehendakaritza, berdintasun-zinegotzitza
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten udalen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak	URTEA: urtean behin
	Oharra: 2018an abian jartzen hasi zen
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten sailen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla	URTEA: urtean behin
	Oharra: 2018an abian jartzen hasi zen
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten sailen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla	URTEA: urtean behin
	Oharra: 2018an abian jartzen hasi zen
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten sailen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla	URTEA: urtean behin
	Oharra: 2018an abian jartzen hasi zen
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten sailen kopurua

BG.IV.7.- 3.- Eskualdeko hezkidetasun-batzordea sortu eta mantentzea ikastetxeekin elkarlanean.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2019an.
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten ikastetxeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
G.IV.7.- 4.- Oyón-Oiongo, Bastidako eta eskualdeko partaidetza-mahaian berdintasun-zerbitzuak parte hartuko duela ziurtatzea, baldin eta sortzen bada.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oiongo eta Bastidako udalak
BG.IV.7.- 5.- Berdintasun-politika publikoak jorratzean bi hizkuntza ofizialak erabiliko direla bermatzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: bi hizkuntzatan dauden berdintasun-politiken kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.IV.7.- 6.- Berdinbidean erakundearekin egiten den koordinazioari eustea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
V. PROGRAMA. DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA	
8. helburua. Genero-ikuspegia txertatzea partaidetzarako eta kontsultarako esparruetan	
BG.V.8.- 1.- Kuadrillan eta udalerrietan egiten diren lehiaketetako epaimahaien osieran sexu-oreka bultzatzea.	URTEA: urtean behin
	Oharra: berdintasunak are jarraipen zorrotzagoa egingo du 2021ean .
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: osaera orekatua duten lehiaketen edo epaimahaien kopurua

	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
BG.V.8.- 2.- Berdintasun-foroa eratzea, Arabako Errioxako Kuadrillako emakumeen eta instituzio politikoen arteko kontsultarako eta mintzakidetzarako organoa izan dadin.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, lehendakaritza, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua, erabaki kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak

I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

I. PROGRAMA	EMAKUMEEN BANAKAKO NAHIZ TALDEKAKO AHALDUNTZEA BULTZATZEA
1. helburua	Emakumeek betetzen duten eginkizunaren aitortza bultzatzea
2. helburua	Emakumeen autoestimua, autozaintza eta autonomia sustatzea
II. PROGRAMA	EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA BABESTEA
3. helburua	Arabako Errioxako mugimendu sozialen bidez berdintasuna sustatzea
4. helburua	Emakumeek erabakiguneetan duten presentzia eta eragina areagotzea

I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

I. PROGRAMA. EMAKUMEEN BANAKAKO NAHIZ TALDEKAKO AHALDUNTZEA BULTZATZEA	
1. helburua. Emakumeek betetzen duten eginkizunaren aitortza bultzatzea	
EI.I.1.- 1.- Arabako Errioxako gizarte-esparru guztietako emakumeak areago ikusaraztea eskualdeko hedabideetan (Berberana, Rioja Alavesa irratia).	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, komunikazioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: emakumei buruzko artikulak, edo emakumeen erreferentzia egiten dutenak
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
EI.I.1.- 2.- Emakume kirolariak eta beste alor batzuetakoak ikusaraztea, emakumeen erreferentziak eskaintzeko.	URTEA: 2020, 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: komunikazioa, sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: ikusarazitako erreferentziako emakumeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: udal guztiak
EI.I.1.- 3.- Kuadrillako alor interesgarri guztietan (hala nola menpekotasunean, migrazioan, euskararen...) emakumeek eta gizonak bizi duten egoerari buruzko azterketa egitea.	URTEA: 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako azterketa mota
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
2. helburua. Emakumeen autoestimua, autozaintza eta autonomia sustatzea	
EI.I.2.- 1.- Adin guztietako emakumeen autozaintza eta osasuna sustatzea, horretarako lantegi edo ikastaro bereziak antolatuz.	URTEA: 2019, 2021
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, kultura
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: lantegi/saio kopurua, partaide kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oiongo, Guardiako eta Bastidako udalak
EI.I.2.- 2.- Herrien arteko garraio komunitarioko aukerak aztertzea, mugikortasuna bultzatzeko eta landa-giroko herrietako biztanleek eta bereziki emakumeek jasaten duten bakartze-sentsazioa murrizteko.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: bilkura kopurua, proposamen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak

EI.I.2.- 3.- Kuadrillako eraikin publikoetako eta udaletxeetako irisgarritasuna hobetzea.	URTEA: 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: hirigintza, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egokitu diren eraikinen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal hauek: <i>Mañueta → Udaletxea iritsiezina da</i> <i>Kripan → Udaletxea iritsiezina da</i> <i>Guardia → Samaniego jauregia (Aldundiaren jabetzakoa)</i> <i>Leza → Taberna (gaztetxe) iritsiezina da</i> <i>Navaridas → Igerilekuko taberna (arranpa makurtuegia da)</i> <i>Oyón-Oion → Espaloiak eten egiten dira. Espaloien inklinazioa konpontzen ari dira</i> <i>Samaniego → Kiroldegia iritsiezina da</i> <i>Eskuernaga → Udaletxea, kultura-etxea eta taberna iritsiezinak dira</i> <i>Páganos → Kontzejuaren etxea iritsiezina da</i> <i>Gatzaga Buradon → Taberna iritsiezina da</i> <i>Labraza → Kontzejuaren etxea iritsiezina da</i> <i>Gorribusto → Kontzejuaren aretoa eta taberna iritsiezinak dira</i>
EI.I.2.- 4.- Laia Eskolarekiko, Arabako Ahalduentze Eskolarekiko, lankidetzari eustea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: Laia Eskolan egin diren lantegien kopurua, partaide kopurua, udalerrri kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
II. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA BABESTEIA	
3. helburua. Arabako Errioxako mugimendu sozialen bidez berdintasuna sustatzea	
EI.II.3.- 1.- Emakumeek eta elkarteek berdintasunerako foroan parte har dezaten sustatzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, kultura eta kirola, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: parte hartu duten elkarten kopurua, parte hartu duten emakumeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: udal guztiak

EI.II.3.- 2.- Jarduerak prestatzen dituztenean genero-ikuspegia kontuan har dezaten laguntzea mugimendu sozialei eta kultura-elkarteei.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, kultura eta kirola, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: aholkularitza eskatu eta jasotzen duten elkarteen kopurua
EI.I.3.- 3.- Diskriminazio anitza jasaten duten emakumeekin lan egiten duten elkarte eta kolektiboei laguntzea eta aholkularitza eskaintzea, emakume eta gizonen eskubide-berdintasuna sustatzeko asmoz.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, kultura eta kirola, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: aholkularitza eskatu eta jasotzen duten elkarteen kopurua
4. helburua. Emakumeek erabakiguneetan duten presentzia eta eragina areagotzea	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, kultura eta kirola
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: aholkularitza eskatu eta jasotzen duten elkarteen kopurua, zuzendaritza-batzordean emakumeak dituzten elkarteen kopurua
EI.II.4.- 1.- Hirugarren adineko elkarte eta kolektiboei laguntzea eta aholkularitza eskaintzea, erabakiguneetan emakumeen partaidetza sustatzeko.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: jai-batzordeetan eta jaien antolakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopurua
EI.II.4. 2.- Emakumeen parte-hartze soziala bultzatzea esparru eta eremu guztietan, batez ere jaietako loturikoetan.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: jai-batzordeetan eta jaien antolakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopurua
EI.II.4.- 3.- Kuadrillan nahiz inguru geografikoan politikan diharduten emakume erreferenteak bistaratzeko, udaletan eta kontzejuetan emakumeen parte-hartzea bultzatzeko.	URTEA: 2019, 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, komunikazioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: saio edo jarduera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oiongo, Guardiako eta Eltziegoko udalak

II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO

I. PROGRAMA	GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO, BERDINTASUNA NAHITAEZKO BALIOA DELA AITORTZEA
1. helburua	Emakume eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioztat aitor dadin sustatzea.
2. helburua	Hezkidetzaren bidez eskubideak gauza daitezen bultzatzea.
II. PROGRAMA	EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA
3. helburua	Pobreziaren feminizazioa murriztea.
III. PROGRAMA	ZAINTZAREKIN ETA BIZITZAREKIN ERANTZUNKIDEA DEN GIZARTE ANTOLAKUNTZA
4. helburua	Ordaindu gabeko zaintza-lana bistaratu eta baliozkotzea.
5. helburua	Zaintzen gizarte-antolamendu berria bultzatzea, halako lanak guztion artean egin daitezen.

II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

I. PROGRAMA. GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO, BERDINTASUNA NAHITAEZKO BALIOA DELA AITORTZEA	
1. helburua. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioztat aitor dadin sustatzea.	
EII.I.1.- 1.- Eskualdeko hedabideetan eta turismo-kanpainetan neska-mutilen, gazteen eta helduen presentzia orekatua sustatzea, aniztasuna aintzat hartu eta sexu-estereotipoak baztertuta.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: komunikazioa, turismoa, Ardoaren ibilbidea
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: genero-ikuspegia aintzat hartu duten kanpainen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
2. helburua. Hezkidetzaren bidez eskubideak gauza daitezen bultzatzea.	
EII.I.2.- 1.- Ikastetxeekin elkarlanean, estereotipoak hausten dituzten gurasoak ikasgeletan parte hartzera bultzatzea, erreferentzia berriak eskaintzeko.	URTEA: 2019, 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak, guraso-eskolak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: ikastetxeetan gurasoekin egin diren saioen kopurua, partaide kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EII.I.2.- 2.- Ikastetxeekin elkarlanean, guraso elkarten eta eskola-kontseiluen lanean aholkularitza eskaini eta laguntzea, genero-ikuspegia aintzat hartuta.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako bilera kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera, parte hartu duten ikastetxeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EII.I.2.- 3.- Ikastetxeetan hezkidetzeta-batzordeak eta hezkidetzeta-planak bultzatzea eta jardun horretan laguntzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: hezkidetzeta-batzordea duten ikastetxeen kopurua, berdintasunarekin egindako bilera kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EII.I.2.- 4.- Udalekuetako hezitzaileen hasierako prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzea.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, euskara
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: emandako saio kopurua, partaide kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla

II. PROGRAMA. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA	
3. helburua. Pobreziaren feminizazioa murriztea.	
EII.II.3.- 1.- Arabako Errioxako ardogintza-alorrean diharduten emakume enpresari eta eragileak bistaratu eta protagonismoa ematea, enpresamunduko erreferentziak eskaintzeko.	URTEA: 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ABRA, komunikazioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: bultzatutako ekintza kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EII.II.3.- 2.- Gizonezkoak nagusi diren lanetako lan-poltsetan emakumeek izena emateko eta, alderantziz, emakumeak nagusi diren alorretan gizonek izena emateko kanpainak egitea.	URTEA: 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, sustapen ekonomikoa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: burututako kanpaina kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
EII.II.3.- 3.- Emakume langabeak laneratzeko asmoz Lanbideak bultzatutako ekintza positiboak txertatzen jarraitzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: sustapen ekonomikoa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: ezarritako ekintza positiboen kopurua eta kontratatutako gizon eta emakumeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak
III. PROGRAMA. Zaintzarekin eta bizitzarekin erantzunkidea den gizarte-antolakuntza	
4. helburua. Ordaindu gabeko zaintza-lana bistaratu eta baliozkotzea.	
EII.III.4.- 1.- Zaintza-lana bizitzaren iraunkortasunerako funtsezko baldintzatzat agerrarazi eta baliozkotzea eta, horretarako, gizarte-antolamendu erantzunkidearen eta ekologistaren aldeko sentsibilizazio-kanpainak egitea.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ingurumena, komunikazioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: kanpaina eta ekintza kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
5. helburua. Zaintzen gizarte-antolamendu berria bultzatzea, halako lanak guztion artean egin daitezen.	
EII.III.5.- 1.- Gazteria sentsibilizatzea haur eta gazteek zaintza-lanetan ematen duten denbora areagotzeko, indar berezia jarritz mutikoengan.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak, Gazteleku
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: sentsibilizazio-ekintzen kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, Oyón-Oiongo Udala (Gazteleku)

EII.III.5.- 2.- Ludoteka-zerbitzuari zuzendutako partida ekonomikoa lotzea, edozein sailek antolatutako jardueretan aukera hori eskaintzeko.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: gerentzia, kultura, sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: partida ekonomiko berezia, ludoteka-zerbitzua duten jardueren kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EII.III.5.- 3.- Kuadrillako herrietan ludoteka/jolastokia sor dezaten bultzatzea, zaintza-lanetan eta aisialdian emakume eta gizonen partaidetza sustatzeko.	URTEA: 2020
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, alkatetzak, prebentzio komunitarioa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: bultzatu diren jolastokien kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oiongo, Guardiako,Bastidako, Eltziegoko, Lapuebla de Labarcako eta Lantziegoko udalak
EII.III.5.- 4.- Kuadrillan kokatutako enpresei zuzendutako kanpaina egitea, enpresa barruan berdintasun-jardunak ezar ditzaten eta enprestako gizon langileak kontziliazio-neurriak hartzera bultzatzeko.	URTEA: 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, sustapen ekonomikoa, ABRA
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: informazioa eman zaien enpresen kopurua, plana duten enpresen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla

III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I. PROGRAMA	SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA
1. helburua	Egiturazko indarkeria, kulturala eta sinbolikoa murriztea
2. helburua	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea
3. helburua	Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko jarduna bultzatu eta sendotzea
II. PROGRAMA	ANTZEMATEA ETA ARRETA EMATEA
4. helburua	Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea
5. helburua	Indarkeria matxistatik bizirik irten diren biktimentzako arreta integrala sustatzea
III. PROGRAMA	ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA
6. helburua	Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan egiten duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea

III. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK ETA BESTE INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

I. PROGRAMA. SENSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	
1. helburua. Egiturazko indarkeria, kulturala eta sinbolikoa murriztea	
EIII.I.1.- 1.- Sexuaren arabera pertsonak gehiagotzat edo gutxiagotzat edota sexu-objektu soilizat agerrarazten dituzten irudi eta edukiak ezabatzea eta, ildo beretik ezabatzea indarkeria, eta bereziki emakumeen aurkako indarkeria, justifikatu, hutsaldu edo xaxatzen duten irudi eta edukiak, zabalkunde mediaticoaren ondorioz biktima are biktimgo bihur ez dadin.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: sail guztiak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: guztira egin diren kanpainen kopurua, edukia eta irudia zaintzen dituzten kanpainen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak	
EIII.I.1.- 2.- Egun jakinetako sensibilizazio-kanpainetan parte hartzea: martxoaren 8an, azaroaren 25ean, maiatzaren 17an, LGBTIQ+ Harrotasun-eguna....	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: urteko kanpainen kopurua, kanpainetan parte hartu duten udalen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak	
EIII.I.1.- 3.- Gazteekun eta gazteek ontzat jotzen dituzten leku guztietan, gazteekin batera lantzea jokabide afektibo eta sexualak, genero-ikuspegia txertatuta.	URTEA: 2020, 2022
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako lantegien kopurua; partaideen kopurua sexuaren arabera bereizita
KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oion, Guardia, Bastida	
2. helburua. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea	
EIII.I.2.- 1.- Eskualdean artatu diren indarkeria matxistaren kasuak zenbatzeko prozedura formala ezartzea.	URTEA: 2019
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, protokoloaren mahai teknikoa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: prozedura bateratua egitea, artatu diren kasuen kopurua
KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla	

<p>EIII.2.- 2.- Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik irten diren biktimak artatzen parte hartzen duten profesionalen prestakuntza etengabea, nahikoa eta ardura-maila bakoitzerako egokia izango dela bermatzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p>
	<p>INPLIKATUTAKO SAILA: indarkeria, familia eta haurtzaroa, protokoloaren mahai teknikoa</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: artatu diren kasuen kopurua, inplikaturako profesionalen kopurua sexuaren arabera bereizita, prestakuntza-maila</p>
<p>EIII.1.2.- 3.- Indarkeria matxistaren aurrean eskualdean dauden baliabideei buruzko informazioa zabaltzea (liburuxkaren bat...).</p>	<p>URTEA: 2019</p>
	<p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: banatu diren liburuxken kopurua</p>
<p>3. helburua. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko jarduna bultzatu eta sendotzea.</p>	
<p>EIII.1.3.- 1.- Gazteentzako eremuetan, hala nola gaztelekuetan, ikastetxeetan, ludoteketan, kirol taldeetan eta abarretan, BELDUR BARIK programan parte hartzea bultzatzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p>
	<p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, ikastetxeak, gaztelekua</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: Beldur Barik programan parte hartu duten pertsonen kopurua sexuaren arabera bereizita</p>
<p>EIII.3.- 2.- Dibertsitate funtzionala duten emakumeen hauskortasunari, tratu txarrei eta tratu txarrak antzemateko bideari eta ondorioei buruzko sensibilizazio- eta informazio-kanpaina bereziak burutzea, eta ahal den heinean talde horien laguntza jasotzea kanpainen diseinuan.</p>	<p>URTEA: 2021</p>
	<p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, gizarte-zerbitzuak</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: burututako kanpainen kopurua eta izan duten eragina</p>
<p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla</p>	
<p>II. PROGRAMA. ANTZEMATEA ETA ARRETA EMATEA</p>	
<p>4. helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra areagotzea</p>	
<p>EIII.II.4.- 1.- Kuadrillako genero-indarkeriaren, familiaren eta adingabeen saila kofinantzatzen jarraitzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p>
	<p>INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: sailari eustea</p>

	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EIII.II.4.- 2.- Hezkuntza-alorrean, osasun-alorrean, polizialean, judizialean, lanekoan eta sozialean era proaktiboan eta Kuadrillako protokoloarekin bat jarduten duten profesionalen kopurua handitzea edo behintzat mantentzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, protokoloaren mahai teknikoa
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: parte hartzen duten profesionalen kopurua, sailaren eta sexuaren arabera bereizita
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EIII.II.4.- 3.- Indarkeria matxistatik bizirik irten ondoren informazio egokia jasotzen duten emakumeen kopurua handitzea, beraien igurikimenei lotutako erabakiak har ditzaten arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: protokoloaren mahai teknikoa, indarkeria, familia eta adingabeen saila
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: indarkeria matxistatik bizirik irten eta laguntza eskatzen duten emakumeen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EIII.II.4.- 4.- Indarkeria matxistatik bizirik irten diren emakumeei buruzko hitzaldiak ematea, gizartearen eta komunitatearen laguntzarekin indarkeriaren ziklotik irteteko aukera dagoela frogatzeko.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, indarkeria, familia eta adingabeen saila
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: hitzaldi kopurua, partaide kopurua sexuaren arabera
	KUADRILLA / UDALAK: Oyón-Oiongo, Guardiako eta Eltziegoko udalak
5. helburua. Indarkeria matxistatik bizirik irten diren biktimentzako arreta integrala sustatzea	
EIII.II.5.- 1.- Gizarte-langileek eskura duten itzulpen-zerbitzua handitzea.	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak
	EBALUAZIO ADIERAZLEAK: itzulpenetan erabil daitezkeen minutu kopurua, benetan erabili diren minutu kopurua, zerbitzu horren beharra izan duten kasuen kopurua
	KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla
EIII.II.5.- 2.- Familia eta indarkeria saileko eskualdeko gizarte-zerbitzua babesten jarraitzea, gizarte-langileak indarkeriaren biktima diren	URTEA: urtean behin
	INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak

<p>emakumeak eta beraien seme-alabak artatzen jarraitzeko era integralean, espezializatuan, doan, berehala, eskura, hurbil, beraien beharriaren arabera, giza eskubideetan oinarrituta, emakumeen ahalduntzera bideratuta eta genero-ikuspegitik abiatuta.</p>	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: sailari eustea, artatutako emakume kopurua udalerrien arabera</p>
<p>EIII.II.4. 3.- Emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dieten eskualdeko baliabideetarako sarbidea eta arretaren kalitatea hobetzeko modua aztertzea, arreta berezia eginez eskualdeko herri txikienei eta aparte daudenei.</p>	<p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla</p> <p>URTEA: 2019, 2021</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, protokoloaren mahai teknikoa, protokoloaren mahai politikoa</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: hobetzeko ekarpenen kopurua, gauzatutako hobekuntzen kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>
<p>EIII.II.5.- 4.- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikologikoa beste herri batzuetara zabaltzeko aukera aztertzea.</p>	<p>URTEA: 2019, 2020</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: gizarte-zerbitzuak, lehendakaritza, alkatetzak</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: arreta psikologikoko zerbitzua duten udalerrien kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla</p>
<p>III. PROGRAMA. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA</p>	
<p>6. helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan egiten duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea</p>	
<p>EIII.III.6.- 1.- Indarkeria Matxistari aurre egiteko Koordinazio eta Jarduera Protokoloa onartzea.</p>	<p>URTEA: 2018</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: lehendakaritza, alkatetzak</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: protokoloa onartzea, sinatzaile kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>
<p>EIII.III.6.- 2.- Protokoloaren jarraipena eta koordinazioa egiteko egiturak aktibatzea eta Kuadrillan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan egiten duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua eta etengabea sustatzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, lehendakaritza, alkatetzak</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: mahai teknikoaren eta mahai politikoen bilkura kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>
<p>EIII.III.6.- 3.- Inplikaturako teknikariek Protokoloaren Koordinazio Mahai Teknikoan parte har dezaten bultzatzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, protokoloaren mahai-teknikoa</p>

	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: parte hartzen duten profesionalen kopurua, sailaren eta sexuaren arabera bereizita, bilkura kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla</p>
<p>EIII.III.6.- 4.- Politikariek Protokoloaren Mahai Politikoan parte har dezaten bultzatzea.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, lehendakaritza, alkatetzak</p>
	<p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: parte hartzen duten arduradun politikoen kopurua, udalaren eta sexuaren arabera, egindako bilera kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>
	<p>URTEA: urtean behin</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, mahai teknikoa, mahai politikoa</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako egokitzapenen kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>
<p>EIII.III.6.- 5.- Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean izan diren arau-aldaketara, aldaketa teknikoetara eta aldaketa sozialetara egokitzea egun indarrean dauden erakunde-arte koordinaziorako erabakiak.</p>	<p>URTEA: urtean behin</p> <p>INPLIKATUTAKO SAILA: berdintasuna, mahai teknikoa, mahai politikoa</p> <p>EBALUAZIO ADIERAZLEAK: egindako egokitzapenen kopurua</p> <p>KUADRILLA / UDALAK: Kuadrilla, udal guztiak</p>

EBALUAZIO SISTEMA

Berdintasun-plana benetan eraginkorra izateko, ezinbestekoa da onartutako ekintzak nola hezurramitu diren jakiteko jarraipen eta ebaluazio etengabea egitea. Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasunerako III. Planak lau urtean jorrazteko neurriak biltzen ditu eta, beraz, 12 hilabeteko epe zehatzetan egiteko ekintzak soilik bilduko dituzten urteko plan operatiboak egitea komeni da.

Ekintza bakoitzak ebaluazio-adierazleak ere jasotzen ditu, urte bakoitzaren amaieran plan operatiboaren ebaluazioa egiteko balio izango dutenak. Horri esker, ekintzak nola bete diren jakinik, berdintasun-zerbitzuak erabaki doiagoa hartu ahal izango ditu eta asko erraztuko da III. Planaren amaierako ebaluazioa egitea, haren indarraldia amaitzen denean.

Berdintasunerako III. Plana eta urtez urteko plan operatiboak izango dira berdintasun-teknikariak eskualdean eta Kuadrilla osatzen duten 15 udalerrietan berdintasun-politikak bultzatzeko eta ekintzak jorrazteko erabiliko dituen tresnak. Eta tresna horrexek balio izango du, halaber, urteko plangintzetan jasotakoari erantzuteko aurrekontu-partidak «negoziatzeko».

Ekintza gehienak eskualde-maila jorraztekoak dira eta soilik ekintza jakin batzuk dira udal zehatz batzuetan, batez ere biztanle gehien dituzten herrietan, garatzekoak. Herri gehienak txiki-txikiak dira eta oso zaila da aurreikustea ekintza zehatz horiek halakoetan jorrazteko aukerarik izango ote den; horregatik, pentsa daiteke ekintzetako batzuk lekutik lekura alda litezkeela, unean uneko egoeraren arabera.

Beste aldetik, eta gobernu ona izatera bideratutako neurriei erreparatuz, ekintza gehienak urtean egitekoak dira. Halere, premiazkotzat jotzen dituen ekintzetan «behaketa» izeneko ildo berria jasotzea erabaki du berdintasun-zerbitzuak. Halakoetan, urte jakinetan ekintza horren betetze-mailaren jarraipen zorrotzagoa egingo da, nahiz eta, berez, urtero-urtero bultzatzekoa izan. Hala jakatuz berdintasun-teknikariaren lana erraztu nahi da, urteko plan operatiboetan ekintza batzuk lehenesten direlako.

Hori guztia kontuan hartuta, ebaluazio egoki batek honako atal hauek izan behar lituzke:

- **Etengabeko ebaluazioa:** ekintza bakoitzarena, ekintzak egin ahala, ebaluazioaren adierazleak eta ekintzaz arduratuko den sailaren ebaluazio kualitatiboa aintzat hartuta.
- **Ebaluazio partzialak:** urteko plan operatiboaren urte amairako ebaluazioak. Etengabeko jarraipen eta ebaluazio egokia eginez gero, ebaluazio partzialak datu horiek bilduko ditu, eta egin gabe gelditu diren ekintzak zerrendatu, horretarako arrazoiak argituta.
- **Amaierako ebaluazioa:** lau urteak igaro ondoren, amaierako ebaluazioan bilduko dira ebaluazio partzial guztiak, eta txosten kuantitatiboa eta kualitatiboa osatuko da.

ERANSKINA. ONLINE EGINDAKO GALDE-SORTAREN EMAITZAK


Prozesuak iraun duen bitartean, iritzia emateko galde-sorta bat helarazi diegu herritarrei, baina azkenean 147 lagunek baizik ez dute erantzun. Horiek horrela, ezin da biztanleriaren lagin adierazgarritzat hartu. Dena dela, lortutako emaitzaren berri emango dugu ondoren.

Emakumeek erantzun diote nagusiki galde-sortari, 116 izan baitira emakumeak eta 30 gizonak, bai eta kategoria horietan identifikatzen ez den pertsona bat ere (ez dira pertsona horren erantzunak sartu, konfidentzialtasuna errespetatzearen).

Hartara, gorria izango da beti nagusi, emakumeen erantzunak direlako gehienak.


Datuak ehunekotan alderatzeko aukera ere badago, baina lagina fidagarria ez denez, azkenean datuak grafikotan eta kopuru absolutuetan irudikatzea erabaki dugu, emakume eta gizonen erantzunak ageriago egon daitezzen.

Hona hemen, beraz, erantzunak, galde-sortari erantzun dioten pertsonen herria aintzat hartuta eta datuak emakume eta gizonen artean bereizita.




Galde-sortari erantzun dioten pertsona gehienek 35-45 urte bitartean dituzte.

Izan ere, hona hemen erantzun duten pertsonen adin-tartea:




Seme-alabak dituztenen adin-tartea da. Erantzun duten pertsonen %46,95ek adingabeak ditu kargura, eta %53,1ek ez.



«Ba al duzu kargupean mendekotasun egoeran dagoen adinekorik?» galderari erantzun diotenen % 86,4k ezezkoa adierazi du, eta % 13,6k baiezkoa.


Horietatik, 17 emakumek zaintzen dute adineko pertsonaren bat: bi 25 urtetik beherakoak; zazpi 25-35 urte bitartekoak; hiru 35-45 urte bitartekoak; lau 45-55 urte bitartekoak eta bat 55-65 urte bitartekoa.

45-55 urte bitarteko bi gizonek zaintzen dute adineko pertsona bat eta 65 urtetik gizon bat ere bada zaintzailea.



3. Bikotekidearekin bizi bazara eta pertsonak zaintzen badituzu: zure bikotekideak modu berean parte hartzen du zaintza lanetan?

Eraitza horiek eskuartean, guztiz logikoa da emakumeek zaintzan denbora gehiago ematearen pertzepzioa edukitzea; halere, badira zaintza-lana partekatzen dutenak ere. Azpimarratu egin behar da, ordea, bikotekidea duten 25 urtetik beherako emakumeen ustez, euren egiten dutela zaintza-lanen zatirik handiena.



Galde-sortari erantzun dioten lagunen % 33,4 ez da bikotekidearekin bizi.

4. galderari («Nork egiten ditu etxeko lanak?») hauxe erantzun diote:


25-35 urteko adin-tartean erantzun-barietate handiagoa aurkitu dugu, pertsona batzuk hauxe adierazi baitute:

- Amak, aitak eta nik
- Mi ama y yo a medias / Amak eta biok erdibana
- Mi padre y mi madre / Amak eta aitak
- Mi padre / Aitak
- Bakarrik bizi naiz, beraz nik egiten ditut
- Bananduta nago gizonarengandik
- Garbiketa-txandak ditugu

Eta hauxe adierazi dute 45-55 urteko adin-tartean daudenek:


- A partes iguales con mi hermana / Ahizparekin erdibana
- Las tareas son compartidas / Lanak partekatu egiten ditugu

55-65 urteko adin-tartean, etxeko langilearen figura agertzen da.



35-45 urteko tartean, bost gizonak uste dute lana hein berean partekatzen dutela.

5. galderari dagokionez («Zure egunerokoa, zure bizitza pertsonala, lanekoa eta familiarra bateratzeko arazoak al dituzu?»):




Ez da berdintasunaren lagin adierazgarria, baina grafikoan azpimarratzekoa da adin-tarte guztietako emakumeak daudela. Lortutako datuak eskuartean, ondoriozta daiteke 65 urtetik gorako emakumeek ez dutela kontziliazio-arazorik, baina emakume bakar batek erantzun du eta pertsona bakar horrek esan du ez duela laneko, familiara eta bere bizitza pertsonala kontziliatzeko arazorik.

Erantzun duten 25 urtetik beherako gizonak esan dute ez dutela kontziliazio-arazorik, baina 25-55 urteko adin-tartean, berriz, badira bizitza kontziliatzeko arazoak dituzten gizonak. Erantzun duten 55-65 adin-tarteko gizonak kontrakoa esan dute, ez dutela kontziliazio-arazorik, baina 65 urtetik gorako arteen berriz agertu dira bizitza kontziliatzeko arazoak.


Honako erantzun hauek jaso ditu 6. galderak («Eguneko, zenbat ordu bideratzen duzu ordaindutako lanarekin erlazionaturiko jardueretara?»):

Galderari erantzun dioten gizonen artean, 18k zortzi orduko lanaldian jarduten dute, bostek 8 orduetik gora, batek lanaldi erdian eta bik sei orduko lanaldian. Beste bik ez dute lanik egiten eta bost pentsiodunak edo erretirodunak dira eta, beraz, aurretiaz lan-merkatuan aritu direla ondoriozta daiteke.




Erantzun dutenen emakumeei dagokienez, 48k zortzi orduko egun osoko lanaldian jarduten dute, hamahiru emakumek ez dute gaur egun lanik egiten, eta 41ek egunean lau edo sei orduko lan-kontratua dute.

Hauexek dira 7. galderan («Eguneko, zenbat ordu bideratzen dituzu zaintzara eta ordaindu gabeko beste jardueretara?») jasotako erantzunak:



8. galderan («Eguneko, zenbat ordu bideratzen dituzu aisialdirako jardueretara (kultural, kirola ...)?») erantzun hauek jaso ditugu:



Emakumeek, oraindik ere, aisialdira bideratzeko asti gutxiago izaten dute, adin-tarte bereko gizonen baino. Erantzunei erreparatuta, soilik 65 urtetik aurrera dute aisialdira bideratzeko astia izatearen pertzepzioa. 65-75 adin-tarteko gizon bakar batek erantzun du. Aurretiko adin-tarteetan, aisialdirako denbora gutxi izatearen pertzepzioa antzerakoa da emakume eta gizonen artean.

Aisialdirako denborarik ez duela erantzun duen emakumeetako batek zera argitu du: «Nire herrian ez dago halako jarduerarik»

9. galderan hauxe galdetu da: «Eguneko, zein % bideratu nahiko zenioke jarduera horietako bakoitzari?»

Orotariko erantzunak jaso ditugu, baina laburtuz esan dezakegu erantzuna eman duten 22 lagun baino ez daudela pozik duten denborarekin, horietatik 6 gizonezkoak eta 16 emakumeak. Hau da, galde-sortari erantzun dioten emakumeen % 13,67 eta gizonen % 17,85 euren astiarekin gustura daude.

10. «Lana, familia eta bizitza bateratzeko neurriak erabiltzen dituzu?»?

		♀	♂
< 25 urte	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna	4	1
	Ez, ez dut behar.	4	1
	Eskolen, denden, garraioen,... ordutegietara egokitzea lan-ordutegia	2	
	Nire ordutegia seme-alaben ordutegira egokitzea	1	
	Mendekoei arreta emateko hartzaindegiko edota bestelako zentroetako gastuak finantzatzeko laguntza	1	
25-35	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna	3	1
	Ez, ez dut behar	7	
	Eskolen, denden, garraioen,... ordutegietara egokitzea lan-ordutegia	4	
	Mendekoei arreta emateko hartzaindegiko edota bestelako zentroetako gastuak finantzatzeko laguntza	2	
	Laneko bilerak lan-ordutegiaren baitan egitea	4	
	Telelana	2	
	Lantokiko barne-trebakuntza lan-ordutegiaren baitan egitea	1	
35-45	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna	6	4
	Ez, ez dut behar	16	4
	Eskolen, denden, garraioen,... ordutegietara egokitzea lan-ordutegia	7	
	Mendekoei arreta emateko hartzaindegiko edota bestelako zentroetako gastuak finantzatzeko laguntza	3	
	Laneko bilerak lan-ordutegiaren baitan egitea	8	
	Telelana	2	1
	Lantokiko barne-trebakuntza lan-ordutegiaren baitan egitea	1	
45-55	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna	7	1
	Ez, ez dut behar	8	5
	Eskolen, denden, garraioen,... ordutegietara egokitzea lan-ordutegia	2	1
	Mendekoei arreta emateko hartzaindegiko edota bestelako zentroetako gastuak finantzatzeko laguntza	2	
	Laneko bilerak lan-ordutegiaren baitan egitea	2	3
	Lantokiko barne-trebakuntza lan-ordutegiaren baitan egitea	2	
55-65	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna	1	2
	Ez, ez dut behar		3
	Telelana	1	
65-75	Eskolen, denden, garraioen,... ordutegietara egokitzea lan-ordutegia		1
	Lantokian sarrera eta irteera ordutegien malgutasuna		1
	Ez		1


Gainera, 35-45 urteko gizon batek esan du «ezertara ere ezingo» lukeela eta emakumeen artean, berriz, bestelako erantzunak ere jaso dira:

- Laguntza behar dudanetan lagunei eskatzen diet
- No existe la conciliación en mi caso, es imposible / Nire kasuan ez dago kontziliaziorik, ezinezkoa da
- Renunciar a trabajar / Lanari uko egitea (3 lagunek)
- Primero el trabajo y lo demás lo adapto / Lehenengoa lana da, eta gainerakoa egokitu egiten dut
- Reducción de jornada / Lanaldia murriztea (5 lagunek)
- Flexibilidad de horarios laborales por ser autónoma / Laneko ordutegietan malgutasuna dut, autonomoa naiz eta
- Ordutegia murriztea
- Jantokia erabiltzea
- Garai jakinetan murriztea
- Trabajar menos para no depender de nadie, ganando así mucho menos dinero / Gutxiago lan egitea inoren mende ez egoteko, baina askoz diru gutxiago irabaziz

Galde-sortaren hurrengo atala indarkeria matxistari buruzkoa da. Hala, hauxe da 11. galdera: «Zure ingurunean indarkeria sexistaren kasuren bat ezagutzen duzu?»

Galde-sortari erantzun dioten pertsonen % 52,06k inguruan indarkeria kasuren bat ezagutu du; % 40,41ek ez du kasu bat ere ezagutzen, eta % 7,53k ez daki edo ez du erantzun.





12. galdera: «Zein baliabide ezagutzen duzu zure kuadrillan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko?»

Askotan, galdera hau erantzun gabe gelditu da edota «Ez dakit, ez daukat informaziorik» eta parekoak erantzun dituzte.

Adina		Erantzunik ez	Ez dakit / Ez dut informaziorik
< 25 urte	Emakumeak	1	4
	Gizonak	2 (% 100)	
25-35	Emakumeak	5	7
	Gizonak	2 (% 100)	
35-45	Emakumeak	10	12
	Gizonak	3	2
45-55	Emakumeak	5	11
	Gizonak	4	2
55-65	Emakumeak	1	1
	Gizonak	1	2
65-75	Gizonak		

Prebentzio-baliabideei lotutako erantzunak, berriz, honako hauek dira:

- Genero-indarkeriaren biktimei arreta egiteko telefonoa, gizarte-zerbitzuak, polizia
- Berdintasun-zerbitzua, gizarte-langileak, Ertzaintzaren unitatea (3 lagunek)
- Nik dakidala, hitzaldiren bat
- Gizarte-zerbitzuetako langilea (9 lagunek)
- Gizarte-zerbitzuek eta elkarteek egindako kanpainak. Ikastetxe, institutu eta ikastoletan ikasleei emandako informazioa, kaleko hezkuntza, amentzako eskolak
- Ertzaintza eta Arabako Errioxako Kuadrillako berdintasun-zerbitzua (3 lagunek)
- Genero-indarkeriaren aurkako erakunde-arteke protokoloa (2 lagunek)
- Gizarte-laguntzailea eta telefono-zenbakia (6 lagunek)
- Egite-bidean dagoen berdintasun-plana
- HEZKUNTZA
- Kuadrillako berdintasun-sailak eta Laia Eskolak jorratutako jarduerak

- Ez dugu martxan jarri inongo mekanismo kontzienterik Kuadrillan. Emakume-taldean (talde feministan), aldiz, mekanismo eta protokoloak garatu ditugu: emakumeenganako babes, beraien hitza errespetatzea, erasotzailea emakumearen eremu erosoetatik kanpo geratzea, erasotzaileak terapia prozesua egitea...
- Gizarte-langilearekin harremanetan jartzea da zuzenena
- Publizitatea baino ez. Baliabide materialak Aldundiarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak direlakoan nago
- Laguntza morala, psikologikoa eta pertsonala
- Norbere burua defendatzeko ikastaroak
- Ez litzateke indarkeriarik egon behar (2 lagunek)
- Salatu egin behar da
- Errespetua (3 lagunek)
- Informazioa
- Berdin tratatu behar gaituzte
- Laguntza (2 lagunek)
- Hitzaldiak
- Biltzen garenean hitz egitea
- Badakit arreta egon badagoela, baina ez dakit nola dabilen
- Emakumeak antolatzea
- Kuadrillan ez dute ezagutzen
- Bat ere ez. Momentuz ez da behar eta


13. Zein baliabide ezagutzen duzu zure kuadrillako emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko?

Adina		Erantzunik ez	Ez dakit / Ez dut informaziorik Bat ere ez
< 25 urte	Emakumeak	4	3
	Gizonak	2 (% 100)	
25-35	Emakumeak	5	8
	Gizonak	1	1
35-45	Emakumeak	13	7
	Gizonak	4	3
45-55	Emakumeak	6	11
	Gizonak	3	2
55-65	Emakumeak		4
	Gizonak	1	2
65-75	Gizonak	1	

1. Berdintasun-teknikaria (berdintasun-zerbitzua) eta Laiaren jarduerak (26 lagunek)
2. Gizarte-zerbitzuak (4 lagunek)
3. Berdintasun-foroa (6 lagunek)
4. Hitzaldiak, solasaldiak, bilerak (6 lagunek)
5. Biltzen garenean hitz egitea
6. Errespetua. Berdin tratatu behar gaituzte (5 lagunek)
7. Bat ere ez, momentuz ez da behar eta
8. Ez nago ados generoen arteko berdintasunarekin, bai pertsonen arteko ekitatearekin

9. Berberana aldizkaria, irratia, Ttiki-ttaka, Euskara maite dut... eta publizitatea (2 lagunek)
10. Zerbait badagoela baino ez dakit
11. Ikastaroak, tailerrak... hots, informazioa ematea (3 lagunek)
12. Herritarren kontzientziak
13. Denok berdin
14. Bat ere ez, ez dagoelako berdintasunik
15. Biak gauza berdinak egitea eta ez egitea desberdinak neska izateagatik

14. Zure herrian badago baliabiderik emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko? Zeintzuk?



Word café eta beste

Gizarte-zerbitzuak

Laia

Gutxi

Ez nago egunean baina egon badagoelakoan nago

Elkarte batzuek egiten dituzten jarduerak

Elkarrekin jardunez

Udalak ekintza puntualak egiten ditu: hitzaldiak, elkarretaratzeak, gaiari buruzko topaketak...

Elkarrekin egiten bidez berdintasuna sustatzeko ahalegina egiten dute, baina batzuetan herri baterako «gehiegizko neurriak» izaten dira

Tailerrez eta hitzaldiez gain, ez dakit gehiagorik ote dagoen. Ziurrenik egongo da zerbait, baina ez dakit

Bai. Gizarte-laguntzailea. Udalera joz gero, bideratu egingo zaituzte

Hitzaldiak

Emakume-taldea

Errespetua

Ahalduntze-eskola

Elkarrekin eta berdintasun-foroaren bidez

Gizarte-laguntzailea


Ez daude egokiak

Emakumeekin lan egiten duten zentro bat badagoelakoan nago, baina ez dakit zehatz zer lan egiten duten

Bai, ez dakit

Emakume-taldea dago baina ez dakit emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten Emakume-elkartea...
 Mahainguruak eta kolokioak, ikastolako hezkidetzeta taldea eta gehiago ere egongo dira baina ez ditut ezagutzen
 Kuadrillako berdintasun-zerbitzua
 Jarduera puntualak
 Emakume-elkartea eta gazte-elkartea
 Elkarriketa, kontzientzia, enpatia, elkartasuna, berdintasuna

15.- Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza gehiago nahi duzu?



Galde-sortari erantzun dioten emakumeen % 77,39k esan du generoaren inguruko prestakuntza handiagoa eduki nahi izango lukeela, baina % 6,08k ez du prestakuntzarik nahi eta % 9,5ek ez daki nahi duen ere (% 6,95ek ez dio galderari erantzun).

Gainera, 4 emakumek hauxe esan dute:

- Jendeak informazioa jasotzea nahiko nuke, Arabako Errioxan horretaz hitz egiterakoan estralurtarra ez sentitzeko
- Hori norberaren esku dago eta Kuadrillak informazio hori eskuratzeko bide asko eskaintzen ditu
- Berdintasuna egotea nahi nuke, ez informazioa
- Pertsonen arteko eta errespetuaren inguruko informazio gehiago eduki nahi nuke

Gizonen artean, % 7,14k ez dio galderari erantzun, % 14,28k ez du genero-prestakuntza gehiagorik nahi, % 10,72k ez daki eta gizonen % 67,85ek dio generoaren inguruko prestakuntza gehiago eduki nahi izango lukeela

Azkenik, iritziak emateko eremua utzi da galde-sortan **(16.- «Iruzkinen bat utz dezakezu, nahi baduzu»)**.

- Eskerrik asko.
- Milesker egiten duzuen lanagatik.
- Oso garrantzitsua da herritarrek argi jakitea nora jo behar duten genero-indarkeria agertuz gero.
- Eutsi goiari, denon artean aldatzeko gai gara.
- Zer-nolako langabezia jasaten dugun emakumeok!
- Niri eta nire inguru hurbilari ez dio eragiten, pixka bat aldentuta nago eta, baina benetan uste dut ikastetxean nahitaez landu beharreko irakasgaia izan beharko lukeela. Jakina, etxean landu behar da lehenengo eta behin, baina badaezpada, ikastetxeetan eta bi urtetik aurrera nahitaezkoa izan behar lukeelakoan nago; izan ere, hezkuntzaren bidez baino ez ditugu sortuko pertsona berdinak, desberdintasunik gabeak. Hezkuntza funtsezkoa da pertsonak egiteko, ezjakintasuna baldarra da eta baldarra da, halaber, beste baten aurka ekiten duena. Ondo izan.
- Prestakuntzaz gain, emakumeek independentzia ekonomikoa izateko baliabide ekonomikoak behar dira; aukera-berdintasuna eta soldata duinak.